

•eus
Jakin 212

herria kultura hizkuntza urtarrila-otsaila
2016

**Kristiane Etxaluz Etxegarairi
elkarrizketa**

AMAGOIA GURRUTXAGA URANGA

Besterik gabe
ASISKO URMENETA

Euskal errefuxiatuak Iparraldean
EGUZKI URTEAGA

EGUNEN GURPILEAN

MIREN ARTETXE · HENRIKE GALARZA
TXERRA RODRIGUEZ · GORKA JULIO

Jakin^{•eus}**212**
herria kultura hizkuntza urtarrila-otsaila
2016



JAKINEko idazlanez inon baliatzerakoan
aipa bedi, mesedez, iturria



aldizkari irekia da eta ez dator nahitaez
idazleen iritziekin bat

LEHENDAKARIA

Joan Mari Torrealdai

OHOREZKO KIDEAK

Paulo Agirrebaltzategi, Joxe Azurmendi, Joseba Intxausti

ZUZENDARIA

Lorea Agirre

ERREDAKZIO BURUA

Xabier Eizagirre

KONTSEILU EDITORIALA

Lorea Agirre, Haizea Barcenilla, Harkaitz Cano, Xabier Eizagirre,
Idurre Eskisabel, Patxi Juaristi, Joanmari Larrarte, Maialen Lujanbio,
Imanol Murua, Andoni Olariaga, Olatz Osa, Gexan Sors,
Joan Mari Torrealdai, Eguzki Urteaga

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Tolosa Hiribidea, 103-1.C / 20018 Donostia

Tel. 943 21 80 92

jakin@jakin.eus

www.jakin.eus



*Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskararen
Normalkuntzako Zuzendaritza Nagusiaren laguntza jaso du*



*Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua*

SUMMARY

5

ZUZENDARIAREN HITZAK

7

HISTORIA BIZIA

ELEZ ELE

11 Kristiane Etxaluz Etxegarairi elkarrizketa Amagoia Gurrutxaga Uranga

Kristiane Etxaluz Etxegarai kultur eragile eta ekintzailearen bizitzan eta jardunean sakontzeko aukera eskaintzen digu elkarrizketak: haurtzaroa Domintxainen; lehen ikasketak; Hegoaldeko lehen errefuxiatuekin harremanak; Enbata eta ETA, formakuntza politikoa eta lehen atxiloaldia; aktore lanak antzerkian, 1960ko hamarkadatik gaur arte; zientzia biologiko eta kazetaritza ikasketak Parisen; borroka politikoa, borroka armatua eta borroka feminista; baserriko lanak eta Aski erakunde klandestinoko jarduna; euskal errefuxiatuen aldeko lana Ekinen; Alfonso Etxegarai errefuxiatu eta deportatuarekin elkarbizitza; torturatuak artatzeko Abegi Fundazioaren egitasmoa...

ALEZ ALE

79 Besterik gabe Asisko Urmeneta

Euskal Herria banatzen duen mugak bi aldeen artean sortzen duen urruntasun eta ezezagutzari buruz egiten da gogoeta. Izan ere, bitasun horrek disfuntzio ugari eragiten ditu administrazio eta gizarte harremanetan ez ezik hizkuntzaren eta kulturaren alorrean.

93 Euskal errefuxiatuak Iparraldean
Eguzki Urteaga

Euskal errefuxiatuek Iparraldeko bizi politiko, sozial eta kulturean bete duten tokia aztertzen da, batik bat 1960ko hamarkadatik 1980ko hamarkadara arte. Ipar Euskal Herriko abertzaletasun garaikidea sortzen laguntzeaz gain, frantses estatuaren errepresioak sustengu mugimenduak eragin ditu, baita zenbait barne zatiketa ere, estatu terrorismoaren biktimak izan direla eta frantses zein espainiar estatuen arteko lan-kidetzaren ondorioak pairatu dituztela ahaztu gabe.

EGUNEN GURPILEAN

109 Kultura
Miren Artetxe

115 Ekonomia
Henrike Galarza

122 Soziolinguistika
Txerra Rodriguez

128 Telepolis
Gorka Julio

KONTRAZALA Unai Iturriaga

Interview with Kristiane Etxaluz Etxegarai

The journalist Amagoia Gurrutxaga Uranga conducts an extensive interview with the cultural enabler and activist Kristiane Etxaluz Etxegarai, in a new issue in the series *Living History*. The interview provides an extensive look back over Etxaluz Etxegarai's life: her childhood in Dornot; her initial studies in her village and in Bayonne, Bordeaux and Toulouse; gaining awareness about Basque nationalism in her teenage years; training and political practice – participation in Enbata and ETA and her first arrest in 1965–; her career as an actress in the theatre from the 1960s to the present day; her university studies in biological science and journalism in Paris; her commitment to and changes of fortune in political life, the armed struggle and the feminist struggle; her activity on the cultural side of the clandestine organisation Askia; from 1978, her work at Ekin in favour of Basque refugees; her life between São Tomé and the Basque Country with the refugee Alfonso Etxegarai, who was subsequently deported... **Amagoia Gurrutxaga Uranga**

Not to the other side

The illustrator Asisko Urmeneta reflects on the distance and mutual lack of knowledge deriving from the border between the two parts of the Basque Country. Indeed, this duality gives rise to many malfunctions in the area of administration and social relations, as well as in terms of language and culture. **Asisko Urmeneta**

Basque refugees in the North Basque Country

The sociologist Eguzki Urteaga analyses the role that Basque refugees have played in the political, social and cultural life of the North Basque Country, above all between the 1960s and 1980s. In addition to helping create contemporary nationalism in the North Basque Country, repression by the French State has given rise to movements in support as well as several internal divisions, without overlooking the fact that the refugees in question have been victims of state-sponsored terrorism and have had to endure the consequences of collaboration between the Spanish and French States. **Eguzki Urteaga**

News today

This gathers together cultural information focusing on the present from various areas and perspectives. This year we shall be closely following culture, economic, sociolinguistic and communication matters. This section draws on various specialists: Miren Artetxe, Henrike Galarza, Txerra Rodriguez and Gorka Julio. **Various authors**

Azken hogei urteetako ohitura du Jakinek, elkarrizketa sakon eta luze bat medio, kulturgileren baten biografian murgil egitea, haren hitzek, bizipenek, ekintzek, pentsamenduak eta memoriak Euskal Herriko azken hamarkadetako historia ulertzen, ñabartzen eta ezkutuan zena agertzen lagundu dezaketelakoan. Sinetsita gaude ahozko memoriak errelatua osatzeko berebiziko garrantzia duela.

Lehen aldikoz, esan beharra dago –gehiago esan beharrik ez izateko–, emakume batek hartu ditu Jakinen *Historia bizia* ataleko orrialdeak: Kristiane Etxaluz Etxegarai, Amagoia Gurrutxaga Uranga kazetariaren eskutik. Orain 74 urte Domintxainen, Zuberoan, jaioa, euskaltzaletasunean eta abertzaletasunean eman du bizia bide desberdinak ibiliz. Memorian geratu da ETArekin lotura izateagatik atxilotutako Iparraldeko lehena izan zela. *FreeKristiane* baten trazan geratu da askoren memorian bere askapenaren aldeko mugimendua. Enbatako hautagai izan zen, *Matalas* eta *Ibañeta* antzezlan politiko entzutetsuetan aktore eta zuzendari aritu zen, 68ko Parisen ondorenak Paris *liberatuan* bizi izan zituen, Iparretarrak erakundeko kide, errefuxiatuen aldeko lanean hamaika eta bi eginak, GALen garaiak gertu-gertutik ezagutu zituen. Alfonso Etxegarai senarra Sao Tomera deportatu zutenetik, harat eta honat dabil. Antzerkia ez du inoiz utzi, eta oraintxe bertan Artedrama taldearekin batera *Etxekoak* antzezlanarekin Euskal Herriko taulak korritzen ari da. Eta aspalditik amets duen egitasmoa aurrera eramaten: torturatuak artatu eta osatzeko Abegi izeneko fundazioa osatzea, auzolanean txukunduko duten gurasoena zen etxean. Bere ustetan, milaka torturatuen aitortza eta ezagutzatik harago, zauri eta urratze horiek sendatzeko bideak ireki behar dira.

Etxaluz Etxegarai eremu ugari ibili ditu. Eta horietako bik garrantzi berezia izan dute bere ibilbidean: Iparraldearen eta Hegoaldearen batasuna, eta euskal errefuxiatuei babes politiko eta soziala ematea. Bi eremu horien gainean gogoeta bana osatu dute Asisko Urmenetak eta Eguzki Urteagak. Urmenetak Hegoalde eta Iparraldearen harremanaren egoeraz idatzi du, harreman ezaz bereziki, eta horrek hizkuntza eta kulturaren eremuan batik bat sor-

tzen dituen urradurez, besterentzeaz: «Ohartuko gara inoiz etxeko leihoaz beste aldean dagoen hori ez dela geure burua baino, islan?», idatzi du. Eguzki Urteagak, berriz, 60ko hamarkadatik 80ko-
ra arteko epean, euskal errefuxiatuek Iparraldeko bizitza politiko, sozial eta kulturalean bete duten tokia aztertu du. Izan ere, «memoria eta errelatu askotariko baina partekatu bat sortu nahi bada, ezinbesteko da, gutxienez 1936tik gaur egun arte gertatu denaren kontakizun zorrotz bezain zintzo bat egitea».

Unai Iturriagak ere, bere artikuluko grafikoan, Iparralde-Hegoalde auziari bota dio begirada, dena ez ote den Mendebalde bihurtu esateko.

Egunen gurpilean atalera sinadura berri bat etorri da. Nagore Amondarainek bi urtetan egindako lan benetan ederrari erreleboa hartu dion Miren Artetxe bertsolari eta filologoak jardungo du kulturaz. Ez du 2016 hau antzua izango kulturari dagokionez, ez horixe, eta, hain zuzen, Donostia 2016 kultur hiriburutzaz eta 2016 Desokupatu mugimenduaz idazten hasi du urtea. Beste hiru analistek iazko erronkari segituko diote: Gorka Juliok teknologia berrien eragin sozialez jardungo du, Txerra Rodriguezek, soziolinguistikaren talaiatik, hizkuntzaren egoeraz, eta Henrike Galarzak ekonomia izango du aztergai, begirada globala eta lokala uztartuz.

HISTORIA BIZIA

ELEZ ELE

- 11** Kristiane Etxaluz Etxegarairi
elkarrizketa
Amagoia Gurrutxaga Uranga

ALEZ ALE

- 79** Besterik gabe
Asisko Urmeneta
- 93** Euskal errefuxiatuak Iparraldean
Eguzki Urteaga

Kristiane Etxaluz Etxegarairi elkarrizketa

Amagoia Gurrutxaga Uranga

Kazetaria

Duela 74 urte jaio zen, bizkor ikasi zuen «nor da itsusia?» galderari «alemanak» erantzuten. Ez alferrik, Alemania naziaren okupazioaren garaiko Zuberoan sortu zen, Domintxaine herrian. Nerabezaroan hasi zen euskaldun kontzientzia hartzen; euskaltzaletasunetik abertzale-tasunera egin zuen jauzi unibertsitate urteetan. Enbata mugimenduan murgildua zen 1963ko apirilaren 15eko agerraldi historikoa gertatu zenerako. «Iparraldearentzako proiektu politiko bat zen, baina Hegoaldearekin lotuta».

Hegoaldetik heltzen hasiak ziren ETAko lehen iheslariekin harremanetan sartu zen, eta 1965ean atxilotu eta Iruñeko

espetxean sartu zuten. ETArekin lotura izateagatik espetxeratu zuten Iparraldeko lehena izan zen. «ETA Euskal Herri osoa aurreratzeko gaitasunarekin ikusten nuen, indarrez eta gaitasunez».

Espetxetik irten berritan –Enbatako kideek mobilizazio ugari antolatu zuten aske utz zezaten eskatu–, Enbataren hautagai aurkeztu zen 1967ko hauteskundeetara. 1968an taula gainean zen, *Matalas* antzezlanara jokatzeko. 1969an, *Ibañeta*-ko Otsanda haragiztatu zuen. Parisen zen 1970ean, 68ko Maiatzaren ondorioz jaiotako Vincennesko Unibertsitatean ikasten eta Burgosko Prozesuan auzipetuen aldeko mobilizazioetan. Handik bueltan, baserriko lanak Aski erakunde klandestinoko liberatu jardunarekin uztartu zituen. Fronte kulturalako buru gisa, salaketa-antzerkigintza landu zuen batez ere. «Iparretarrak ETAren eta Askiren arteko maitasun emankorretatik jaiotzen», idatzi zuen 2005eko maiatzaren 14an. Iparretarrak-eko militante egin zen; ETA adar militarren eta adar politiko-militarraren artean banandu zenean, Iparretarrak utzi zuen.

1978an euskal errefuxiatuen aldeko lanari lotu zitzaion Ekin-en. Bertan zela ezagutu zuen Alfonso Etxegarai Atxirika, 1981ean. Errefuxiatua zen Etxegarai, eta harekin bizi izan zituen Etxaluzek GALen urterik gogorrenak. 1985eko uztailaren 12an, Etxegarai Baionan atxilotu eta Ekuadorrera deportatu zuten. Etxaluz eta Etxegarai Quiton ezkondu ziren, 1985eko eguberrian Elizaz eta 1986ko urtarrilaren 8an zibilak. Azken hori atxilotu, torturatu eta desagerrarazi egin zuten han, eta Sao Tomera bidali. 1986a zen. Orduetik, harat-honat dabil Etxaluz, inoiz utzi ez dituen antzokietako oholtzetara igoz eta senarrarenganainoko bidea hartuz. 7.000 kilometro eginez. Azken mende erdian Iparraldean gizarte, kultur, ekonomia, politika arloan gertatu diren aldaketan lekuko zuzen eta eragile izan da. Nekazari munduaren eraldaketa eta kostaldearen turistifikazioari aurre egiteko lanak; Iparraldearen urritze demografikoa eta asimilazioaren aurkako eginahalak; emigrante ekonomiko oldeak eta errefuxiatu olatuak; gerra

propioak eta gerra kolonialak; 68ko Maiatz beroa eta Gerra Hotza... zuzenean ezagutu ditu. Urteko parte handi bat Arraforttunian egiten du, Domintxaineko etxean. Beste bat, Sao Tomen, senarraren ondoan. Euskal Herriko taulak korritzen ari da azarotik Artedramak ekoitzitako *Etxekoak* antzezlanarekin. Badu beste proiektu bat ere esku artean: Abegi Fundazioa, torturatuek atsedean hartu eta osatzeko etxea.

Azken puntu bat ezarri nahi izan du elkarriketa zehazterakoan: Kristiane Etxaluz Etxegarai gisa agertu nahi du bertan. «Espainian aitaren abizena ezartzen dute lehena, amarena segidan. Portugesek amarena ezartzen dute lehena, baina, emazteak, ezkontzearekin, senarrarena hartzen du. Nik hautatu dut Kristiane Etxaluz Etxegarai izatea, aitarena eta senarrarena hartuz».

Hasieratik hastea izango da onena. Non den hasiera... demagun zure jaiotzan dela.

Bi gauzaren arrapostua ematen ahal dut. Lehena, nire hasiera Lourdesen hasi zela uste dudala. Zeren-eta gurasoek ez zuten haurrik egiten ahal. Ama haurdun gelditzen zen eta gero galdu. Hala bizpahiru aldiz. Orduan, deliberatu zuten Lourdesera joatea; eta gero umea ukan zuten. Ni neu. 1941eko irailean sortu nintzen. Frantsesek gerla galdua zuten jada, eta aita izana zen urte bat lehenago mobilizatua. Beti pentsatu dut justu-justu hura gerlatik jin eta gero egin nindutela. Orduan, gerlaren, gerla galdu baten produktua naiz. Domintxainen jaio nintzen. Domintxaineko ezaugarria da hiru probintzien artekoa izatea, muga izatea –orduan bazituen 800 jende, orain erdiak baizik ez ditu–: alde batetik da baxenafartarra, Amikuzeko inguru horretan; beste aldetik Zuberoa da; eta, azkenik, Biarno ere. Horrek, nahi edo ez, jendea markatzen du.

Zu zeu zein neurritan markatu zintuen?

Herri horretako biztanleek, komunitate homogeen baten ezaugarriei atxikiak zirelarik oraindik, bokazioa bazuten bat-tak bestearen negozioetan sudurra sartzeko, eta niri bereziki gustua eman dit, auzoaren salda etxekoa baino hobea denez, usnatzera joateko.

Zein etxera jaio zinen?

Aginda da gure etxearen izena. Ez da hala ezaguna Domintxainen; Etxalüzenia deitzen dute jendeek ene sortetxea. Gurasoek bazuten komertzio bat, droga komertzio bat: arno martxantak ziren. Biziki maite dut erratea *dealer* baten alaba

naizela. Amonak janari saltegi bat zeukan, eta gasolina-eta ere saltzen genituen. *Drugstore* bat genuen, egun guztian irekia. Hori guztia, aitaren aldetik. Pierre zuen izena. Ama, berriz, auzokoa zen, lau etxe barneragokoa elizarantz. Amaren aldetik baserritarrak ziren hastapen batean. Familia horretan ere gerla istorio handi bat bazen, amaren aitak 14ko Gerla egin zuelako eta horrek biziki markatu zuelako familia.

Nola markatu zuen, bada?

Amamaren lanari esker lortu zen gerla aitzin maileguan erositako baserria pagatzea, eta hark ez zuen ontzat hartu attittiren proiektua gauzatzea, permisionez etorri zelarik 1917an. Attittik nahiago zuen desertatu gerlara itzuli orde, eta Elizondo aldean instalatu emaztea eta alabarekin. Emazte maiteak ez zion onartu, baina, eta attitti errenditu zen, baina ez zion barkatu, eta, gerla bukatzean, baserritik plazara jin ziren.

Plazan ostatu bat bazuten. Eta billar mahai bat bertan. Donapaleutik ere etortzen ziren billarrean jokatzeko. Amak biziki ontsa jokatzeko zuen billarrean. Marie zuen izena. Larroque abizena. Ene amaren parteko amamaren abizena Etxegarai zen, gero ezagutu dudana Alfonsoren abizen bera.

HAURTZAROA DOMINTXAINEN

Nola gogoratzen duzu haurtzaroa?

Gure haur denboran bazen biziki jende. Etxea handia zen. Aitaren parteko amañi eta aitañi bertan ziren, eta amaren partetik amama eta attitti deitzen genituenak ere ez ziren urrun, usu ziren etxean. Etxea bi partetan zen moztua: batean etxebizitza, eta bestean komertzioa. Komertzioan beti zen jendea. Bai erosleak, bai lagunak, bai inguruetako alkoholikoak... Animazione handiko etxea zen. Bizpahiru langile, aitaren kamioiak batera eta bestera arnoa banatzen, eta haren espezialitatea zen arno desberdinak mozte,

jatetxeetarako-eta, bezero bakoitzarentzako arno berezi bat, Frantziako hego-mendebaldeko ekoizleen arnoa, Aljeriakoe-na, Gersekoena eta, oso bakan, Nafarroakoena ekarri eta nahastuta. Ostatueta saltzen zuen aita batez ere. Jakite bat zen harena ere. Nik hamazazpi-hamazortzi urte nituen komertzioa utzi zuenean. Frantziako legeak aldatu ziren eta horren egitera ez zuten gehiago uzten. Monopolioak hasi ziren, markak. Orduan, zeukan parada bakarra zen bera ere marka bihurtzea, eta bere burua baserritar egin nahi zuenez, Kaliforniatik zetozen Garaziko bi anaiari saldu zien komertzioa.

Han dirua egina izango zuten.

Bai, eta horrekin duzu gure aldeko ekonomiaren marrazki bat: gazteak joaten ziren Kaliforniara, diru pixka bat egiten, itzultzen, eta bazen Arostegi izena zuen gizon bat, hemen salgai ziren komertzio guztiak ezagutzen zituen eta baita erosi nahi zuten hango guztiak. Artekaria zen.

Gurasoek bazituzten lur peza batzuk lehendik, eta, salduta-koaren diruekin, beste baserri bat erosi eta ontasun horrekin aita baserri aski handi bat egin zuen. Gaizoak ez zuen biziki gozatu, baina. Fite hil zen, bihotzekoak jota.

Baserrian zer lan egiten zituen aita?

Donapaleu inguruan bezala artoa –hazitarakoa ere bai–; eta esnetarako behiak ere ezarri zituen. Bi langile hartu zituen beren familiekin, etxea eman zien, eta traktore bat erosi zuen batean eta bestean aritzeko. Aita hil zelarik, eta anaiak albatari izaten ikasi zuenez eta amak asko maite zituen kabalak, aldaketa egin zuten. Amak behiak maite zituen bereziki, baina haragitarakoak batez ere, lan gutxiago ematen dutelako. Langileak kendu eta ama hasi zen. Neu ere orduantxe hurbildu nintzen etxera. Garai hartan Parisen bizi nintzen eta aldatu nuen nik ere nire bidea. Domintxainera itzuli nintzen, baina baserritarra denbora erdiz nintzen, ez denbora osoz. Hor hogeita zortzi-hogeita hamar urte ditut. Kartzelatik jalgia eta Enbatarekin hauteskunde kanpaina egin nintzen.

Nolako umea zen Kristiane txikia?

Aitarekiko lotura handia neukan. Edipikoa, erran nezake orain. Biziki traketsa eta harroa nintzen, beti epantxuan. Beti arazo sortzaile, bihurria. Anaia, aldiz –bi anai-arreba gara, bi urte eta erdiko tartea dago bion artean–, xarmanta, biziki ume gozoa zen. Bazuen problema handi bat, baina: ez zuen fitsik jan nahi. Nik, aldiz, dena jaten nuen: harena, nirea, eta amañiren saltegiko dena. Bazen pareta bat, non markatzen zituzten anaiaren eta bion luzetasunak. Gaixo anaia, sufritu du. Horrek amari ematen zion gauzak gaizki egin izanaren zama moduko

bat. Errudun sentitzen ote zen umeak alderantziz egin izanagatik: mutila, txarra fisikoki; eta neska, pertxeroi zaldia bezalakoa. Biziki lotuak egon gara anaia eta biok beti. Ama biziki bortitza zen. Nirekin. Zaflakoak ematen zizkidan, *hezteko* omen. Haur egurtua izan naiz. Ez zen diziplina kontua, orduko pedagogia baizik. Gure adineko besteek ere berdin pairatzen zuten.

Amaren pazientzia mugatua zen, eta haren fantasia ezin agortuzkoa. Gero ulertu dut bere feminitatearekin –eta horri lotua zen bekatu arriskuarekin– batailatu duela. Luzaz. Gure artean konplizitatea lortu artio.

Aita, aldiz... Gure etxean, samurtasuna aitarengandik jiten zen. Marra, berriz, amarengandik.

Euskaraz bizi zineten?

Ez beti. Etxean, bezeroekin, gurasoek eta amañik euskaraz egiten zuten. Nik tipitan euskaraz, eskolara joan arte. Gero, frantsesez hasi nintzen. Hamar urterekin joan nintzen Baionara, eta nekien euskara dena galdu nuen. Bazen ardatz bat

«Ama biziki bortitza zen. Zaflakoak ematen zizkidan, *hezteko* omen. Haur egurtua izan naiz. Ez zen diziplina kontua, orduko pedagogia baizik. Gure adineko besteek ere berdin pairatzen zuten»

amaren partetik: erlijioa. Hezkuntza giristinoa eman nahi zigun. Ordura arte, eskola publikoan aritu nintzen. Eta eragin handia ukan zuen gainera lehen garai hark. Maisua sozialista zen, eta biziki maisu ona. Nik hamar urte artio ikasi dut dakidan guztia. Haur gutxi ginen, eta gure etxea zenez herrian aktibitate gehien zeukana, maisua ere gurera etortzen zen arratsaldetan. Buruketak eginarazten zizkidan arrats guztietan, jolasean bezala. Maisuak eta emazteak ez zuten haurrik, eta biziki maite gintuzten anaia eta biok. Ama pixka bat jeloskor bilakatu zela uste dut. Gainera, buruan ezartzen zizkiguten gauza batzuk!

Adibidez?

Jabearen eta maizterraren arteko borroka normala zela. Eta guk bagenituen bi maizter, aizu. Ez genuen borrokarik haiekin, baina amak-eta ez zuten maite giro hori, halakoez mintzatzea. Historia ere erakutsi ziguten. Frantses Iraultza, esaterako, sekulako festa bat bezala erakutsi ziguten, kantu alaiekin. Gure amak ez zuen maite hori, erlijioaren kontra joaten ziren haren buruan.

Zuen ama xuria zen.

Bai, eta maisua-eta gorriak. Hauteskunde denboretan-eta, testu batzuk egiten genituen eskolan, idatziz, eta kartazal batzuetan ezartzen, etxeetara igortzeko. Seaskakoak politizatuak direla erraten ikusten ditudalarik batzuk, beti pentsatzen dut: zenbat gehiago gu eskola publikoan!

Aita zer zen, ama bezalakoa pentsamoldez?

Xuri edo gorri izatearen erranahiak, garai hartan eta gure ingurumenean, Elizarekin zer ikustekorik bazuen. Berezi mendearen hastapenean egin zen Estatuaren eta Elizaren bereizketa, Frantziako markoan, laikotasuna balio bezala sarraraziz gure orduko munduan; bai eta ere tirabira-sagar bezala. Laiko eta Frantziako alderdi sozialista zale izatea gorria izatea zen, eta gure aitarendako horren ondorioa zen

funtzionarioek manatuko gintuztela, Parisen erranen arabe-
ra. Aldiz, xuri izatearen erranahia zen *pabillunketarien* pos-
tura, herriko jauntxoek kontserbadorismoa apezaren izate
manerarekin akoplatua. Horrek irri eginarazten zion aitari.

Amarekin alderatuz, erlijioa praktikatzen zuen behar ba-
zen, baina ez zen bere askaria batere. Izan zen apez bat,
Goienetx, eskola giristinoa ezarri zuena, eta erran zuen lehen
predikua jin zelarik: «Zer da herri basa hau, non haurrak
gurasoer toka eta noka mintzo diren?». Hark erran zuen, be-
ren haurrekin errespetua gordetzen ahal ez zuten gurasoak
kondenatuak zirela. Handik itzultzean, amak erran zigun:
«Hemendik goiti, haur maiteok, zuka ariko gara, euskaraz
eta frantsesez». Aitak, berriz: «Eni ez, eni toka». Egun batez
ikasi nuen. Igande hartan bertan, oren bat berantago, noka
egin amari nahi gabe, eta zapla! Hamar bat zaplako, eta bu-
katu zen. Erraza da horrela heztea. Zer da *errespetua*?

Zer da?

Ikasi dut *errespetua* zela beheko eta goiko bi estrata horien
artekoa ez gainditzea. Behekoak behar du errespetua eman
gainekoari, baina gainekoak behekoari ez. Hori da errespe-
tua. Kabalekin ere behar da errespetu horri eutsi. Herriko
jendeek erraten zuten ama izugarri ona zela kabalak hezten,
katuak hezten ere bazekiela.

Herriko eskolatik Baionako eskola giristinora joatea nola bizi izan zenuen?

Ez dakit traumatikoa izan zen, baina zigor handi bat bezala
bizi izan nuen. Ez nuen erakutsi nahi lortu zutenik. Badakit
urte bat lehenago hasi zela ama erraten behar nuela interno
joan, baina amañik ez zuen nahi. Eta, batez ere, aitak ez zuen
nahi. Aitak erraten zuen Maulera eramango ninduela egune-
ro interno joan orde. Egunen batean egin nuen egin behar ez
zen zerbait, baina, sukaldean. Amañi han zen, eta tximiniaren
gainean baziren ama birjina eta bizpahiru saindu, eta amañik
erran zidan: «Ikusiko dun, ama birjina penatuko dun». Nik,

kadira hartu, igo, ama birjina hartu eta lurrera erortzen utzi nuen. Hor gertatu zen. Bederatzi bat urte nituen. Izan zen halako isiltasun handi bat. Gurasoak etorri zirelarik, amañik bidali ninduen kanpora, isiltasuna nagusitu zen etxeaz, eta hor zuten deliberatu behar nuela beste esku bat, bortitzagoa, ni hezteko. Amak irabazi zuen. Destinoa izan zen. Bihurgune biziki inportantea izan zen ene bizian. Hala behar zuen.

Mari-mutila izateari utzi behar zenion behingoz.

Hori da hitza, bai, mari-mutila. Fisikoki *akastuna* nintzen; hezkuntza aldetik beste hainbeste. Leku oso garesti batera bidali ninduten, Largentéra. Domintxainen ez bezala, neskak bakarrik geunden han. Urtsulinena zen eskola. Parke handia zegoen. Ostiralero irakurtzen zizkiguten notak, eta batez bestekoa betetzen ez zuenak ezin zuen igandean kanpora atera ahal. Egin nituen sekulako eginahalak jalgitzeko. Frantsesa mintzo nuen Domintxainen bezala. Orain frantses azentua homogeneotu da telebistaren arauarekin, baina orduan bazen azentu herrikoi azkarra, itsusi egiten zuena, eta bizpahiru hilabetez kendu zidaten hori. Domintxainera itzuli nintzelarik azentu berri horrekin, eguberrietan, beste lagun guztiek beren taldetik kanpo utzi ninduten. Zenbat eta baztertuago, ni orduan eta harroago.

KONTZIENTZIA HARTZEA

Moja haiekin joan zinen Hegoaldera lehen aldiz.

Bai. Egiten genuen bi urtero bidaia bat. Ez dut gogoan beste bidaiarik, baina badut gogoan batean Arantzazura joan gina goizez, eta Zarautzik barrena itzuli. Hamalau urte ere ez nituen, eta Zarautzen lasatu gintuzten. Ez dakit zer zeukaten ikusteko mojek Zarautzekin, baina bazen zerbait. Hango hondartzan hiruzpalau mutiko ikusi eta haien gibeletik abiatu ginen. Beste neskek ez zuten haiekin mintzatzeko hasi nahi.

Ni joan nintzen haien atzetik, eta laster itzuli. Itzultzean, galdetu zidatenean, erantzun nien: «Bada bat Plentziakoa. Ikasten ari da ontzi kapitaina izateko eta izena du Alfonso». Halaxe pentsatu nuen, ez bainuen zinez hitzik egin mutil haiekin. Euskaraz ari ziren euren artean.

Atentzioa deitu zizun horrek?

Bai. Asko gainera. Hor sentitu nuen benetan gure herrian falta zena hor bazela, eta haiek eta gu berdinak ginela. Kontzientzia hartze baten modukoa zen. Largentén euskaldun biziki gutxi ginen, baina gutxi horietan, gure hamar urteko euskaraz aritzen ginen hamabostekin ere. Kanpora joaten ginelarik, euskaraz aritzen ginen beti, beste lagunak kitzikatzeko gisan. Irisarriko Mendi familiako bi ahizpa baziren, Harluxetekin –fundaziokoa– ezkondu zen bat gero. Hor ere kontzientzia hartze hori hasi zitzaidan. Nola esplikatu hori? Bazen gauza bat normala ez zena. Neskek batez ere, ikasiek, ez zuten euskara jakiten ahal. Instrukzioa frantsesetik pasatzen zen, eta frantsesak hartzen zuen beste hizkuntza guztien lekua. Frantsesa zen zurea eta beste guztiak atzerriko. Euskara baztertua zen, *itsusia* zelakotz. Orduan, euskaraz aritzea hala eta ere, urrats ttipino bat izan zen. Bigarren urratsa, ikustea beste aldean jende modernoa –ez base-rritarrak bakarrik– euskaraz aritzen zela. Eta hirugarren urratsa izan zen Getarian. Hori beste atal bat da, baina.

«Neskek batez ere, ikasiek, ez zuten euskara jakiten ahal. Instrukzioa frantsesetik pasatzen zen, eta frantsesak hartzen zuen beste hizkuntza guztien lekua»

Konta ezazu hori ere, faborez.

Action Catholiquekoa izan nintzen, Jeunesse Étudiante Chrétiennekoa [JEC]. Ez ginen bereziki ibiltzen haiekin, baina haiek udaleku batzuk antolatzen zituzten oporretan, eta Getariako San Prudentziora [Gipuzkoa] joan ginen 1956an,

hamabortz urterekin. Kamino izena zuen apaiz batekin. Luzaidekoa zen. Oso-osoz gizon ederra. Kantaria, oso umoretsua, gu bezalako neskekin bazekiena ibiltzen. San Prudentzian bazen jantoki moduko bat, eta izan zen errebelazio moduko bat. Etxe hartan baziren lau-bost seme baserrian lan egiten zutenak, eta aitona bat joaten zena arratsaldetan arrantzan ontzi txiki batekin. Ni harekin joaten nintzen. Euskaraz aritzen ginen. Hark ez zidan ezer ulertzen, eta nik ere ez hari, baina bagenuen elkarrenganako joera. Ze poza, itsasoaren beldurra izanik ere, hantxe egotea! Hor atzeman nuen gauza bat, nola erran, goxoa, samurra... adin horretan behar nuena.

Zer behar zenuen, bada?

Aurkikuntza bat izan zen holako leku ederrean, holako mutil xarmantak, holako aiton misteriotsua, etxetik kanpo harmonia berezi batean murgiltzea. Gauza organikoa zen hain segur, jazartze hormonal edo feromona hitzekin esplikatu daitekeena. Baina irudimenean sartu zaidana betikotz. Ikasi izan banu bezala, praktikan, bidea dela helburua eta gezurra dela sakrifikatu behar dela gero gozatzeko. Nire kasu horretan, euskaldun izateak zuen diferentzia egiten, zorion mota hori bermatzen. JECeko nire kideak Espainian ziren, orduko erranahi gutxieslearekin, frantses sentitzen baitziren. Ni, aldiz, nire beste tribu batean sentitzen nintzen.

Baionako ikasketak bukatutakoan, Bordelera joan zinen. Medikua izan nahi zenuen.

Bai. Bueno, etxetik urrunago joan nahi nuen. Bordelen egin nituen hiru urte. Handik Tolosara joan nintzen, anaiak hara joan behar zuelako ikasketak egitera. Ez genuen bekarik jasotzen, eta dirua aurreztearren bidali gintuzten biok batera. Ez nuen batere maite izan aldaketa hura. Lagunak galdu nituen. Tolosan urte bat egin nuen, eta, gero, batere xerkatu gabe, Enbatako egonaldi bat egin genuen Kanbon, 1965eko udan. Hor agertu zen Hazparneko kolegioko lehendakaria, Piarres Xarriton apezka, eta hark galdegin zidan ea ez nuenentz

kolegioan irakasle lanean aritu nahi. Natur zientziak irakastea eskaini zidan. Baietz erran nuen. Ez nuen nire bizitza nahi bezala gidatzen, ez bainuen batere dirurik, eta Tolosan ez nengoen gustura.

Xarriton Enbatako egonaldian ezagutu bazenuen, ordu-rako bazenbiltzan abertzale mugimenduan.

Bai. Uste dut Bordeleko bigarren urtean sartu nintzela mundu horretan. Izan behar nituen hemeretzi-hogei urte. Embataren interesak –Bordeleko euskal ikasle asko zen bertako kide-defendatzeko sartu nintzen Enbatan, eta Enbatan sartu eta berehala ezagutu nituen ETAko lehendabiziko errefuxiatuak.

Hori zein urtetan gertatu zen?

1962-1963 inguruan. Itsasuko Enbataren agerraldia 1963ko apirilaren 15ean izan zen, baina urte bat edo bi lehenago sortuak izan ziren ikasleen taldearekiko bereizketa eta funtzionamendu propioa. Nik bigarren urtean hartu nuen parte Enbatan.

EMBATATIK ENBATARA

Enbatara nola iritsi zinen, baina? Nork esan zizun bertaratzeko?

Bordeleko ikasle euskaldunak Baionara joan ginen, bertan bazelako talde bat. Izen bat bagenekien: Ximun Haran. Pilotaria zen, biziki ezaguna. Hark Embata ikasleen taldea gauza politiko bat bilakarazi nahi zuela bagenekien, eta Argitxu Noblia eta biok, ikasleen interesen zaintzeko, Baionako bilerara joan ginen. Borrokatu ginen, baina baita laketu ere. Bat egin genuen taldearekin.

M-tik N-rako, hau da, Embatetik Enbatarako bidea hasia zen.

Bai. Problemarik ez ukaiteko ezarri zuten N-a. Parisen ere bazen ikasle talde bat, eta haiek gu baino amorratuago agertu ziren. M-a haientzat utzi zuten.

Xarriton ere ba al zen Enbatan?

Ez dut uste txarteldua zenik Xarriton, baina oldekoa aspaldidanik, Enbatakeriak baino lehenagotik. Hala eta ere, ez zuen ikustekorik Enbatan. Betidanik, Jakes Abeberri da gehienik lan egin duena. Oldarra talde folklorikoko kidea zen, eta talde horretatik pasatzen zirenek bazuten beren sarea, eta erabiltzen zuten. Jakes Abeberri eta Ximun Haran kontrajarriak ziren pixka bat, baina elkarrekin lanean ari zirelarik, energia, martxa handia sortzen zen. Mokoka handiak ere izaten ziren, baina lana egiten zuten.

Gero, Jean-Louis Davant ere bazen, beste estilo bat, barnealdekoa. Ikasia hura ere, unibertsitatean eta. Beste bat, Jeannick Aramendi. Baionako Lizeoan egiten zuen lan. Bai eta ere Mixel Burukoa, mediku otorrinoa, beti diruzain lanak egin dituen. Horiek ziren gehienak. Eta gero, gure belaunaldiak lekua egin zuelarik, Patxi Noblia eta Andre Galant liberatuak ziren.

Zu eta Argitxu Noblia al zineten emakume bakarrak?

Baziren gehiago ere. Ximun Haran matxista jasanezina zen. Beti neska ederrak ukanez aldamenean, pilotaria izanik toreroak bezala, plaza orotan... Baina hori bere beste bizi bat zuen. Enbatan emazte batzuk baziren, bai. Jeanne Idiart, esaterako, Jean-Louis Davanten emaztea. Txintxoak

ziren. Senarrarekin etortzen ziren. Abeberrik inoiz ez zuen ekartzen emaztea. Aramendi ez zen ezkondua. Gero, Martxelin Arbelbide, Manex Pagolarekin ezkondu zen. Horretarako ere balio baitzuen Enbatak. Baziren emazte batzuk, bai, baina isilik. Ni baino isilagoak ziren.

«Enbatan emazte batzuk baziren, bai, baina isilik. Txintxoak ziren. Senarrarekin etortzen ziren. Ni baino isilagoak ziren»

Aintzat hartzen al zuten zuk eta besteek esandakoa?

Gaiaren arabera. Ez dut ene bizian biziki sentitu emazte bezala gizonen partetik mespretxua edo baztertuta gelditzea. Kontuan hartzen zuten nik esandakoa.

Politikan ari zineten.

Bai. Enbata mugimendu abertzale federalista europarra zen. Hobe esanda: *nationaliste basque et fédéraliste européen*. Eta frantsesez egiten genuen kasik eta dena. Bileretan, punta batetik bestera erdaraz.

Baina abertzale sentimendua non deskubritzen duzu zuk? Enbatara iristean?

Bai, orduan. Gurasoak ez ziren batere abertzaleak. Orokorki, beren teoria politikoa zen politikarekin kontu handiz ibili behar dela, ez dela fidatu behar, hobe dela ez markatzea. Merkataritza mentalitatea zeukaten. Bozkatzen zuten, baina konprometitu aitzin ontsa pentsatu behar zela zioten. Uste dut etxean Enbatako ibilerak ikusten zituztela mundanitate kontu gisa, ez politika gisa. Beharbada, nik halaxe aurkezten nizkielako. Lehenago baziren Iparraldean bilkura batzuk euskaldunenak: Euskaltzaleen Biltzarra. Urtero banketea izaten zen; aitarekin joaten nintzen hara. Ama ez zen etortzen. Emazteak ez ziren joaten halakoetara. Hitz batzuk, kantuak... izaten ziren han.

Erran dezagun Embatako garaian euskaltzaleak ginela, Enbatarekin abertzale bilakatu ginela eta, geroago, ETArekin gudari mundu bat eraikitzen delarik, jauzi hori ere egiten genuela zenbaitzuk.

Enbatak ez zeukan zerikusirik giro mundanoarekin, hala ere, mugimendu erabat politikoa baitzen.

Baina nik hala aurkezten nien gurasoei: elkarrekin bazkalitzen ginela, kantuz aritzen... Beti kantu berri batekin etortzen nintzen etxera, eta gurasoek maite zuten hori. Labegerie

bera ere ezagutzen zuten, gertukoa zuten. Amak biziki maite zituen Labegerieren kantak. Horrela presentatzen nuen, eta horrela irensten zuten. Aldizkaria ere maite zuten. Federalismo europarra biziki maite zuten. Donapaleu inguruan bada tradizio bat, demokrata-kristaua. Jean Errekart diputatua Europaz-eta mintzo zen. Aita ez zen Errekart zalea, baina ama bai. Gure etxean asko irakurtzen zen egunkaria. *Sud-Ouest* eta beste bat. Politika segitzen zuten.

Mixel Labegerie izaten al zen, baina, bilera haietan?

Ez dakit nolaz, ez dut ene bidean ikusi inoiz.

ERREFUXIATUAK

ETAko lehen errefuxiatuak aipatu dituzu lehentxeago. 36ko gerraren ondorioz joandako errefuxiatuekin ba al zenuten harremanik aurretik? Kepa Ordokirekin eta, esaterako.

Ez. Domintxainera ez zen halakorik heldu. Izan ziren gauzak, kasik ene subkontzientean gordeak geratu direnak. Domintxainen izan zen gizon bat, arrunt berezia, jauregiska batean bizi zena. Ezkongabea, Etxegoen deitzen zen. *Homme de lettres* zen ogibidez, letratua. Gutunak idazten zituela zioten herrian. Saiakerak ziren idazkiok, beharbada? Lodi-lodia zen. Arratsaldetan joaten zen Donapaleura Domintxainetik –sei kilometro badira–, galtza xuriak eta zinta gorria soinean, sanferminetan bezala. Koadro bat zen. Lurrak eta etxetiarrak bazituen, eta memento batez izan zuen morroi bat bere etxean, ni umea nintzelarik, errefuxiatua. Ez zen erraten hura espainola zenik, baizik errefuxiatua. Eta langile hark izan zuen istorio bat auzoko emazte batekin. Errefuxiatua joan zen jin bezala.

Gero, nik biziki maite nuen aitak eta biok afaldu eta gero itzuli baten egitea. Aitak erakusten zidan hor Gurs bazela, eta behatzera, beharbada, oihuak eta orroak entzun ahal

zirela, hor gertatzen zirela izugarritzko sufrikario eta gauza gogorak. Ene imajinarioan geratu dira horiek.

Hori umetan. Non ezagutu zenituen hurrengo errefuxiatu belaunaldiko kideak? Hazparnen?

Ez, kalean. Julen Madariaga, nagusia; eta Txillardegi, Joseba Elozegi eta Benito del Valle. Gero ezagutu nituen Pako Iturriz eta beste batzuk. Zenbait, burkide bezala. Hastapenean aipatu ditudanak, baina, goi mailakoak ziren. Madariaga, Txillardegi eta Del Vallez ari naiz.

Horiek nola ezagutu zenituen?

Enbatako bileretan. Ez baldin baziren bileran bertan, bileratik ateratzean hor ziren. Iaz egin dugularik zirkuitu bat Enbatari buruzko liburuaren presentatzeko, norbaitek galdetu zigun mahaian geundenoi zergatik egin zituen harremanak Enbatak ETAkoekin eta ez EAJkoekin, eta Jakes Abeberrik eman zuen arrapostua: «Ni izan nintzen EAJkoei erraten zer egin genuen gogo eta ea laguntzeko prest ziren, eta haiek ezetz. ETAkoek baietz erran zutenez, ez da batere misteriorik. ETAkoekin izan ginen EAJkoek ez zutelako nahi».

Zergatik ez zuten nahi EAJkoek?

Lehenagotik hitz emana ziotelako Frantziako Gobernuari neutralitatea. Errefuxiatu politiko estatutua eskuratzearren, Parisi agindua zioten ez zutela bertako politika kontuetan sudurra sartuko. Ez zekiten nola bilakatuko zen Enbata.

Frantziako Gobernuak ez zuen oparirik egin erbesteko Eusko Jaurlaritzari bere herritarrei errefuxiatu politikoen estatutua onartzean. Estatutu hori eskubide baten froga da, eta NBEko agentzia berezi batek kudeatzen du orokorrean –ACNUR izena du gazteleraz edo HCR frantsesez– Bigarren Mundu Gerlatik landa Genevako Konbenioan definitu ostean. Estatu guztien *menuan* jiten da, ez da pribilegio bat edo *kartan* agertzen den plater berezi bat. Frantziak, beste estatuak bezala, badu eskubide hori ezartzeko lanabesa:

OFPRA Office Français de Protection des Réfugiés et Apatrides. Horrek du erabakitzen errefuxiatugaia benetan arriskuan dagoen. OFPRA hori Barne eta Atzerri ministerioekin gehiago lanean ari da Justiziakoarekin baino. Erran nahi dut Frantziako hautu estrategikoek manatzen dutela erakunde horren politika, ez eta torturaren izateak, adibidez, errefuxiatugaiaren jatorrizko herrian.

Duela hamar bat urte, Manu Robles-Arangiz Fundazioak antolatutako jardunaldi batzuetan galdetu zenion Abeberri ea non sustraitzen den eskuineko eta ezkerreko abertzaleen arteko herra. Zein da galdera horri zeuk ematen diozun erantzuna?

Orduz geroztik izan dira mugimendu batzuk tableroan eta uste dut pixkanaka herra desagertzera doala, baina ezaxolakeria emendatuz. Garai hartako eta lehenagoko herraren

«Eskuineko eta ezkerreko abertzaleen garai hartako eta lehenagoko herraren arrazoa, edo arrazoietatik bat, gerla bat izatea zen»

arrazoa, edo arrazoietatik bat, gerla bat izatea zen nire aburuz. Ezker abertzalekoak, teorian, eskuin abertzalekoekin arerio ziren, eta etsai bakarrak ziren Espainiako indar armatuak eta salatariak –norekin ikasi eta partekatzen zenuen teoria, eta noiz, eta nola, horren araberakoa da irakurketa; nigan horrela sartu zen, beraz hari horri jarrai diezaiozun—. Baina,

bestalde, bazen ere Gerla Hotza, bere bi bloke etsaiekin. Eskuin abertzalekoak bloke ‘kapitalistarekin’ lerrokatuak zirela gauza jakina da, zerbitzu sekretuak edo inteligentziakoak barne. Ezker abertzalekoak neurri bateraino bloke ‘komunistarekin’ sartuak ziren. Nik ez dakit bereziki zerbitzu sekretuen mailan, baina CIA edo Mossad gure etsaitzat genituela ez da dudarik. Zerbitzu horiek ez dira alferrik egoten gerla psikologiko arloan eta haientzat beti onuragarri da senideak ahal dela bereiztea. Beraz, iturri horretan hazten da herraren urhaundia.

Baina gauzak hobekiago ikertuz, ageri da ere euskaldun anitzek ez zuela horren beharrik haserretzeko eta horientzat ezker abertzalea errausketa zalearen sinonimoa zen. Suntsitzailea, bere ‘beso armatuarekin’ eta gero ‘kale borrokarekin’. Marxista ikerketen arabera, ‘burges txikien’ erreflexuak. Baliteke hortik ere herra haztea. Baina, oro har, zer proportzionetan zegoen herradunen parte euskal ezker eta eskuinaren arteko sentimenduetan? Apustu egitea libre bada, nik ehunetik hogeian mugatzen ditut. Jakinez badirela, bestalde, ber proportzioneetan multzo bat elkar estimatzen dutenak, alor arerioetan izanik ere.

Enbatako bileretatik irten eta errefuxiatuak kanpoan zain izaten zenituztela esan duzu. Nola bizi ziren gurutzaketa horiek?

Juan Jose Etxabe, Juan Manuel Ozaeta *Gautxo*... Arrasateko talde hura orduantxe iritsia zen. Haien artean laguntzen ziren. Batzuetan, Enbatan bertan lo egiten zuten. Baionako Cordeliers kalean Enbatak bazuen lokal handi bat. Bada film bat egina Abeberriri buruzkoa, frantsesez, ez da gaizki gauza batzuen ikusteko. Miarritzeko Oldarra dantza taldekoa zen Abeberri orduan. Oso abertzalea zen taldea, eta bazuen harreman bat Herriko Etxearekin. Kasinoak, antzokiak baziren, eta Oldarrakoek bazituzten alimaleko antzoki baten belus gorriko errezelak. Haien eraman zituzten Enbataren Baionako egoitzara, eta hamar bat errefuxiatu ikusi ditut nik belusezko errezel haietan bilduta lotan. Bizi osoan gogoratuko naiz irudi horretaz.

Artean antolatuta gabe zegoen errefuxiatuen babeserako etxebizitza sarea, izan ere.

Hori geroago etorri zen, bai. Hori egiten zen aski espontaneo-ki, eta uste dut anitzek bazutela norbait. Ez ziren arrunt galdu-rik etortzen Baionara. Piarres Larzabal apeza ere hastapeneko Enbatan zen, eta biziki fite muntatu zuen Telesforo Monzonekin batera Anai Arte, 1969an, Donibane Lohizunen. Hor

jada ondo antolatu zen errefuxiatuen babeserako kontu hori, abokatu eta guzti. Eta elkarte horretako abokatu lanetan Aberriren anaia hasi zen, Maurice. Oso ona zen.

Formakuntza politikoa ere hartuko zenuten, jakina.

Bai, hartzen genuen. Txillardegik egiten zizkigun ikastaro moduko batzuk, betiko Enbatako lokal horretan, euskaraz gehiena, *La insurrección en Euskadi* liburuarekin. Hark idatzia zen, eta testu hura zen ikastaroaren ardatza. Txillardegik erraten zuen, gutxi gorabehera, EAJ hor zeno ez zela Euskadi askatuko, askatasuna pasatu behar zela EAJren bazterreratetik. Ariketa teoriko anitz bazen garai hartan. Gutxi ikusten genuen bizkaitar hori, gero anarkista bilakatu zena, Federico Krutwig. Miarritzen bizi zen, Aberriren etxean. Ez zen Baionara jiten, baina bagenekien zer zuen buruan. *Vasconia* publikatua izan zen garai haietan. Nik ez nuen asko ulertzen. Besteek ere ez, uste dut. Letra zopa bai, ulertzen genuen, eta iruditzen zitzaigun hori zela formakuntza. Eta biziki laster agertu ziren espainolisten aurkako kondenak. Pako Iturrioz datorkit gogora. Lehenetariko errefuxiatuetarik zen. Donostiakoa, eta abertzalea. Gurekin zegoen, baina ez zen nazionalista. Kartzelara erori zen bestaldean; denbora oso gutxi egin zuen; eta ni neu kartzelan preso sartu baino lehenago, Madariagak igorri zidan harekin hitz egiteko eskaera, Poliziari atxiloaldian zer erran zion jakiteko. Joan nintzen, baina arrapostu eman zidan ez zuela Madariagari errateko fitsik, ez zela gehiago talde horretarakoa. Iturrioz hori EMK eta horrelakoetan agertu zen gero. FRAPen ere bai, uste dut.

ETA-REN MEZULARI

Zu mezulari, bitartekari aritzen zinen ETakoentzat?

Bai. Niri erraten zidatarik hona jin edo hara joan, gogotik egiten nuen.

Zein urtetan zen hori?

Pako Iturriozen istorioa 1964an.

Eta zu zeu 1965eko otsailaren 2an atxilotu zintuzten.

Ni Peugeot auto handi batekin ibiltzen nintzen. Bi zola zituen. Gasolina tankearen ondoan bazuen kutxa moduko bat.

Autoak bospasei pinta erregai baino gehiago ez zuen hartzen. Baziren gasolindegia leku guztietan, eta ez zen hori problema. Oso ondo egindako zola bikoitza zen. Elizondon, kontrabandistendako mekanizier biziki ona bazen. Hark egin zuen. Kontrabandista munduan oso ezaguna zen gizon hura. Autoa beste neska baten izenean zegoen. Neska hura Madariagaren Iparraldeko idazkaria zen. Euskalduna eta jatorra zen. Ni, aldiz, Haz-

parnen irakasle, eta sistema antolatu nuen aste oroz Iruñera autoarekin joateko. Autoa bete egiten zidaten, armaz normalean edo eskuorritz berdinean, ez dakit. Nik beterik bazen bezala hartzen nuen. Ez nuen sekula ikusi nola betetzen zuten. Banuen sardeska baten moduko giltza hura irekitzeko. Nik banuen tresna hori, eta Iruñera etortzen nintzelarik, han ziren bi liberaturi irekitzen nien eta berek egiten zuten nahi zutena kotxearekin. Arratsean, berriz hartzen nuen kotxea. Ofizialki, ni matrikulatua nintzen Opus Deiko unibertsitatean, zientzia biologikoetan. Joaten nintzen eskoletara. Ziria sartua nien, uste zuten benetan beren geroa nintzela hemen, Iparraldean.

«Peugeot auto handi batekin ibiltzen nintzen. Oso ondo egindako zola bikoitza zuen. Sistema antolatu nuen aste oroz Iruñera joateko. Autoa bete egiten zidaten, armaz normalean edo eskuorritz berdinean»

Enbatakoa eta ETAkoa izateaz gain, Opus Deiren abangoardia ere bazinen, beraz?

Haien ustez bai! Klase partikularrak ematen zizkidaten. Lana banuen gero! Matematikako gauzak ere eginarazten zizkidan Txillardegik, estatistika zenbaitetarako. Bazen lana. Bost bat hilabetez aritu nintzen lan horietan. Urrian hasi nintzen eta otsailean erori. Egun batez astean ez nuen lanik egiten Hazparnen eta Iruñera joaten nintzen. Dantxarineatik pasatzen nintzen beti. Aldi batez, geldiarazi ninduten, eta hango polizietako batek galdetu zidan ea emaztea eramango nuen Iruñera. Baietz, nik, eta banoa emazte horrekin. Baina hogei kilometroro erregaia bota behar nion kotxeari, tanke txiki-xearengatik. Ez zen oso dotorea. Diru gutxi nuela esaten nion, gutxi beteko nuela aldiro. Behin, bi, hiru aldiz eraman nituen emazte guztiak. Denek nahi zuten enekin joan. Nik erraten nien itzultzea biziki berant egiten nuela eta ezin nituela ekarri, eta egia zen. Orduan, erran nion Madariagari ezin nuela horrela segitu, eroriko nintzela, emazte haiek konturatuko zirela. Beste txofer bat atzeman behar zuela erran nion. Gauzak aldatzeko, nik erran nuen kotxea nik hartuko nuela ene izenean, baina beste batek gidatzekotan. Egin nituen papearak aldatzeko. Urtarrila zen. Abenduan izan zen petardo bat Iruñeko Erorien Monumentuan, dinamita kartutxo batzuekin, eta urtarrilean berriz joan ginen beste aldera. Batzuetan, muga pasatzen nuelarik, errefuxiatu bat hartzen nuen kotxean eta hara eramaten, lanera. Orduan, *William* zelako batekin joan nintzen. Jokin zuen benetako izena; Algortakoa zen. Haren gurasoek bazuten gozotegi oso ezaguna Algortan. Hura pasarazten nuen, eta elurra bazen Belaten. Elurretan, autoa berak eramango zuela erran zuen Jokinek, eta istripua izan genuen. Hura autoestopean joan zen Iruñerantz, eta ni Elizondorantz, mekanizierarengana. Autoa Elizondon utzi eta neure kabuz itzuli nintzen. Hamabost egun iragan ziren, eta norbaitek joan behar zuen kotxearen bila. Gero jakin dut Madariagak –orduko ETAko *number one* zen– egin zuela bilera bat bere militanteekin esateko kotxearen bila joan behar zela eta *Maite*-k –erran nahi baita, nik– joan behar zuela bila. Hor ziren militanteak, bat bederen, ez ziren ados horrekin,

tarte horretan Jokin eroria zelako Poliziaren esku. Hartu eta izorratu egin zuten, egurtu, ospitalean ere izan zen hain xehe-katurik geldituta, eta nonbait txakurrek jakin zuten enekin zetorrela eta kotxearekin istripua izan genuela. Hori nik ez nuen jakin, ez zidaten erran, baina haiek –ETAkoek– jakin beharko zuten, gaitzeko erorketa izan baitzen Iruñean eta militante ezagunak etorri baitziren Iparraldera gordetzera.

Kotxe bila joandakoan seguruenik harrapatu egingo zintuztela bazekiten, beraz.

Bai. Eta, gainera, ni bidaltzearen kontrakoan agertu zena igorri zidaten niri enkargua ematera. Hori jakin da geroztik, pentsaketan ari izana naiz ulertzeko. Eta ondorio hau atera dut: lan hori utzi nahi nuela errana nien, eta militante galdua nintzenez, neu bidali ninduten. Segitzeko prest nengoela erran izan banu, besterik litzateke. Gainera, beren orduko teoriaren –*Action/Répression/Action*, Algeriako gerlan FLNk praktikan jarria– egiaztatzeko abagune egokia bilatu zuten.

Eta auto bila joan zinen.

Bai. Nik banuen neure kotxea, eta Hazparneko kolegioan ingeles irakasle bat bazen, Ameriketatik etorria. Jose Luis Ateka Ugalde izena zuen. Ameriketako marine izana zen, eta burua sendatu nahi zuen. Bazuen osaba bat apez Bizkaian, eta osaba horrek bazion galdea Xarritoni ea leku bat bazuenentz bere ilobarentzat. Xarriton Hazparneko kolegioko lehendakaria zen, izan ere. Oso jatorra zen Ateka, eta kotxe bila joateko, mekanizieraren faktura ordaintzeko diruarekin etorri zitzaizkidalarik, hari galdetu nion ea enekin joango zen, Elizondoko kotxea hartu ondoren nirea beste norbaitek hartu behar zuelako. Halaxe prestatu zen eni laguntzeko.

Behin kotxea hartzen dudalarik, irekitzen dut eskularruen kutxa, hotz zelako, eta han dakusat dinamita ziri bat. «A ze memeloak, dinamita hemen utzi dutenak!», pentsatu nuen. Eta ziria hartu eta poltsikoan sartu nuen. Ezin zen dinamita alferrik galdu, gero!

Mugara patrikan dinamita zeneramala heldu zinen, orduan?

Bai. Bertan gelditu eta Espainiako Poliziak dena atzeman zuen. Zain nituen. Egun berean atxilotu zuten Ateka ere. Hura ere bizpahiru egunez egon zen haien esku.

Ez ninduten jo. Hiru egun lo egin gabe atxiki bakarrik, besterik ez zidaten egin.

Iruñeko kartzelan egon zinen, ezta?

Bai. *Bandidaje, terrorismo y rebelión militar* leporatu zizkidaten. Guillermo horren epaiketa Madrilén egin zutenean, hara eraman ninduten elkar ezagutzen ote genuen argitzeko. Gasteizera, Avilara, Madrilera aldatu ninduten. Ez genuela elkar ezagutzen esan, eta Iruñera bueltan.

Iparraldeko lehen atxilotua izan zinen Hegoaldean, beharbada?

Bai. Hortik dator ene ospe guztia, ez dut beste merezimendurik.

Inoiz ez bezalako mugimendua sortu zen Iparraldean zu askatzeko.

Bai. Enbatako lagunak portatu egin ziren. *Enbata* aldizkariaren salmenta gora egiten hasia zen ordurako, eta nire atxiloketaren ondoren behera egin zuen erabat. Militante kopurua, baina, asko handitu zen. Bezeroz aldatu balitz bezala izan zen. Militanteak ugaritu egin ziren. Parisen ere, sustengu talde polita sortu zen, PCEko jende anitz, unibertsitateko jendea, Tuñón de Lara, zinemagileak, kazetariak... Batzorde hura puxanta zen.

Zu, bitartean, kartzelan zinen. Ba al zenuen kanpoan gertatzen ari zenaren berri?

Pixka bat bai. Gurasoak ez ziren eskuz esku ibiltzen haiekin. Hastapenean, atxiloketa lotsagarritzat hartu zuten. Hala eta ere, etortzen ziren astero. Hazparneko kolegioko irakasle batzuk ere... Nik ez nuen nahi *nire* kotxea zakurren esku

geratzea, Dantxarinean zelako. Dinamita aurkitu zidaten, baina poliziei kontaktzen nien frantses neska inozoa nintzela, eta ez dut uste kotxeko zola bikoitza aurkitu zutenik. Eta ezin nuen konpreniarazi behar zela kotxe hura handik kendu.

Banuen komunikatzeko manera bat, apez batekin. Ni konfesatzera jiten zen, eta hari ematen nizkion paper batzuk kanpora ateratzeko. Jesuita zen. Opus Deikoak ere etorri ziren bisitan hastapenean, baina utzi zioten etortzeari. Beldurrak airean joaten zen jesuita hura, baina laguntzen zidan. Hala eta guztiz ere, ez zuten kotxea kentzen, eta nik beldurra banuen. Xarritonek antolatu zuen zerbait apez bat joan zedin bila Dantxarineara. Hala eraman zuten gure etxera. Gure aitak gorde zuen kotxea, eta ez zion inori eman nahi, bazekielako bazuela zerbait. Ni saiatu nintzen azaltzen zer zeukan, baina ez zuen deus ulertu. Belar meta baten azpian gorde zuen! Urte eta erdi egin nuen preso, eta libratu eta sei hilabete berantago etorri ziren Joxe Mari Eskubi eta horiek kotxea eramatera.

«*Enbata aldizkariaren salmenta gora egiten hasia zen ordurako, eta nire atxiloketaren ondoren behera egin zuen erabat. Militante kopurua, baina, asko handitu zen*»

Zer gogoratzen duzu kartzelako egonaldiaz?

Ez dut gaizki pasatu, benetan. Ijitoak, biluzten ziren eskizofrenikoak, putak ditut gogoan. Mixeriak. Francoren *Ley de Vagos y Maleantes* izeneko harekin, sanferminetarako, espetxea jendez betetzen zen. Testuak makinaz jotzea ikasi nuen han. Zientzia biologikoen ikasketei ere eutsi nien. Espainola ere aski ikasi nuen, eta sukaldean egiten ere bai. Funtzionarioentzako jatena geuk prestatzen genuen. Horri eskerrak, geuk ere ondo jaten genuen. Denentzako ile apaintzaile lanak egiten nituen, gainera. Erredentzio gisa ez, beste presoei laguntzeko baizik. Mojak ziren gure zaindaria. Haiei giltzak lapurtzea kirol preziatua zen.

Libre geratu eta gutxira, hauteskunde kanpaina betean sartu zinen, hautagai bihurtuta. Herriz herri egin zenituzten ekitaldiak.

Bai. Sekulako kanpaina ederra egin genuen herriz herri. Enbatako hautagaia nintzen, eta bada ohitura hemen Herriko Etxeetara joan eta auzapezarekin mintzatzeko. Jende anitz etorri ziren halakoak entzutera. Amerikar erara antolatu genuen kanpaina hura. Hauteskunde orokorrak ziren, baina, eta ez genuen lortu bozen %5eko helburua erdiestea. Ehuneko hori gabe, ez dizkizute kanpainako gastuak ordaintzen, eta guk %4,80 lortu genituen. Orduan, Abeberrik egin zuen bere kolpe handi bat. Bozetan gure lehiakide izan zirenak bana-ka ikustera joan zen –Henri Grenet zen bat–, eta erran zien batari eta besteari mugimendu bezala gaizki ginela, sos guztiak xahutu genituelako. «Gure hautesleak libre uztea dugu asmo, baina dirua behar dugu, eta zuk ez badiguzu ordaintzen, errango diegu besteari emateko boza», erran zien. Biek eman zuten dirua! Hala ordaindu genituen sosak. Bospaseik bakarrik jakin genuen hori. Horrela, libertatea utzi genien bozka eman zigutenei.

Gai horretan gareno, enbeia dut Arño Hegiaphal aipatzea. Hura zen nire ordezkaria barnealdeko barrutian –legeak ezartzen du hautagai bakoitzarekin ordezkari bat badagoe-la–. Sohütako artzaina, hiru haurtxoren aita gaztea, berez sortutako abertzalea hura ere, autodidakta, inguruko borroka sozialetan konprometitua, xume bezain karismatikoa, Zuberoko herri tipietan %80 boz bilarazi zizkiguna, bai eta ere emaitza politikak Zuberoa osoan.

ETako militante izan ondoren zu Enbatarekin aurkeztu izanak ez al zuen tirabirarik sortu?

Eni ez. Badakit batzuei ez zitzaiera gustatu, eta lege bezala ezarri zutela Enbatan kidetza bikoitza debekatua zela. Lehena ez zen halakorik aipatzen. Baina hor izan zen beste atxilotu bat: Patxi Noblia. Ez zuen aste bat ere egin preso.

Ez dakit nola konpondu ziren gauzak. Patxi eta ni ez ginen benetan ETakoak, fardel garraiolariak baizik.

Gisa guztiz, barneko araudiak izanik ere, beren burua zaindari bezala ikusten zutenek luzitzeko aukera gutxi zuten, zeren eta hor zegoenarekin egiten zen edo tutik ere ez. Enbatakoek oso ondo ulertzen zuten hori eta bazekiten ausartak izaten.

ANTZERKIRA JAUZI

1967ko martxoan izan ziren hauteskunde haiek. Hurrengo urtean oholtza gainean ageri zara *Matalas* antzeztanarekin.

Matalas-ekin agertu nintzen antzerki munduan, bai. Piarres Larzabalena zen. Baita *Ibañeta* ere. Azken hori 1969an egin genuen.

Zeu zuzendari zinela, gainera.

Bo, Telesforo Monzon eta Roger Idiart ziren zuzendari izendatuak, baina nik eta beste lagun batzuek bagenituen ideia batzuk gauzatzeko. Pieza horren zuzendaritzagatik izan ziren borroka biziak. *Ibañeta*-k pieza historikoa behar zuen, eta gure taldea osatu zen *Matalas*-endako. Besteak beste, Manu Robles-Arangizen seme Ugutz zegoen. Biziki aktore ona zen, eta hark galdegin zuen bere anaiak obrako jantziak diseinatzea. Hor hasi ziren gure arteko desberdintasunak, ze nik erraten nuen ez zela garai batean mugatu behar, gaurko gauza zela eta garairik gabe bezala jarri behar genuela. Nire erabakiak irabazi zuen, eta Ugutzek ez zuen nahi izan segitu. Ugutz ez zen ETaren alde garai hartan, eta nik ETaren motorra berotzeko erregai gisa ikusten nuen *Ibañeta* hura. Gauza moderno bat nahi genuen planteatu, baina Roger Idiarrek eta Monzonek ez zuten ideiarik ere nola modernizatu hura. Euskal antzerki amateurrean badira kode batzuk ez direnak errazak gainditzeko eta egin genuen, beraz, baina arrakasta gutxi ukan zuen.

***Matalas-ek ez bezala. Matalas eskola zaharrekoa zen, no-
labait esatearren.***

Arrunt klasikoa zen, bai, altzari eta arropa ederrekin, predikua egiten... Apezkeriak! Antzerki amateurra, hemen barnealdean, apezak ziren. Apezak dira zuzendariak, eta apezak bezala mintzo dira oholtzatik. Deklamatu egiten dute. Guk beste zerbait bilatzen genuen baina gaizki atera zen. Eta gero, berrogei urte berantago, Antton Luku aldi batez gure etxera etorri zenez, Larzabalen antzerkiari buruz zer nioen filmatzera, pentsatu nuen: «Pieza hori zor diot Larzabali, eta izorratu nuen pixka bat!». Idatzi zuelarik, eman zion rol nagusia emazte bati; nahi zuen nik egin nezan emazte hori; eta egin nuen, baina ez zen atera Larzabal pozik uzteko moduan.

Matalas-en garaian ezagutu al zenuen Larzabal?

Bai. *Matalas*-en bazen rol bat, gobernadorearen keridarena, bihotz handiko putatxo bat, eta nik egin nuen harena. Orduan ezagutu ginen, eta pentsatu zuen hor bazuela emazte bat nahi zuena rol bat egin. Eta tradizionalki ez denez egon ia emazterik... Molièreren antzerkikoak bezalako emazteak baditu, neskameak eta, oso abilak, baina ez dira emazteak egoera

tupin bat bezala hartzen dutenak. Menperatuak dira batez ere Larzabalen antzerkiko emazteak, eta nahi izan zuen egin emazte bat desberdina. Hark ez zidan zuzenean erran, baina *Ibañeta*-ko pertsonaia niretzat idatzi zuela konpreniarazi zidan. Anaiaren eta senarraren laguntzailea zen *Ibañeta*-ko Otsanda, baina militantea bere kabuz. Antzerkiaren eta biziaren arteko zubi hori...

«Menperatuak dira batez ere Larzabalen antzerkiko emazteak, eta nahi izan zuen egin emazte bat desberdina. *Ibañeta*-ko pertsonaia niretzat idatzi zuela konpreniarazi zidan»

Larzabalekiko zordun sentitzetik sortu zen bigarren *Ibañeta*, beraz. Ander Lipusek lagundu zizun zorra kitatzen, 2008an.

Bai. Ez nuen lehendik ezagutzen, baina ikusia nuen zer egiten ahal zuen, eta harekin harremanetan jarri nintzen. Onartu zuen gure talde bat zuzentzea. Izurako Haize Berri taldearekin egin genuen, nik uste, zerbait biziki ederra. Hamabost bat aldiz eman genuen Iparraldean, Hegoaldean gutxiago. Oso-osoa modernoa zen, baina jende arruntek ulertzen zutela. Ez da erraza. Lipusen ikusmoldea zen pieza horretan indar guztia testuan izatea, eta hori erakusteko amateur batzuekin, energia guztia ahotik kanalizatu behar zuen. Amateurrek gorputza nahi dute mugitu, eta eskuak lotuak bagenitu bezala erraten genuen testua. Pastoraletatik hartutako osagaiak ere erabili zituen. Baziren keinu anitz, eta jendeak detaile txiki-txikiak ere hartu zituen Iparraldean. Hegoaldean, fisik ere ez. Hegoaldean, horrelako antzerki batekin joatea denbora alferrik galtzea da.

Zergatik?

Lehenik, amateurgoak bere arauak badituelakotz: bata eta lehena, aktoreak eta publikoa ber komunitatekoak direla, elkar ezagutzen dutela. Horrek ez du funtzionatzen ahal beste aldeko talde amateur batekin. Izenak erraten duen bezala, 'beste aldekoa' delako. Bigarrenik, zure emanaldi xumea presentatzen duzularik konpetentzia handia aurkitzen duzu aste bukaerako txikiteoarekin. Etxetik ateratzen denak nahiago du bere *numeritoa* egin, ohiko lekuetan eta kuadrillarekin, eta ez beste batzuen *numeritoak* ikusteko leku itxi batera joan. Aipatu behar liteke ere amateurgoaren kalitate txarra, profesionalarekin alderatuta, baina zakur horrek badu beste buztanik.

Bigarren Ibañeta-k izan du beste ondoriorik.

Bai. Harez geroztik, Lipus etortzen da kasik urtero hemengo talde baten laguntzeko. Zuzendari bezala biziki estimatua da. Eta gainera, euskarazko antzerki profesionalaren sailean, fenomeno berri baten sustraietan dago. Urtero ez bada, bi urtero, hiru talde profesionalen artean –Iparraldeko Petit Théâtre de Pain taldea horietako bat delarik–, bi aldeetan emateko ezaugarriak dituen pieza berri bat muntatzen dute. Horiek

guztiak gutxi ez, eta zutik ezarri dute ere ekoizle eta bana-tzaile erakunde bat, bi aldeetako administrazioekin aritzeko trebea dena: Artedrama. Azken finean, antzerkiak ere bere neurri nazionala har dezan falta zena egin dute. *Berria*-k egin duena, adibidez, egunkari mailan. Aurten, Lipusek muntatu du beste obra bat, bakarrik bere konpainiarekin, Huts Teatroarekin, bi aldeetako aktoreekin: *Etxekoak*. Bai Iparraldean eta bai Hegoaldean ari da kurritzen obra.

Zuk parte hartzen duzu bertan, aktore lanetan.

Bai. Orain berriz ere sartu banaiz, baina, ez da afixa batean izateko. Nire ametsa da beti antzerki herrikoia baliatzea telebisioaren antidoto bat bezala. Baina ez da erraza gaitasuna ukaitea zortzi egunez talde batekin gauza bat preparatzeko. Jendeari antzerkira joatea galdegin beharrean, interesantea litzateke antzerkia jendea den tokira eramatea, merkatura, bidegurutzera, kale kantoira... Kaleko antzezlan laburra, ordu erdikoa, ikuspuntu bat emateko. Uste dut errusiar iraultzan egin zutela hori. *Agitprop* deitzen dutena da. Ez luke antzerki militantea izan behar. Antzerki militantea aspergarria da, izan ere. Jendeari galderak eginarazi, lotura sozialak estutu eta aldi berean ontsa pasatzeko aukera emango dion antzerkia behar luke. Antzerkiak behar luke indarra ukan, baina ez da erraza. Antzerkilari handiek ez dute nahi aktualitatearen gibelka ibili, nahi dute beren obrak egin.

Non eta noiz maitemindu zinen antzerkiaz, baina?

Parrokietan. Ume denboran. Nire belaunaldian antzerkia futbola baino askoz inportanteagoa izan da. Parrokiak urtean bi aldiz antolatzen zuen antzerkia. Tipi-tipitik –uste dut ez nekiela irakurtzen, beraz, lau bat urte nituen–, apezpikua heldu zen herrira, eta alkateak ez zekienez hitzaldiak egiten, mojek kopiatu zuten hitzaldi bat, gure amari eman, eta amak erakutsi zidan niri hori errezitatzen. Arropa xuriz jantzita irten nintzen. Han ezagutu nituen taula gaineko beldurra eta lilura. Hor hasi nintzen, eta Baionan eskolan ginelarik urtero

baziren bizpahiru pieza. Ingelesez ere egin dut antzerkia. Gure kolegioan bazen antzoki bat, eta horretaz arduratzen ziren mojak. Hor egin dut hainbat aldiz antzerkia, hamabost aldiz edo. Gero, berriz hasi nintzen *Matalas*-ekin. Ordurako banekien antzerkia maite nuela.

Inoiz eten al duzu taulenganako harremana?

Beti maite izan dut biziki irudien mundu hori. Argazkia ere ikasi nuen. Irudigintza, irudimena eta halakoak interesatzen zaizkit. Eta gero, antzerkia ikusten segitu dut. Hemen badira oraindik herri batzuk antzerkia lantzen dutenak asko. Horiek xerkatzen dituzte laguntzaileak eta halakoetan ibilia naiz asko. Ekin-en nintzelarik arratsetan kasik beti banuen errepikatzerik talde batekin edo bestearekin. Eta egiten nuen futboleko *begirale* izena duen figura horrena: joaten nintzen herriz herri ikustera talde txikiak, antzezle onen xerka, beti pentsatuz talde bat ona egiteko behar direla antzezle onak. Badira batzuk sekulako talentua dutenak. Oraindik, antzerkia herrikoia da Iparraldean. Eta orain herrikoitasun horrek beste maila bat hartu du, apezek ez dutelako gehiago eraginik. Antton Luku, Mattin Irigoien eta beste badute gazteria inguruan, eta sorkuntzaren sukar hori bada. Ez dakit noiz artio, baina bada. Itsasun bada talde biziki ona, adibidez. Urtero zerbait ateratzen du.

«Oraindik, antzerkia herrikoia da Iparraldean. Eta orain herrikoitasun horrek beste maila bat hartu du, apezek ez dutelako gehiago eraginik»

***Etxekoak* antzezlanean, burua galtzen ari den emakume baten rola jokatzen duzu. Protagonista gaztearen amama zara. Zer nolako harremana duzu gazteekin? Inguruan badituzu beti.**

Orain ikusten ari naiz benetan zaharra naizela, hilabete hauetako kontua da. Ikusten ditut gero *Etxekoak* antzezlanerako

filmatutako irudiak, eta ikusten dut ez dudala gazteen eragina. Horrek garrantzi handia dauka antzerkian. Lehenago, nire burua preparatzeko behar nuen ordu erdi bat, eta orain ordu-bete. Dena makaldu egiten da. Orain arte ez nintzen ohartu.

Baina bai, gazteekin bai. Normalean, nire adineko jendeak ez ditu maite halako kontuak, nire anaiak salbu. Gazteetan ere, Lukurekin edo Irigoienekin ezagutu ditut. Lehenago, Franco hil osteko urteetan-eta, toberak arrapiztu ondotik –1974an egin genituen Iholdin, nik uste–, herri txikietan gai sozial batzuk eta baserri mundukoak landu genituen Gara-zi aldeko talde batekin. Nik beti banituen bi helburu: bat, gauza batzuk gure ikuspegitik hedatzea ahal bezainbeste; eta bi, antzerkia lantzen zutenek beren burua jendaurrean kontrolatzea lor zezaten. Hori arazo aski handia baitzen baserri munduan, jendeak ez direla ausartzen eta trebatzen horretan. Eta antzerkia sekulako eskola da.

Hori Aski fronte kulturala zen, ezta? Egun erdia baserrian lanean egiten zenuen, baina beste erdia liberatua zinen antzerkirako.

Bai. Errepikatze batzuk egiten genituen goizeko laurak arte. Orain Ortzaizen den Graxi Etxebehere ere antzerkilarri amorratua zen. Haren etxean egiten genuen errepikatze anitz. Euskal Herriko Laborantza Ganbera berriko ardura-dun gehienak, garai batean, gure eskuetatik pasatuak ziren antzerkia egiten. Humusa prestatzen genuen. Hori egin eta gero ez ziren ber pertsonak. Beren buruan konfiantza gehiago hartzen zuten. Besteentzako lan egiten ere ikasi zuten han, jendaurrean jokatzeko ikastearekin batera. Mixel Berrokoirigoin, esaterako, izugarri antzerkizale ona zen. Horiek guztiak antzerkia egin dute. Bizitzaren ikastola bat ukan dute hor.

Larzabalaren garaian antzerkiak garrantzi handia zeukan Iparraldean. Oraindik ere jendea mugiarazten duela esan duzu. *Ibañeta*-ren 1969ko bertsioaren eta 2008koaren artean bada alde nabarmenik. Ikusleen artean ere bai?

Ibañeta-ren merezimendu handiena da –eta horretan da benetako obra bat–, 1968an idatzia izan zenean ETAREN aldekoa zela eta berrogei urte geroago bestelako irakurketa bat izan zezakeela. Berriz egin dugularik, su-etena ez zen emana oraindik, baina askok pentsatzen genuen, nik ere bai, behar zela utzi borroka armatua beste manera batez aurreratzeko, eta testu berak ematen zuen horren esplikatzeke ere. Orduan, ariketa oso interesantea da. Zeri ematen dion garrantzi handiago, analisia egin behar da. Hor bazen pertsonaia bat, aski gutxi agertzen dena, Pizkor izenekoa. Pizkor da gudari bat, taula gainean zauritu eta hiltzen dena. Zergatik Larzabalek Pizkor deitzen du pertsonaia hori? Hiltzen da, baina bere baitatik beste zerbait ateratzen da. Hori zen gure bigarren bertsioaren hezurdura. Hor uste dut lan ona egin genuela. Hori aurkeztu genuelarik ere, nahas-mahas bat izan zen gure artean. Erran nuen, publikoki, ikusten genuela borroka armatua aldatu behar zela, baina ez genuen taldean aipatua, eta taldeko batzuk ezin irentsiz egon ziren. Gero pasatu zen. Izuran egin genuen. Hemen Iparraldean bekatu zen horretaz mintzatzea. Hori gauza biziki nazkagarria izan da. Iparraldean izan da bereizte bat bezala Batasunaren aldekoen eta Batasunari lerrokatu nahi ez zuten hemengo abertzaleen artean. Presio handi bat izan da militanteen artean. Konpondua da.

Noiz sortu zen hori?

Arrunt artifizialki. Batasunaren ez dakit zenbatgarren asanblean. Aralar sortu zelarik. Orduan da.

MATXISMOAZ, FEMINISMOAZ

Hamarkadak lehenago ere, izan zen antzeko bereizketarik, ETA militarren eta Iparretarrak-en aldekoen artean. Hegoaldeko abertzaletasuna Iparraldera etortzeko moduarekin zerikusia ote du horrek? Paternalista-edo ez ote zen Hegoaldekoen jarrera?

Erabiltzen ditugun hitz horiek, *paternalismoa*, *dominazioa* edo *matxismoa* erraten ahal genuke ere, ez dira egokienak kasu honetan. Ez da ahantzi behar 1970eko hamarkada bukaeran sei erakunde militar bazirela Iparraldean: ETA (m), ETA (pm), Komando Autonomoak –hiru horiek Hegoaldean aktibo baina Iparraldean egoten–; gehi IK Iparretarrak, Hordago eta EZ Euskal Zuzentasuna –Iparraldean aktiboak–. Bretainian, Okzitanian, Korsikan eta Frantzian ere baziren erakunde militarrik, bai eta ere Alemanian, Italian eta Espainian.

Nik ez dakit nola aztertu behar den garai horretako fenomeno hori, baina Iparraldeko abertzaletasuna ETArri lotua da nahi edo nahi ez. Ber urteetan sortzen dira Enbata eta ETA, bakoitza bere izateko manerarekin, eta kontuz ibiltzen dira bata besteari sobera itzal ez egiteko. IK sortzen delarik, talde armatu, klandestino, iraultzaile gisa, ETArekin baditu bere harremanak eta adostasunak. Uste dut ber gauza erran litekeela Hordago taldeaz. Baina dena usteltzen da ETA (pm)-ren zatiketarekin. Orduan, besteengandik desberdintzeko *miliak* deitzen diren ETArri militanteek IKrengan zuten eragina galtzen dute. Mintze horren zergatia eta garapena ez dira oraindik benetan ezagunak, ukatuak ere badira zenbait aldiz, baina nik ez dut uste batez ere *paternalismo* edo senide arteko konplexu batzuen ondorioa denik. Delako paternalismoa estakuru bat izan da zenbaiten kontaketa presentablea izan dadin; abertzaleentzako asmatu den kontaketa da.

Garai bateko polimili ugari miliek onartu beharreko kontaktetaz ari dira orain, eta milien barkamen eskaera ezinbesteko baldintza dela errepikatzen.

Ni ere barkamena eskatzearen alde naiz, gure arteko adostasun ahal bezain goragokoa edo sakonagoa lortzeko, baina jakin behar da nori eta nola eskatuko den. Abertzaletasuna eta euskaldun izateko eskubide zabalena ukatzen duenari, ez. Nik sinesten dut, ez daitezen errepika, gauzak kontatu eta mahaian ezarri behar direla. Arrisku bat da, jende gehienak erraten duelako hori ez dela egia, hori gauzak ikusteko

manera bat dela, baina eztabaidarako behar dira kartak bota, eta ez beti isilean gorde, kontrabandistak bagina bezala. Zerbait galdu dugu bidean, baina hori da arriskua. Aurreratzeko, eleak zuritzea beharrezkoa da. Erran gabekoa erran behar da.

Dominazio eta matxismo hitzak aipatu berri dituzu. Erran behar al da ETA matxo alfaz beteriko erakundea edo erakunde matxista izan dela?

Badira emazteak ere matxistak direnak, anitz; eta gehiago, eman dezagun, garatu ez diren herrialdeetan. Gizon feministak ere badira. Orduan, batzuetan ez denez genero istorioa aipatu gehiago, sexu istorioa erabili behar: arra eta emea. Ar guztiak ez dira matxistak eta eme guztiak ez dira feministak. Ekonomian bada kapitalaren parte eta lanaren parte, eta uste dut erakunde militar horretan bazirela gauzak pentsatuak arrentzat, eta beste batzuk edozeinentzat, emeak barne. Behar-bada, ez baitziren benetan askatuak horrelako gauzendako.

Izan dira beti emazte bakan batzuk, laguntzaile, baina ez dakit noiz hasi zen emazteen armak eskutan hartzea. Nik ez dut armarik hartu, eta hartu zituztenek ez zuten erraten, erortzen ez baziren. Ez dakit izan zenez barne borroka baten ondotik edo gauza natural bat bezala. Arma hartzea ez da zartaina hartzea.

«Nik sinesten dut, ez daitezen errepika, gauzak kontatu eta mahaian ezarri behar direla. Aurreratzeko, eleak zuritzea beharrezkoa da»

Dolores Gonzalez Katarain Yoyes-ek hartu zituen armak, arau zen gudari gizonetzkoaren irudia apurtuz. Nola bizi izan zenuen haren hilketa?

Armak hartzea eta gudari irudia, bi gauza oso serioak, irudi izatetik aparte. Hain serioak, non sakratuaren ertzean dauden. Non bizia eta hiltzea jokoan dauden. Armek edo gudariak –gizonetzkoak zein emazteak– askatasun kolektiboa

aipatzen dute. Horra zergatik nahiago ditudan errepresentazioen eremutik haratago. Islam erlijioak, bai eta ere Lutherismoak, profetaren edo sainduen errepresentazioak debekatzen dituzte, hurrenez hurren. Nire sentsibilitatea ere hortik dabil. Arau bakar bati erreferentzia bortxatua edo puxantari lotua ez gelditzeko, ez mugatzeko.

Beraz, nork erran du Yoyesek armak hartu zituela? Berak? Bere senideek? Bere kideak? Badira argazkiak? Haren hilketaren garaian entzun dudan egiaren itxurako aitzakia bakarrak ez zuen irudi bat aipatzen, baizik eta jarrera bat. Buruzagi batena. Aginduak ematen dituena. Hor ere 'genero' kolpe bat egon daiteke. Baina ez naiz gizon baten larruan, gaizkiago hartzen dituena, kontziente edo inkontzienteki, emazte batengandik erortzen diren manuak. Beraz, beste hipotesi bat da, besterik ez.

Badira beste emazte batzuk gudariak izan direnak, beren historia judizialaren arabera, borrokan sartu direnak beste edozein jende bezala, beren helmenean zelakotz, fisikoki, intelektualki, espiritualki ere bai eta Yoyes zenaren irudi apurtzaile hori irabazi ez dutenak. Hurbilago sentitzen ditut horiek. Gainera, euskal borroka armatua klandestinoa izan da, horrek erran nahi du armak gorde behar direla eta merezimendua ez datorrela armen erabiltzeagatik baizik eta engaiamenduaren sakontasunagatik.

Yoyes zuzenean ezagutu al zenuen?

Pertsona ez dut ezagutu, baina Yoyes pertsonaia oso ezaguna da Euskal Herri osoan. Haren hilketa kolpe bat izan zen. Ekinen egiten nuen lana garai hartan eta ezin nuen sinetsi ETAk hori egin zuenik *damutzearen* aurka. Gero, errealtateari etsi niolarik, sinetsi nahi nuen bazirela egiazko eta pisuzko arrazoiak hilketa hori justifikatzen zutenak. Baina hor ere okertu nintzen. Zorigaitza benetan.

Emakume baten eskutan arautik kanpokoago ikusten ote ziren armak?

Beharbada, hor sarrarazi behar dira gauza anitz. Tradizioaren zama, esaterako. Gure mundu ikuskeran, gerla oso present da, baina ez da emakumeen lana. Adibidez, entzun dut gure amama erraten gerlara joatea azkena zela baina ezin saihestuzko zoria. «Gizonendako gerla eta emazteendako hilekoa», hara haren konklusioa –horren erreferentziak nire ume denborako oroitzapen magmatik jalgitzean, Erdi Aroko norbait naizela ematen dit–. Hala eta ere, garai hartako etxeetan armak baziren. Ehizara joateko armak baziren; baina, emazte gutxi ehizan. Betidanik izan da bat edo beste biziki ongi apuntatzen zekiena. Bakanak ziren, baina. Nik ez dut hori arauan sailkatzen, ez dut uste Jeanne d'Arc edo Easoko Katalina bezala ikusten zenik emazteek armak hartzea. Eman dezagun orain, emazte kurduen irudia. Estetika hori, ene ikuspuntutik, oso baikorra da. Ez bakarrik berdintasun aldetik.

Askapen nazionalerako borrokaren zilegitasuna lehen planoan ezartzen duelako, akaso?

Bai, hori bera.

«Iparraldeko ezkerreko abertzale batentzat, nazional, sozial eta genero askapenerako bidean aurrera egitea da helburua». Zeuk idatzia da. Parisko 68ko Maiatzaren olatua aparretan zenean, Francoren Sección Femenina indarrean zen artean. Duela lauzpabost hamarkada ez al zineten Iparraldean Hegoaldean baino aurreratua emakumearen askapen kontuetan?

Ez dakit ordukoa ilusio bat –txakur-amets zentzuan hartuta– izan ote zen ala ez. Bai Hegoaldean bai Iparraldean, auzi horiek gutxiengo baten barruko gutxiengo baten kontua ziren. Emazte gutxi ziren pentsatzen zutenak obratu behar zutelako berdintasunaren alde. Baina, bada beste gauza bat orain dela gutxi pentsatu dudana: baginen emazte talde bat, elkar ezagutu gabe, gure amen partetik jin ziren gauza horien

beldur ez ginenak. Ez dakit Hegoaldean beldurra edo lotsa edo zer zen. Hegoaldean, emazteek ez zuten beren burua sobera aurreratatu behar, zeren aurreratzen bazuten... Oso diskretuak, beti bigarren maila batean aritzen ziren. Emazteak beti emazteekin ibili behar bagenu bezala jokatzeko zuten. Eta ongi artatuak, politak. Iparraldean, aldiz –Iparraldeaz mintzo naiz baina Euskal Herri osoaz mintzo behar da–, baziren emazte batzuk ez zutenak batere beldurrik ez hitza hartzeko jendaurrean, ez itxuraz behintzat nabarmentzeko. Lehen leerroan edo lehen lerroa ez zen leku batean agertzeko arazorik ez genuen. Diferentzia balio batean dago: batzuekiko, ausarta izatea baikorra zen; eta besteekiko, aldiz, ezkorra. Uste dut ausardia ontsa ikusia dela orain.

Gure etxean *Elle* eta *Marie Claire* sartzen ziren. Ideologia askatzailea zekarten, tradizioetik askatzeko eta modernismora jotzeko. Ez dut ezagutzen Hegoaldeko orduko emakume-prentsa, baina, baldin bazen, beste ideologia batekoa zen. Horretan ikusten duzu muga baten indar handia, Irungo nesken eta Hendaiakoen artean zer nolako diferentziak hazten ziren imajinario mailan.

Errefuxiatuen artean ere nabarmena al zen desberdintasun hori?

Ez genuen nahi desberdintasuna izaterik Ipar eta Hegoko abertzaleen artean. Orduan, emakume batzuk ikusten bagenituen *espainiar gajoak* bezala, eta haien gu *gabaxo nazkagarri* gisa, gaitzen saiatzen ginen. Desberdintasun hori gehiago ageri zen neska eta mutilen arteko harremanetan. Badut lagun zenbait orduan ezkondu edo bikotetu zena, 1968 inguruko errefuxiatu belaunaldi horretako kideren batekin. Baina batzuekin ez zen oso sana zenbaitetan. Baziren batzuk, gizon baino gehiago, gizon zirenak. Pentsatzen dut haien artean ere eztabaidatzen zutela hori, emakumeekiko jarraz mintzatzen zirela. Uste dut baietz. Gero hori normalizatu da, denborarekin. Baina hori ez zen bakarrik Euskal Herrian. Berrogei-berrogeita hamar urte geroago, agerikoa da

orduan izan zela ohituren liberalizazio moduko bat. Ez da sexualitatearen liberalizazio kontua bakarrik izan. Hartu-emanak ere lasatu dira. Hori izan da 68ko Maiatzaren emaitza iraunkorrena, ene ustez. Iraultza bezala ez da izan. Heziketa mailan-eta izaten ahal ziren aldaketek irauin dute bost, sei, zazpi urte. Vincennesko Unibertsitatean –68ko oldeak *konkistatutako* eremua zen– beste espiritu batekin ikusten ziren gauzak, eta boterekoek beraiek sua ezarri zioten bospasei urte geroago. Errotiko aldatze horren froga bat: Do-

mintxaineko gure etxean garai batean izan zitekeen malur handienetarik, eman dezagun, emazte ezkongabe bat haurdun gelditzea zen. Duela berrogei urte denok ahalgetzekoa zena, egun nahi lukete haurdun gelditzea, ezkondu edo ezkondu gabe, laborantza munduan. Birjinitatea, ezkontza eta halakoak ez dira gehiago balio bat, hankaz gora joan dira.

Orduan, feminismoarekin nola lotu hori? Nik aitortu behar dut lehenik feminista militanteak zirela ene lagunik gehienak. Nik ere feminismoaren ideologia ontsa atzematen nuen, baina ez naiz behin ere militantea izan, zeren eta hemengo feministekin beti baziren lehentasun istorioak. Abertzaletasuna bigarren mailakotzat ikusten zuten, feminismoa ezartzen zuten lehenik, eta azken finean gizona zuten ezartzen etsaiaren lekuan.

Eta zuretzat ez zen horrela?

Ez. Aitarekiko Edipotik inoiz sendatu ez den neskato honentzat, ezin jasana zen. Orduan, ez nuen lekua atzematen militantismoan. Gainera, baziren bospasei talde, Baionan bertan, joera desberdinekoak. Maiteen nuen joera, seguruenik

«Ene lagunik gehienak feminista militanteak ziren. Feminismoaren ideologia ontsa atzematen nuen, baina ez naiz militantea izan, zeren eta hemengo feministekin beti baziren lehentasun istorioak»

bertan nituelako lagunik minenak, deitzen zen *Psych et Po*, Psikoanalisi eta Politika. Horiek ireki zuten Parisen liburu denda biziki on bat: La Librairie des femmes. Eva Forest espetxean zelarik, hemen Hendaian manifestazio biziki ederra egin zuten haren alde. Gero, François Mitterrand bozetara aurkeztu zela-eta, haren aldeko botoa galdegin zuten! Utzi nion joateari. Horrelako gauza anitz bizi dituzu, badakizu? Baldekada bat ur hotz jasotzea bezala izan zen.

Angela Davis beltz amerikar intelektualak hiru opresioak –arrazakoa, klasekoa eta sexukoa– teorizatzen jakin zuen, baina bere denbora hartu zuen horraino heltzeko. Ez dakit gaurko feminismo derrigorrezko horrek zer dioen zapalke-ta hirukoitzaz, baina teorizazio mailan hurbilen eta gertuen, erabilgarrien ikusten dudanetako bat da. Zendu berria den Izaskun Larreategi bera oso sartua zen teorizazio maila horretan duela urte asko. Feminismoa ikusten dut diskriminazioen aurka, aukeren berdintasunean eta sexu askatasunean. Helburu erreformistak dira, eta edozein talde mistok bere gain hartu behar lituzke eskakizun horiek.

PARISKO IBILERAK

Parisko liburu denda aipatu duzu. Elkarrizketa hasieran esan duzu Domintxaineko baserriko egunerokora Paristik itzuli zinela, hogeita hamar bat urterekin, han bizitzen egon ostean. Zertara joan zinen hara?

Parisera igo nintzen konpultsiboki, parada presentatu zelakotz. Gela bat, lan bat –denbora libro anitzekin– eskaini zidaten zine ekoiztetxe batean, zeharkako publizitatea egiteko. Gidoiak irakurtzea zen nire lana, eta atzematea non eta nola txertatu markak, alkohol eta tabakoarenak batez ere, publizitatea egiteko. Champs Élyséesen zegoen bulegoa, apartamentu egokitu batean, eta lo egiteko gela seigarren solairuan. Zerbitzuko eskaileretatik igo behar zen, oinez beraz. Jende biziki gutti

ezagutzen nuen Parisen, euskaldun bizpahiru, Etorki kantu eta dantza taldean edo haren inguruan ibili izan zirenak.

Helburu argia hau nuen: ikasketak egitea –espainiar hizkuntzan lizentziatzea– intelektual munduaren ateak irekitzeko. 68ko Maiatzaren lehen eta azken fruitua izan zen Vincennesko unibersitate berri-berrian izena eman nuen eta astean hiru aldiz joaten nintzen hara.

Eta zer aurkitu zenuen han?

Interes handia sortzen zidan gauza berria. Pedagogia oso arreraria. Irakasleak publikatutako obraren arabera hautatzen zituzten, eta benetan internazionalistak eta internazionalak ziren. Ikasleei beren gaia eskaintzen zieten. Azterketarik ez zegoen. Gaiarekiko interesa erakustea aski zen –aholkutako liburu bat edo bi irakurri eta fitxa metodikoki eginda, parte aktiboa hartuta– *Unité de valeur* zelakoa irabazteko. Vincennesen esperimentatu zen metodo hori.

Zein ikasgai zenituen?

Akulturazioa, esaterako. Hango irakaslea Peruko Altiplanoko indigena hutsa genuen. Gazteleraz ez zen biziki trebe, kitxua zuen hizkuntza eta kultura. Aldi oroz etortzen zen bere kulturaz mintzo zen objektu batekin –jostailu edo broderia bat, adibidez–, eta guri tokatzen zitzaigun jatorri kultura defendatzea; objektua baliatzen zutenei buruz batez ere. Oso pesimista zen. Akulturazio adierazle puxanta, Coca-Colaren logoa, hiru mila metroko Altiplanoraino igo zela kotz. Jakintsu isil haren lezioez profitatu genuenaren gakoa atzeman nuen, nolabait, komunista eta errefuxiatu politikoa zela erran zidanean.

Ideologia berriak eta progresistak ongi etorriak ziren Vincennesen. Psikoanalisia –Jacques Lacanek edo haren suhi Jacques-Alain Millerrek konferentzia bat ematen zuten egun oroz 13:00etan, anfiteatro bete-bete batean– eta estrukturalismoa, esaterako; baina benetako auzia marxismoa zen eta, marxismoan, politikari eta arteari aplikatzen bazen, Alderdi

Komunistaren ardurak. Eztabaida sutuak izan dira baina ez da inor sustoz hil. *Ca, c'est la France.*

Garai hartan izan zen Burgosko Prozesua.

Bai. 1970eko abenduaren hastapenean hasi ziren ekitaldiak, Burgosen epaitzen ziren euskal preso politikoen alde eta Francoren entzutegiaren aurka. Orduko ohitura zen, fakultateetan, irakasle guztiak batzar batera deitzea anfiteatroetan, fakultate bakoitzak manifestaldia, greba edo zer egingo zuen erabakitze gaia aztertu eta eztabaidatzea. Vincennesen, Burgosko auziak batzar orokorra sorrarazi zuen. Entzun nuelarik mikroan zenak «*solidarité pour les camarades espagnols*» eskatzen zuela, hitza hartu nuen errateko kamarada haiek, euskaldunak izatetik harago, abertzaleak zirela. Ahal bezala azaldu nuen kontzeptu hori.

Batzarraren antolatzaileek gustukoa izan zuten antza, ber arratsaldean eraman baininduten Jussieu deitzen zen zientzia fakultate batera eta hortik zuzenbide fakultate batera. Lauzpabost egunez bizpahiru hitz-hartze. Eta olatua piztu bezala itzali zen, nire ekarpenei dagokienez.

Nolatan?

Arrats batez Ander Landaburuk deitu zidan telefonoz. Ez nuen ezertaz ezagutzen eta Juan Mari Bandres aipatuz manatu zidan publikoki isiltzea zeren antolatuak ziren militanteen lanak oztopatzen nituen. Erran zidan Jean-Paul Sartrek Gisele Halimiren *Le Procès de Burgos* liburuarendako idatzi hitzaurrea berek zutela bideratu, eta gauza horiek errespetatu behar nituela. Baina ez zen arrunt horretan gelditu Parisko nire hitz-hartze publikoa. Horrela ezagutu nituen psikiatra progresista batzuk. Leku irekiak antolatzen ari ziren beren gaixo edo ez hain gaixoentzat, eta horiek ere galdegile ziren Burgosko auziari buruz. Zoroekin, gainera, ez nuen itzalik egiten idazle handien eguzkiaren azpian.

Uste dut *camarades basques* bezala hartuak izan zirela Burgosko auzian auzipetutako gure kideak eta Parisen haien alde

muntatu zen manifestaldia sekulakoa izan zen. Sekulakoa benetan, ez baita horrelakorik inoiz izan euskaldunekiko elkartasuna manifestatzeko.

Kazetaritza ikasketak ere Parisen egin zenituen.

Bai. Parisen egin nuen bigarren ikasturtean, izena eman nuen ere zientzia politikoen unibertsitate institutu berezi batean, IFP Frantziako Prentsa Institutuan. Proiektu bat eginez sartu ahal nintzen hara. IFPn prentsaren inguruko materia guztiak erakusten ziren: prentsaren historia, ekonomia, zuzenbidea, finantzaketak, teknika desberdinak, giza baliabideak, kazetaritza... Ikasleak prentsa arloko enpresen zuzendaritzan aritzeko prestatzea zen helburua. Nire proiektua zen ekoizpen egitura bat sortzea Frantziako eremuan, ikus-entzunezko baliabideekin euskararen sustatzeko.

Saint Dominique kalean –IFP han zen– ez zen Vincennesko giroa, baina. Hirurogei ikasle ginen, horietarik hogeitau kanpotarrak eta ia denak prentsa proiektuetan leporaino sartuak beren sorterrietan. Haiak ez ziren Peruko gure irakasle kuttuna bezalakoak, arrunt alderantziz baizik. Pompidouren garaikoak eta aldekoak ziren. Jende tristea, bai Frantziako hexagonokoak bai haren hedapenekoak. Nik hor egin nituen bi lagun, bat frantsesa eta ezkertiarra ni bezala, eta beste bat quebecarra eta sindikalista. Beste orori ez nuen hitzik ere erratekorik.

«Parisen egin nuen bigarren ikasturtean, izena eman nuen zientzia politikoen unibertsitate institutu berezi batean, IFP Frantziako Prentsa Institutuan»

Zer gertatu zitzaion zure proiektuari?

Urtea bukatzen ari zela-eta, nire txostena aurreratzeko arazoak agertu zitzaizkidan, ene tutoreak SESB Sobietar Errepublikako Sozialisten Batasuneko ereduaren sarrarazi nahi zuelakotz butiga guztia. Eta horra non badiren unibertsitate

hauteskundeak ikasleen ordezkariak ez dakit nora igortzeko. Ezker muturreko guztiak, Parisko unibertsitateetan, hauteskundeen aurka ginen. UNEF Frantziako Ikasleen Batasun Nazional sindikatua, aldiz, alde zen, eta gure institutuan ez zen hautagai bat bera ere. Giro horretan, institutuko lehen-dakariak etxera deitu eta bere bulegora gonbidatu ninduen, niretzako berri on bat bazuela-eta. «Benetan proiektu interesantea zurea, badakit oztopo batzuekin ika-mikan ari zarela, baina konpongarria da guztia», erran zidan. Eta bigarren baselina geruza bat: «Urte osoan giroa ekarri duzu gure artera eta zure merezimendua estimatua dugu. Horregatik, hautatua izan zara, kontrapuntu bezala, eta ez diguzu etsipenik eman. Behar dizut orain eskaintza bat egin zure karreraren zango onarekin sartzeko. Lehenik, jakin ezazu keinu txiki bat eskatu didatela zure proiektuaren baitan Marseillan egin nahi zenuen praktika egonaldia onartua izateko. Hankatxo zuria erakutsi behar da ORTF erakundean –orduko irrati eta telebistako siglak– sartzeko, eta normala da, ezta? Gainera, dituzun *aurrekari*ekin... Beraz, hau da nire eskaintza: ikasle ordezkarien hauteskundeetan zure burua aurkeztea, edozein etiketarekin, maoistarena nahi baduzu, eta, nire aldetik, marxan ezarriko dizut oporren landako makineria...».

Zer erantzun zenuen?

Ez nuen pentsatu ere egin! Arrapostu gisa, gure IFPko lehen-dakariak ikusi eta entzun zuen sumendi baten jazartzea. Eta hor gelditu zen Paristik intelektual mundura sartzeko nire ate irekitzea. Indar guztiekin haren bulegoaren atea danbata nuelarik.

Ez naiz batere harro horretaz, orain irri eginarazten badit ere. Uste dut hobe nukeela psikoanalisi sinple baten egitea jakiteko zergatik ez dudan behar bezala azken eginahala ematen, nire proiektuen aurka jalitzen diren ziztadak gainditzeko. Galtzaile konplexua? Adrenalinarekin kontrol gaitza? Edo irakurtzen jakin nahi nituzkeen patuaren hatz aztarnak?

ZATIKETA URTEAK

Paristik bueltatu zinen. Franco hil arteko garaia nola gogoratzen duzu?

Franco hil artean, hilabetez gau oroz egiten genuen hemen festa gau hartan hilko balitz bezala. Baionako festak ziruditen. Hor izan zen polimilien eta milien arteko bereiztea ere, eta hori biziki mingarria izan zen, eta orain artio ondo esplikatuz gabe geratu da. *Ondo* erratean, partaideen lekukotasunez buruz pentsatzen dut.

Zuk zer esplikatuko zenuke?

Nik uste dut, ez baita esplikatuz, orduko ber hutsak egin ditugula inkontzienteki. Adibidez, negoziazioa borrokaren ardatz jartzea. Edo pentsatzea aurkakoa etsai bezala tratatzen ahal dela edo ekintza militar txirtxiletatik etekin politikoa ateratzen dela. Negoziatu zuten polimiliek, barneko eztabaida labur baina gogor baten ondorekin. Hor bereizi ziren. Hor agertu zen bokalea: *polimiliak* eta *miliak*. Polimili zirenek negoziatu zuten beren pasaporteak edukitzea; politika munduan integrazteko aukera bat ukaitea ere bai, pentsatzen dut; eta historia haien eskutik pasatuko zela, beraiek behar zutela kontatu. Izan zen ere Perturren desagertzea.

Ezagutu al zenuen Pertur?

Pixka bat, baina ez ontsa. Gose greba bat egiten genuelarik Maulen, etortzen zen egunero marra baten emateko, eta guk bagenuen gure marra. Komisario politikoa balitz bezala ulertzen nuen haren itzala, eta nik betidanik izan ditut maiteago gauza libertarioak. Inspirazioa, lagunaren artekoa, su horretan ateratzen diren gauzak nahiago ditut, «bihar hau egin behar duzu» edo «halako manifestaria antolatuko dugu Baionan eta zuek ere bai hemen, guk hala diogulakotz» erranez goizean norbait jitea baino. Nik hori ez nuen maite eta hura horrelakoa zen, baina horrek ez du fitsik ikustekorik

ez baikorrik ez gaiztorik. Antolatua zen, eta sinesten zuen horretan. Jakina zen hura zela gau oso batez eztabaida ukan zuenatarik, Ezkerrarekin batera, mahai baten bueltan, Txomin Iturberekin eta Peixotorekin. Eta ETA hautsi zen. Eta beraiek segitu zuten beren bidea. Nola itzulikatuko zen ETA (pm) Pertur pistan gelditu balitz? Ez dakit, baina nik ez dut uste lagun ohiek desagerrarazi zutenik.

Eta nola itzulikatu zen ETA, zatiketa osteko lehen boladan?

Biziki ahulduta, dirurik gabe eta kontaktu oso gutxirekin. ETAn baziren batzuk politikaz gehiago arduratzen zirenak

«ETAn baziren batzuk politikaz gehiago arduratzen zirenak eta horiek kasik guztiak polimilietara joan ziren. Hautsi-mautsi hori izan zelarik, miliak erabat umezurtz geratu ziren»

eta horiek kasik guztiak polimilietara joan ziren, komandoetan zebiltzan beste bakan batzuekin. Bazen nahas-mahas bat, baina espezializazioa ere bai. Politikan zebiltzan gehienak ez ziren komandoetan ibiltzen. Orduan, hautsi-mautsi hori izan zelarik, miliak erabat umezurtz ziren. Herri batzuetan, denak polimiliek izan ziren. Eta ospea ere bai. Miliak ziren *astoak*, *mandoak*; eta

besteak *finak*, jakintsuak. Hori zen koadroa. Baina zer zen benetako erronka? Lehenik, Franco hilda ere ez zuela horrek Euskal Herria independentziaren bidean jarriko. Bigarrenik, militar espainiarrekin negoziatu behar bazen, ez zela banaka joaten ahal pasaporte baten bila. Militar espainiarrekin negoziatu zuten polimiliek, eta ETA erakundearen segitzeko ez zen pasaportearen bila joan behar. Horren ondotik, miliek ikusi zuten, eta milien aurretik LABekoek –garai hartan hemen errefuxiatuta zegoen Jon Idigorasek batez ere–, ez zirela langile frontea eta fronte militarra erakunde berean ezarri behar, bereizi egin behar zirela. Fronte militarrean erortzeak ukaitea normala delako, baina horrek ez duelako mindu behar langile frontea. Horrekin ados ziren gehienak, baita militarrek

ere, eta haustura horren ondotik pentsatu zuten arlo militarra aparte tratatu behar dela, ez dela nahasi behar ez politikarekin, ez arlo kulturalarekin, ez langile frontearekin... Gero badira batzuk zubi egiten dutenak, baina horiek klandestinoak dira.

Hori, ene iduriko, izan zen ETAREN historian aurrerapauso biziki handia, hitzak ez baldin badu ere hori konpreniarazten. Nik orduan egiten nuen ene bizitzaren parte bat oraindik ere Parisen, eta harrigarria zen.

Zergatik?

ETA militarrek nola aitor zezakeen ez zuela politikarik nahi? Ematen zuen eskuineko zerbait, erakunde diktadura zale bat, baina ez zen batere horrela espiritua. Polimiliak ziren gehiago diktadura zale gure artean. Orduan, 'militar' hitza gaizki ikusia zen ezker eta ezker muturreko munduan, eta mundu hori zen gure laguntzeko. Hori zen frankismoaren bukakeran, Xibertako topaketak baino bi urte lehenago edo horrela. Hori inork ez du esplikatu. Ez mili zirenek ez polimili zirenek. Denek erraten zuten «ni naiz ETA», eta inork ez zuen azaltzen zertan bereizten ziren. Eta gero, memento batez, ez dakit zer ekarri zuen Espiritu Sainduak edo, ikusten duzu aldarrikapen batean «*ETA organización político-militar de liberación nacional*». Eta lehenago ematen zen «*organización revolucionaria de liberación nacional vasca*». Eta hor hasi da ETAREN erorketa, bai eta ere zitalkeria. Politika eta militarra nahasten zuelarik. HBkoak ETAREN menpe geratzen zirelarik. HBko hauteskundeetako zerrendetan ETAK erraten zuelarik «hi bai eta hi ez». Hori izan da, nire ikuspuntuak, ETAK galdu duen erakunde mitikoaren xarma. Lehenago bazuen. Sarrionandiak oso ondo aurkeztu du bere azken lanean, *Lapur banden etika ala politika* saiakeran. Derrigorrezko irakurketa da ETAREN munduari interesatzen direnentzat.

Hori dena gertatzen ari den garaian, zeu IK-koa zinen.

Bai. IK-k hemen izan du ETAK zuena, erakunde xarmangarri mitikoaren ospea. Eta bai, hastapenean IK-koa nintzen,

ETArekin ados zirelarik. Haustura hori izan zelarik ez. IK batez ere polimiliekin lerratu zelako. Nik lagunak, komando-koak, gehienak beste aldekoak nituen. Polimiliak errespeta-tzen nituen pertsona bezala, baina ez nuen maite haien estiloa. Ezkertiar planta bai, eta benetan anbizio politikoa. Anbizio politikoa besterik ez zeukaten. Besteek ez zuten anbizio poli-tikorik. Beharbada, miliek ez zekiten ontsa nora zihoazen, gauzak diren bezala errateko –bazituzten beren hutsak–, bai-na bizia benetan konprometitu zuten herriarentzat. Gudariak ziren, patriotak. Osoki ziren horretan. Ez zuten beren burua ikusten herriko alkate, ulertzen? Ez da batere ber pertsonaia.

Lehenago ez nuen nire konpromisoengatik sufritzen –al-derantziz, alegantzian bizi nintzen–, baina Iparretarrak-en garaian bai, biziki sufritu dut. Logikoa zen hona borroka armatua ekartzea, baina beste lehentasun bat zen ere ETari trabarik ez egitea. Lagunak banituen denetan, eta tribu txiki bat gara Euskal Herrian, anbizio handiekin bada ere. De-nok ezagutzen gara, eta txarto. Entzuten duzularik GALek norbait hiltzen duela eta «bat gutxiago» esaten dela hemen... gogorra da.

Franco hil berritan gauzatu zen zatiketa hori. Amnis-tia bihurtu zen aldarri nagusia, baina horretan ez zen zatiketarik.

Borroka hori batez ere polimiliek eramán zuten, baina gu ere horretan sartu ginen. Espainia mailan ere izan zen borroka amnistiaren alde. Lortu genuen, bada, eta gero agertu da zer zen amnistia hori, nola irabazi genuen bertze gauza batzuk galduz. Franco hiltzearekin nire inguruan ez zen esperan-tza berezirik. Politikoki, hala ere, Alkateen Mugimendua izan zen, benetan interesgarria. Arrabiltze bat izan zen, eta horrek bai sortu zuen esperantza. Gero etorri zen Herri Ba-tasuna. Iparraldean gelditu ziren errefuxiatuek epe bat ukan zuten, eta uste dut hori izan zela interesantea, errefuxiatua izatea ez baita lanbide bat, aparteko militantzia mundu ba-teko kide izatea baizik. Errefuxiatuak militanteak dira edo

izan daitezke, eta, beste alde batetik, defendatzen ditugu beren giza eskubideak, zanpatuak izan direlako. Aipatzen duzun garaian, amnistiaren aldeko borroka zelarik, errefuxiatu bakoitzak erabaki zuen bere egoera administratiboa zurituz etxera itzultzea, edo hemen geratzea. Azken horiek uste zuten egoera ez zela gauza handirik aldatu. Eta anitz gelditu ziren hemen. Batzuen eta besteen artean ez zen mokerik izan. Bakoitzak egiten zuen nahi zuena, baina garbiki erranez zer egiten zuen, eta nola egingo zuen bere itzultzea. Eta gerlak segitu zuen.

«1978an sortu genuen Ekin. Bagenuen egoitza, bagenuen aldizkaria frantsesez eta ingelesez idatzia, bagenuen taldea... horiek guztiak hemen Iparraldean ziren antolatu»

ETAren aldetik, estatistikarik ez dut egin, baina uste dut orduan izan dela gogorra. Jeneralak etzaten ziren bospa-sei urtean.

Garai hartan, errefuxiatuen babeserako mugimenduan zeunden.

Bai. 1978an sortu genuen Ekin. Lehenago izan da garai bat non dena utzi nuen Iparretarrak-etik baztertua izan nintzelako, ez bainuen hautatu beste bide hura. Seaskan galdegin nuen espainolezko irakasle lana egitea. Banituen diplomak eta postu bat bazen betetzeko, baina hautagaitza begiratu ere ez zuten egin zuzendaritzakoek. Hiru bat urte egin nituen paso eginez, eta gero berriz bueltatu nintzen. Bagenuen egoitza, bagenuen aldizkaria frantsesez eta ingelesez idatzia –*Euskadi information*–, bagenuen taldea... horiek guztiak hemen Iparraldean ziren antolatu. Gero, biziki berantago, berriro hartu zituzten izenak beste aldekoek. Ekin izena ere ez genuen guk asmatu. 36ko gerlaren ondorioz Argentinan antolatu zen Ekin taldea eta argitaletxea izan genituen eredu. Monzonen Anai Arteak segitzen zuen, eta haren bidetik

eta beste neurri bat eman nahiaz, Argentinako Ekin haren arauekin egin nahi genituen gauzak, gure ahalmen apurra-
rekin. Euskadiko Batzordeak deitzen ziren, eta bagenituen
halakoak bai Frantzian, bai Suitzan, bai Belgikan, bai Italian,
bai Alemanian... baziren batzuk biziki onak.

ETArekiko frankismo garaiko sinpatia erabat agortzeke zegoen atzerrian?

Franco hil eta berehala, Frantziako eremuan bizitzeko pape-
rak gero eta eskuragaitzagoak bilakatu ziren etorri berrien-
tzat. Noiz-nonka lortzen zen estatutu bat, baina ehunetik bat,
edo gutxiago, eta errefuxiatugaiak –orain *demandeur d'asile*
izendatuak– hilabete bat, bi edo hiruz ibiltzeko baimen busti
txirtxilekin zihoazen. Arraberritzen zen papera. Azkenean,
1984ko zazpi errefuxiaturen aurkako estradizio epaiketaren
ondotik, agertu da errefuxiatu politikoen estatutua akaba-
tua zela. Praktikan. Euskal Herriko historian gelditu behar
zuela, kutxan etzanda.

Hara, ekainean Parisko Euskal Herrirako Bake Konferen-
tziako presidentea izan den Louis Joinetenak dira Frantzian
zigorgabetasunaren kontrako irizpideak. Baina hori ez zen beti
gure alde. Polimiliak lagundu zituen erabat; Mitterranden Jus-
tizia ministroen aholkularia izan zen; Mitterrandena berarena
ere bai; eta, 1984an, Frantziak ETArekin eten eta estradizioak
hastea erabaki zuenean, erraten zen hori ere Joinetek lagundu
zuela. Euskaldunak ezagutzen ditu, bai. Ez du gezurrik erraten.
Irrino batekin ageri da erraten berak baduela ate asko ireki-
tzeko giltza, baina ateko itxita daude oraino. Gauza horiek
guztiak jendeak behar lituzke jakin.

**Erbesteko Eusko Jaurlaritzak Frantziako Gobernuarekin
eginda zeukan akordioari esker lortu zuten urte luzez ETA-
ko militanteek errefuxiatu estatutua Frantzian, lehen esan
duzenez. Nola gogoratzen duzu hori bukatu zeneko garaia?**
Politika hori (Hego) euskal herritarren alde interpreta li-
teke. Baina orduko marko antifrankistari bere garrantzia

emanez. Euskal herritarrek jakin badakite ez doala beren alde, baina bai frankismoaren aurka. Franco hil eta urte eta erdi geroago, Espainia Europan sartzen da eta ez da posible Europak onar dezan Espainiak ez dituela irizpide demokratiko guztiak errespetatzen. Errefuxiatuen egon baldintzak europargotzen dira, egiatan edo txantxetan. Bukatuak dira estradizio auziak, mugara eramateak eta lehenagoko amets txarrak ere. Lege berria da *Mandat d'Arrêt Européen*. Orain, auzian ez da funtsean eztabaidatzeko lekurik ere. Kontrolatzen da doi-doia datak eta zigiluak xuxenak direla. Espainia Europako kideak bezalatsua da eta euskaldun borrokalariak egiazko gaizkileak.

Harrigarriena, distantziarekin so eginez, gure begiztatze luzearen falta. Errefuxiatuak beti tratatuak izan dira, beren Iparraldeko anaien partez, «gure kontrako jazarpenaren biktimak bezala». Tropeleko txirrindulariak bezala, sudurra manilarrari itsatsita, bazterrera behatu gabe eta pedalkatuz helduera artio. Gogoeta handirik egin gabe, eta jakin behar luketener konfiantza emanez.

«Hegoaldeko errefuxiatuak beti izan dira ondo hartuak jende xehearen aldetik. Inbasioa eta hori guztia prentsa-ren gauza izan da, ez herriko opinioea». Zuk esana da. Prentsa hori, baina, oso hedatua dago.

Bueno, interpretazioak libro dira. Baina Iparraldean ezagutzen dugun inbasio handia udako turistena da eta bagara jende anitz, gehiengo erratera mentura ninteke, horretaz baliatzea besterik ez dutena txapelaren azpian. Errateko inbaiditzaileei ere ongi etorria eman dakiekeela. Gero, errefuxiatuei *landare inbasio* prentsa egitea, egilearen odol txarraren froga da batez ere. Edo bere interesen seinalea. Iparraldea Hegoaldekoentzat babesleku bilaka dadin nahi ez dutenen iritzi bat. Izan daitezen goizik jaiki behar duten kakerre zenbait besteak bizitzaz gozatzen direlakoan jasan ezinezkoak, edo arrazoi politikoengatik ere Hegoaldean ez dela borroka armatuaren beharrik.

ALFONSO ETXEGARAI

Parisek errefuxiatu estatutuak amaitzeko erabakia hartu zuenerako, Alfonso Etxegarai bikotekidea ezagutua zenuen. Noiz ezagutu zenuen zehazki?

Berrogei urte nituen ezagutu nuenean, eta hura berde-berdea zen, hogeita hiru urte baitzituen. 1981ean ezagutu eta maitatu ginen, biziki erromantikoa zen dena, eta zoratuta geunden. Alfonso ezagutu ostean, etxekandere prestu bilakatu nintzen. Hori da Alfonsorekiko ukan eta ukaiten dudan bizitzan lortu dudan gauza bakarra: amodioan bizitzea. Ez da gutxi, luzaz amodiorik gabe bizi izan bainaiz. Maitasunarekin bizitzea gauza ona da.

Mitterrand Alfonso ezagutu zenuen urte berean heldu zen boterera. Hark bi promesa egin zizkien euskaldunei: euskal departamendua, eta errefuxiatuen egoeraren normalizazioa.

Errefuxiatuen arloan ez zuen gezurrik esan! Bere normalizazioa ezarri zuen: ospa! Hori ez da gezurra esatea. Hori da Mitterranden normalizazioa. Egun batez etorri zen errefuxiatu bat etxera, Alfonsorekin bizi nintzelarik, errateko

«Errefuxiatuen arloan Mitterrandek ez zuen gezurrik esan! Bere normalizazioa ezarri zuen: ospa! Hori ez da gezurra esatea. Hori da Mitterranden normalizazioa»

behar zuela aurkeztu prefekturan paperak edukitzeko. Alfonso beti bazen paperik gabe, klandestino bizi zen. Komandoetan ibiltzen zen eta orduan eta paper gutxiago hobe. «Mitterrandek konponduko ditu gauzak, hitzeman du, seguru da ukanen dugula errefuxiatu estatutua denok», zioen lagunak. Alfonsok ez zuen nahi paperik, baina erakundeak hala erabaki zuela eta, egin zituen.

Nik Ekinen egiten nuen lana eta bagenituen harremanak kazetariekin. Haietako batek galdetu zidan zenbat errefuxiatu

ziren hemen. Ez genekiela erantzun nion nik, ez zela gure lana haiek zenbatzea, haiei laguntzea baizik. Kazetari hark arrapostua: «Badaude 613». Prefetak errana zion. Izan ziren denak han izen ematen, eta han zituzten denak lerroan, kontrolatuta. Normalizazioa hori zen. Nik badakit nola egin behar den hori. Joinetek erakutsita. Zepoan erori ziren denak.

Erasotik defentsara egin zuen jauzi egoerak. ETA jeneralak kalitzen ari zen, eta beste aro bat hasi zen. Bagenekien bortitzagoa izan behar zela, ez zela aski izanen ordura arte eginikoarekin zerbait berri sortzera, baina hortik hona, 1984tik, orokorki, ez naiz segur gauzak aurreratu direnik. Beharbada tronpatzen naiz, baina ikusten dudalarik garai hartan jaio ziren militanteen seme-alaba anitz, gaizki bizi izan dutenak guztia, horren ondotik izan zirelako GAL eta beste... Gazte horiek ez dute fitsik ere entzun nahi militantismoaz eta. Abertzaleak dira, urtean bi manifestaldi egin dituzte, baina ez dute bizia horretan sartu nahi. Horrek erranarazten nau ez direla gauzak aurreratu. Horraino joan gara, goia jo dugu. Horregatik, armak uztearen biziki alde nintzen. Horraino iritsi gara, genituen armekin eta besteek dituzten medioen arabera. Horiek guztiak eztabaidatzekoak dira. Bada diskurtso ofiziala, irabazten ari gara eta halakoak erraten, espainolak itsusiak eta frantsesak itsusiago direla erranez, baina horrek ez du laguntzen benetan helburuen lortzeko, uste dut, kontzientziak itzarririk atxikitzeko.

Nola bizi izan zenuen zuk GALen sorrera? Zer ekarri zuen GALek zure egunerokora?

Nik hori Alfonsorekin bizi izan dut, eta Alfonso antolaitzaileetarik zen beste errefuxiatuei babesa emateko. Horrek erran nahi du egunero bostetan jaikitzen zela, armaturik joaten zela. Beste batzuk ere baziren hura bezala, lanera joan behar zirenak babesteko. Autodefentsak ziren. Nik banuen larruzko abrigoa, lagun batek emandakoa, eta harekin joaten zen Alfonso. Ibilera ere aldatzen zitzaion hura soinean abiatzen zenean.

Beldurrarekin bizi zineten, azken finean.

Beldur handiarekin, bai. Ez zen hiru egun ber tokian lo egingiten. Nik batzuetan bai, baina Alfonsok ez. Oso zelatatuak ginen. Bai frantses poliziak bai beste batzuek. Garai horietan bazen GAL, baina frantses poliziak ere asko atxilotzen zituen, kartzelara igortzen, eta deportatuak izan diren gehienak kartzelatik irtetea deportatzen zituzten, bai Venezuelara bai Cabo Verdera, armatuak zirelako. Hemen Iparraldean normalean ez ziren armarekin ibiltzen, baina autodefentsa lan hori egiten zutenak bai.

Bizia zen norbere burua babestea eta besteena pixka bat. Lagun handiak egin ditugu garai haietan. Batzuek lanean segitu dute bazekitelako babestuak zirela.

Lagun eta ezagun asko galdu zenituzten?

Bai. Garai hartan eman zidaten ardura bat: agur ekitaldien antolaketa. Liturgia nire ardura zen. Mikel Goikoetxea *Txappela*-ren ehorketarekin hasi zen. Hark bazuen bere gorpua errausteko gogoia, baina familiak ez. Giristinoak ziren. Eta niri erran zidaten: «Aizu, zuk hain maitea duzunez antzerkia, antolatu zerbait». Gero Josu Muguruzak hartu zuen ardura hori. Lau urte geroago utzi nuen Ekin, xuxen ez dakit zein urtetan. Txakurrada sartu, dena hartu eta itzali ginen. Sao Tomen nintzen orduan, baina. Lagunek ez zidaten biziki azaldu. Itzali zen gauza.

DEPORTAZIOA

Hori baino lehenago atxilotu zuten Alfonso, izan ere.

Bai. Pannecaun izan zen, 1985ean. Asilo eskatzaile zelako ziurtagiria bazuen. Lehenago ere bazuen paper hori, baina aldiro berritzen zen. Hori berritu behar zen. Sanferminak baziren, eta sanferminero Iruñeko peñen ordezkariak etorri ohi ziren autobusez, festa egitera. Urte hartan Urdiñarben

zen festa. Larunbatez izan behar zen festa hori eta ortziralean deliberatu genuen paper horren bila joatea, iraungita baitzegoen. Kontrolak izan behar ziren bideetan, eta bidean arazorik ez ukaiteko erabaki genuen hori. Goizeko zortzietan telebistaz entzierroa ikusi genuen, ator gorri batekin eta galtza beige batzuekin ezartzen da guapo-guapo, eta badoa Alfonso paper eskatzera. Heldu bezain laster ikusi zuen bazela zerbait gaizki prefekturan. Hala ere, eman zioten papera, eta ez zen agertu ezarria genuen hitzordura. Baziren helikopteroak eta txakurren kotxe anitz. Ni gaizki nintzen, eta oren bat eta erdietan badatorkit bat eta erraten dit atxilotu zutela gizona. Bi ziren atxilotuak. Besteak ere ator gorria eta galtza beigeak zituen. Prefekturan emango zioten poliziarri Alfonsoren jantzien berri. PAFekoak ziren atxilotu zutenak. 15 egunez edo hiru astez eraman zuten Frantzian zehar, eta gero Quitora. Atxilotua izan eta bi egun berantago, Espainiako errege-erreginak, Juan Carlos eta Sofía, Parisera joan ziren Mitterrandi bisita ofiziala egiteko, Espainia Europako Komunitate Ekonomikoan sartu behar zelako hurrengo urtarrilean.

«Garai hartan eman zidaten ardura bat: agur ekitaldien antolaketa. Liturgia nire ardura zen. Mikel Goikoetxea Txapela-ren ehorzketarekin hasi zen»

Eta zergatik Quitora? Lehena izan zen.

Bai. Ordurako bazen jendea kanpora bidalia. 1984an hasi ziren halakoetan. Egun batez hogeitik gora hartu eta Panamara igorri zituzten. Laboa gotzainaren laguntzarekin lortu zuten NBE Nazio Batuen Erakundearen eskaintza bat Kubako paperak ukaiteko. Ez ziren denak Kubara joan, baina gehienak bai. Quitora eramandako lehendabizikoa Alfonso izan zen. Bigarrena, abenduan, Angel Aldana. Eta hirugarrena, askoz berantago, Antxon Etxebeste, Dominikar Errepublikatik eramana. Zergatik Quitora? Hango presidentea, León

Febres-Cordero, Pinochet moduko bat zen, eta han bazen Barne ministro bat, Luis Robles Plaza, oso laguna Espainiako Segurtagararako estatu idazkari Rafael Verarekin. Ageri zen lagun arteko tratu bat zela. Espainiako Gobernuarentzat kario egiten zuten gauza horiek. Frantses gobernuak ezartzen zituzten jende horiek abioi batean bi frantses polizierekin, harrera lekuko poliziei ematen zizkieten eta Frantziaren rola bukatua zen. Eskuak garbitzen zituzten. Oraindik ere bai. Galdetzen diedalarik frantsesei zerbait, erantzuten didate: «Oraindik Sao Tomen? Guk ez dakigu! Guk Quiton utzi genuen». Oso gaizki iruditzen zaie deportazioa, zerbait alegala dakusate, baina agiriren bat eskatzen diedanean Alfonsoren zako, ezin dutela egin erantzuten didate.

Itzul gaitzen Quitora, baina.

Bai. Eta han ezagutu genuen CEDHU Giza Eskubideentzako Batzorde Ekumenikoa. Oso talde ona zen. Han kokatu ziren. Euskal apezten –*Padres Vascos*– bitartez ezagutu genuen. Moja batzuk ziren, oso bereziak eta oso jende ona. Komunitate erlijiosoan diziplina zuten. Ez ziren batere arduratzen beren jabetza materialez. Beren lanaz bakarrik kezkatzen ziren. Lan asko egiten zuten indigenen alde, laiko talde batekin, giza eskubideen defentsan. Alfonso beren magalean hartu zuten, eta baita Aldana ere. Gauza txarretan ere, bada gauza onik, eta haien ezagutzea onetako bat izan zen.

Zu hemen zeunden, eta Alfonso Ekuadorren. Zirt edo zart egin behar zenuen.

Bai, eta ezkondu behar genuela ikusi nuen. Ezteiak ere egin genuen. Etxean ezkondu ginen. Hasten da gauza Lourdesen, ni bizi bainaiz gurasoak Lourdesera joan zirelako. Eta anaiak eta biok pentsatu genuen Alfonso behar zela babestu. Haren senideak ez ziren jabetzen benetan auziaz. Alfonso babestea guri zegokigun, beraz, eta horretarako eskubidea lortu behar genuen. Alfonsok desagerrarazi egin nahi zutela

ikusten zuen. Non zen jakiteko bederen, nork erreklama zezakeen? Emazteak!

Eta ume denborako istorio batekin gogoratu nintzen. Baziren gerla denbora haietan emazte batzuk klandestinoki ezkontzen zirenak. Alargunak ziren, senarra gerlan hil zitzaielako, eta kobratzen zuten pentsioa. Baina beste batekin bizi zirenez, klandestinoki ezkontzen ziren. Elizatik bakarrik. Zuzenbide kanonigoak dio pertsonen aurrean ezkondu behar duzula lehenik jainkoaren aurrean ezkontzeko segidan, eta lehenagoko emazte haiek ez zuten legearen arabera egin nahi, ez zutelako pentsioa galdu nahi, baina ez zuten erlijioaren kontra bizi nahi ere, eta Elizatik ezkontzen ziren, salbuespen gisa. Orduan, pentsatu genuen gure amari eskatzea Etxegarai kardinalari idaztea. Gure amama Etxegarai zen, izan ere. Ahaideak ginen, baina urrunekoak. Gure amak Lourdesera joatea biziki maite zuenez, anaiak eta biok eraman genuen igande batez, mezetara, handik jatetxera, eta postre orduan anaiak atera zituen papera eta boligrafoa, eta amari eskatu zion Etxegarairi idazteko, enetzat salbuespen bat egitea onar zezan.

Eta amak idatzi.

Bai. Ez dakit nola ukan nuen Etxegarairen helbidea, baina ukan nuen. Igorri gutuna, eta hark arrapostua eman. Telefono zenbaki bi eman zizkidan. Deitu nion, eta erran zidan Quitora joatean jotzeko Nuntzio Apostolikoarengana, hark zuzenduko zizkidala kontuok. Zibiletik pasatu gabe ezkonduko gintuztela erran zidan. Joan nintzen nuntzioarengana, eta nahi ninduen lagundu, baina galdeketa egin behar zidan. Egin zidan galdeketa zen ziurtatzeko ez nintzela komunista-marxista. Hala banintz ezingo zidala lagundu erran zidan. Gero, apezarengana joan eta etxean ezkontzea galdegiteko erran zidan. Aurkitu genuen apez zoragarri bat. Alfonsoren etxera etortzen zen, zaindaria telebistara begiratu bitartean egiten genuen ezkontzarako prestaketa, eta oso polita izan zen dena. Lekuko bi behar genituen, eta Aldana izan zen bat. Bestea, CEDHUko

lagun Elsie Monge. Eguberrietan, hamaiketan edo, joan ginen gure zaindarekin elizara. Beti bazen estakurua oso fededuna nintzela. Beti etorri zait oso ondo. Kartzelan ere bai. Eta eliza hartan ezkondu gintuzten.

Handik bazkaltzera joan ginen. Zaindari guztiak ere bai. Mozkortu ziren eta guk sekulako festa egin genuen. Ezkontza paper horrekin izan nintzen abokatu baten bulegoan, gotzainak hala aholkatuta, erregistro zibilean izena ematea lortzeko. Frantsesek ez zuten hori nahi. Ez ninduten nahi ezkondu. Hori administrazioko langileei bakarrik zegokielarik erraten zidaten. Gezurra zen. Abokatu haren bidez lortu genuen erregistro zibilean ere izena ematea, eta egun hartan berean bota ninduten, bisa iraungi zitzaidalako. Zergatik egotzi ninduten Ekuadortik? Arrats hartan nahi zituztelako Alfonso eta Aldana harrapatu eta kantarazi.

Eta benetan bete zen Alfonsoren amesgaiztoa: desagerrarazi egin zuten epe batez.

Bai, baina hor epe ez oso luze batez. 48 orduz eduki zuten eta etxera bueltan eramanez. Biharamunean deitu nion, eta ez zen mintzatzen ahal. Ez nion ezer ulertzen telefonoz. Negarrez ari zen. Eta galdetu nion: «Torturatu haute?». Eta hark: «Bai». Ekinen lanean nintzelarik tortura lekukotzak itzultzen nituen frantsesera, eta banekien torturatu batzuek ez zutelarik esan ere egiten. Hortakotz galdetu nion torturatua izan zen. Frantziako enbaxada biziki gaizki portatu zen enekin. Hiruzpalau hilabete geroago, erregistro zibileko paperak eramanez nituen enbaxadara, eta familia txartela eskatu nuen, ezkondua nintzelako eta frantsesa nintzelako. Hori igorri zidaten. Gerora pasatu nintzen handik eskerrak emateko, eta hangoak erran zidan Erregistro Zibileko liburuan gure ezkontza jasotzen zuen orrialdea norbaitek erauzia zuela. Horregatik eman zidaten familia txartela, antza.

Hori guztia 1986 hasieran zen. Abuztuan berriz harrapatu zuten.

Bai, eta Sao Tomera igorri zuten. Hamabost egunez egon ginen Alfonsoren berririk gabe. Polizia bikote bat bazen Ekua-dorkoa, bidaia osoan Alfonso segitu zuena. Haiek Quitora bueltan etorri bitartean, ez genekien fitsik Alfonsoz. Pentsatzen genuen dena ondo pasatu bazen Cabo Verden iza-nen zela, han bazelako errefuxiatu andana bat. Ez zen Cabo Verden, bada, Sao Tomen baizik. Sao Tome bazenik ere ez genekien guk hara igorri zuten arte. Bateren batek bazekien. Antton Ezeizaren lagunak ginen, eta kultura komunista zu-tenek bazuten Sao Tomeren berri.

Ordutik, Alfonso han da deportatuta.

Burkide iraultzailea deitzen zioten lehen urteetan. Agorri-lean eraman zuten Alfonso hara, eta nik Ekinen egiten nuen lana. Banuen zeregina, eta egiten nuen hiru hilabete hemen pasatu eta bi hilabete han. Hori guztia, anaiaren eta amaren laguntza ekonomikoarekin. Gero, han denbora gehiena geldituko nintzela erabaki genuenean, NBERentzako hasi nintzen lanean Sao Tomen. 1990ean izan zela uste dut. Lau hilabete egiten nituen han eta bi hemen, txandaka.

Alfonso futbol entrenatzaile hasi zen lehenik. Gero, koope-ranteen umeentzako gaztelera irakasle aritu zen. Denetarik egin du. Nik baino azkarra-go ulertu zuen han lan xume eta produktiboa egiten due-na, lurrarekin adibidez, ino-zotzat hartzen dutela. Orain, inportatzaile enpresari portu-ges batendako egiten du la-na; inportazio paper eta por-tuko zereginetan eta salmen-ten antolaketa jarraikitzen du batez ere. Egun hauetan, adibidez, hark Txinatik igo-rritako sei suhiltzaile kamioi sarrarazten ari da Sao Tomeko Gobernuarentzako.

«Sao Tomen denbora gehiena geldituko nintzela erabaki genuenean, NBERentzako hasi nintzen lanean han. Lau hilabete egiten nituen han eta bi hemen, txandaka»

***Deportazione* = angustia formula behin baino gehiagotan erabili duzu Alfonsoren eta zure egoera azaltzeko.**

Nik angustia badut beti. Uste dut maitasuna eta berezia izatea nahasten direlarik, zure gizona urrun eta arriskuan duzularik, telefonatzen eta erantzuten ez dizularik, beti pentsatzen duzula zerbait gertatuko zela. Batzuetan, gelditzen gara bizpahiru egunez konexiorik gabe, eta etena izugarria da. Maitasunaren ondorio bat da nire kasuan angustia mota hori, txanpon beraren ifrentzua. Pentsatzen dut laguna kartzelan dutenak ere antzeko egongo direla. Ama izateak ere angustia bera sortzen du. Ez naiz borrokatzen angustiaren aurka. Baditut nire superstizio sistemak halakoak uxatzeko. Baziren, bada, apez batzuk gaizkia exorzismoekin uxatzen bereziak? Antzeko ariketak behar ditut. Asko-asko pentsatzen dudalarik, sinesten dut nire amodioak baduela indar bat txarra edo gaitza urrunarazten duena.

BORROKAZ, LAGUNEZ

Iraultza, batzuetan, irautea omen da.

Hori ez da nirea bakarrik. Peixotok erran zidan aldi batez Jon Sarasua bertsolariak erran ziola iraultzan ezetz, irautzan zebilela. Hori da gaurko egunean euskaldunontzako problema, asimilatuak ez izatea. Datozen berrogeita hamar urteak aurreikusten saiatzen zara, eta galdera sortzen zaizu: «Euskaldunik izango al da mende erdi barru?». Frantses batek, espainol batek ez dio hori galdetzen bere buruari. Katalan batek ez dakit hori galdetzen dion bere buruari, baina guk bai. Beti badira ziklo batzuk. Gure etxean erraten zen gaitzek bederatzi eguneko ziklo bat bazutela, eta bederatzigarrenean hobekitzen bazen, hobera egiten zuela. Baina eria larri-larria delarik, behar da kasu eman, badelako azken herioak eragindako susperraldi moduko bat. Ez da euskaldunen errua beneratzen, baina inguruak gero eta indar gehiago badu. Aberatsak,

eman dezagun, ez dira inoiz historian orain bezain aberatsak izan. Pobreak ez dira lehen bezain pobreak, baina bien arteko aldea gero eta handiagoa da eta indar korrelazioa inoiz ezin da gure alde izaten ahal. Orduan, nik ez dut uste munduko irabazleak gure alde direnik. Frantz Fanonek erraten zuen bezala, ludiko madarikatuak gara. Borroka galduetatik gatoz, baina ez dugu inoiz ezer irabazi. Kontzientzia mailan bai, baina praktikoki...

Orduan, zergatik segitu borrokan?

A! Zergatik ez? Niri erraten zidaten: «Ez dugu bizi bat baikik». Nik arrapostu: «A, horregatik borrokatzen gara». Borrokarik gabe ez dugu lortuko, hori segur. Borrokarekin, beharbada, lortzeko bidean jarraitzen dugu, eta sortu ginen enbor beretik...

Borroka bide horretan, jende anitz ezagutu duzu. Marc Legasse, esaterako.

Bai. Oso jatorra zen. Niri gus-tatzen zaizkidan pertsonaieta-rik. Beti irriñoarekin, eta su festa bat bezala, libre. Hala-koei gelditzen ahal naiz beha ordubete.

«Ez dut uste munduko irabazleak gure alde direnik. Frantz Fanonek erraten zuen bezala, ludiko madarikatuak gara. Borroka galduetatik gatoz»

Felix Likiniano ere laguna zenuen.

Adiskideak ginen benetan. Egunero bagenuen hitzordua eguerdiko aperitifa egiteko Miarritzeko Petit Jaunen. Ez nion egiten zuen euskara entenditzen. Gelditzen nintzen hari beha asko maite nuelakotz. Kasildak, ordu hartan, bazuen bertze hitzordu bat, azokako arduradunekin. Haien etxean izaten nintzen, eta beti mokoka ari ziren. A zer bikotea! Orduan baziren bikote anitz: Telesforo Monzon eta Joxepa Ganuza Lardizabal, Liki eta Kasilda... Ez zuten haurrik, hori ikertu beharko da egun batez.

Eta nola gogoratzen duzu Monzon?

Bere etxean ezagutu nuen, antzerkiarekin. «Oso ondo! Berriz hasi», esaten zigun beti. Biziki interesantea zen. Haiek denek bazuten beste dimentsio bat, espirituala. Zer den dimentsio espirituala niretzako? Inspirazioa. Eta zerbait lantzen dute inspirazio hori ez agortzeko. Sinesmen bat ere bada. Ez da ideologikoa, jarrera bat baizik. Monzon horrelakoa zen. Oso mistikoa, benetan mistikoa.

Dimentsio espirituala zeukan beste bat Manex Erdozaintzi-Etxart da. Orain bizi naizen etxean Donapaleuko frantziskotarren parte bat bizi izan zen, maizter, eta tartean zen Erdozaintzi-Etxart. Langile apez izan nahi zuten, eta hala egiten zuten lana. Frantziskotarren apezpiku ere izan zen hura, kideek hala hautatuta. Torturatuta hil zuten Joxe Arregi ere fraide etxe horretan egon zen.

Txillardegik ere dimentsio espiritual hori zeukala esango al zenuke?

Ez. Inspirazioan ber mailakoak dira, baina Txillardegi zientifikoa zen, ingeniaria. Baina pianista ere bai, nolakoa gainera! Aldi batez haren behatzeko parada ukan nuen. Pianora esertzeko maneratik hasten zen, benetan gauza ederra zen hura ikustea eta entzutea. Batere partiturarik gabe jo zituen Ravel eta beste. Profesional bat ematen zuen. Txillardegi ikusten dudalarik, beti da pianoaren atzean. Pentsatzen dut politika dela hori ere.

Eman dezagun Monzonen klase postura, haren klase izatea eta ETArekin zuen hartu-eman, aski kontraesankorra da. Aristokrata zen. Hark eta haren emazteak ez zuten ezkutatzen beren klasea. Zituzten arropak, manerak, neskamea... klase horretakoak ziren, eta zerbait errateko baldin bagenuen Monzoni, hortik tiratuz izan behar zuen. Hura aristokrata zen eta ezarri zuen genero istorio bat bezala. Txillardegi ere ageri zen goiko klasekoa zela, baina uko egin zien pribilegio eta bizimodu haiei. Egia da burgesa izateak arau zorrotzagoak dituela aristokrata izateak baino. Burgesen arauak segitzeko,

burgesekin bizi behar duzu. Aristokratek egin ahal dute nahi dutena, libreagoak dira.

Nola gogoratzen duzu Ximun Haran?

EAJko Iparraldeko ordezkaria zen. Ximun Haranek ukan zuen jarrera errefuxiatuekiko... hor bada irakurketa bat matxismotik abiatuz. Hau bai matxo alfa izan dela garai batean. Agerikoa zen. Haren teoria zen, eta gero IK-k hartu zuen: bakoitza bere etxean eta behiak ondo zainduak, frantsese-ko erran zaharretik dabilena –*chacun chez soi et les vaches seront bien gardées*–. Ez zuen nahi ETAk sudurra sar zezan Iparraldean, Iparraldea bere gauzatzat zuelako. Bakoitzak bere eremua zaindu behar duelako istorio klasiko hori bazuen bere irudimenean. Hauteskundeetan biok Enbatarekin aurkeztu ginen.

Gauza on asko egin zituen, hala ere. Merezi du ukan duen distira. Gauza izugarri ona egin zuen: kanta zaharrak gorde. Bereziki joan zen Alemaniara, magnetofoi baten erostera eta kontrabandoz pasatzera, bere diruarekin. Botika bat bazuen mugan, eta dirua ere bai ondorioz. Bertzenaz galduak leudekeen kanta anitz grabatu zituen, Zuberoan eta. Galtzeko zorian zeuden kanta haiek, eta horregatik bakarrik merezi du historian aulki on bat ukaitea.

Nork gehiagok izan zuen eragina zugan?

Argitxu Noblia. Hurbiletik ezagutu dudan lehen abertzalea Bordelen nintzela. Hura bere aitaren eraginez abertzaletu zen. Gero, Seaska sortu zuen hainbat familiarekin batera, tartean Jose Migel Muñoz, Monzonen iloba.

Kontzientzia abertzalea formatzeko, dagoeneko aipatutako Enbatako kideetatik aparte, hurbiletik ezagutu ditudan abertzaleek garrantzi handia dute denek. Alfonsok batez ere, azken hogeita hamabost urte hauetan. Aurretik ere ia abertzalea nintzen eta bada jende andana bat horrekin zerikusia duena: orain Miarritzeko zizelkari ospetsua baina jatorriz errefuxiatu pikaroa den Kepa Akixo; Eñaut Larralde

eta Etxamendi kantariak; Mixu Iraregi, ziburutarra sortzez eta Paristua, 45 urte gabe zendu zen argazkilari handia; Peio Iralur eta Kim laguna, Donazarreko nekazari bereziak, beti jende xumeen alde borrokan. Lagun izan ginen ere Manex Goienetxe historialariarekin. Jende biziki goxoa, jakintsua eta umila zen. Peixoto.

Eragin hartzaile deklaritzen naiz beti, onerako edo txarre-rako, orain artio bezala. Baina gehienik inpresionatu nindutenak, abertzalegoan sartuz, hitzak izan dira: aberria, iraultza, askatasuna... metaforaz ulertzera ematen dutelakotz abstrakzioa nondik datorren.

Eusteko indarra ematen omen dizute adiskidetasunak eta maitasunak.

Bai. Nekea da. Ni naizen mementoan sentitzen dut lagun anitzentzako atorrantea bilakatzen ari naizela oso. Garai batean bide berean geunden lagunak, orain besteek badi-tuzte haurrak, bakantzak, etxeak, eta nirekin politika ezar-tzea astun zaie. Gutxiago gonbidatzen naute orain. Berdin maite gara, baina urruntzen gara elkarrengandik, eta ez da biziki jenderik gelditzen politika horrela bizi duena. Al-

«Sentitzen dut *nire mundua* murriztuz ari dela. Nire inguruan ez dut hainbeste ikusten jendea nahi orokor eta kolektiboekin. Hori da indibidualistago bihurtzea»

datzen ari da. Ez dakit zerekin ordezkutzen duten hori. Futbola pasatu dira anitz eta erlijio gisa praktikatzen dute. Ez dakit Euskal Herriko politikatik no-ra joaten diren. Batzuk umeen heziketara, osasunera, eta hortik aparte bidaiak eta oporrak. Sentitzen dut *nire mundua* murriztuz ari dela. Nire inguruan ez dut hainbeste ikusten jendea nahi orokor eta kolektiboekin.

Hori da indibidualistago bihurtzea. Ziklo aldaketa honetan, jendeen gutizia indibidualistena, hausnartu behar litzateke.

Batzuen mesederako gertatzen da hori.

Noski. Izan ziu klase borroka ere galdu dugula; beraz, aurkakoek irabazi dutela. Kontsumoaren mesederako galdu dugu. Aberatsak bezala bizitzea –bezalakatzea, erran badaiteke–, helburu bat bilakatu da gehiengoarentzat, Euskal Herrian eta garatutako herri denetan. Eta helburu horrek, egiazko txakur-ametsa izaki, zorionerako beste bide guztiak tapatzen ditu.

Abertzaletasuna Iparraldean loratzen ikusi duzu zuk. Horren fruitua ere bazara neurri batean. Nola begiratzen diozu gaur egun egitura bateratuaren alde aktibatuta dagoen mugimenduari?

Nik ikusten dut hori, baina ber denboran nire burua hortik at ikusten dut. Egitura bateratua bide onean dago eta, lehen aipatutako «bidea da helburua» egia bada, hori ere goxatu beharko dugu. Umorea galdu gabe, urduritzeko asko ematen dutelakotz gure barneko etsai amorratuek frantseskeriari betirako ontsa lotuak gelditzeko. Aldiz, nire bizi moduaren markoa Euskal Herri osoko mapan kokatzen da.

Hainbeste erakundetan aritu zara, diziplinatua al zara?

Niretzako, diziplinak ez du lehentasuna. Adiskidetasunak eta konfiantzak bai. Batzuetan, diziplinatua behar da izan jende batzuekin konfiantza lortzeko. Konfiantza da gauza bat irabazten dena, ez da gauza bat ezerezetik jalgitzen dena. Konfiantza bai, maite dut. Diziplinatua Alfonso da. Hark badaki hitz gutxiarekin azaltzen hori: hark erraten du diziplinatua ez balitz ez zela bizirik izango bere buruak ez liokeelako eutsiko. Nik ez dut hain beharrezkoa diziplina.

Bularreko minbiziaren kontrako borroka, bederen, diziplinaz gainditu zenuen.

Esan zidaten banuela bi heren borroka hori irabazteko; tratamendua egin nuen osorik eta gainditu nuen. 1997an izan zen. Aski tumore handia ematen zuen, eta bular osoa behar

nuela kendu erran zidaten, baina nik ezetz: tumorea kentzeko ene baimena bazutela baina bularra kentzeko ezetz. Bertako ganglioak ere kendu zizkidaten, baina metastasirik ez zen. Oso azkar hazten ari zen, eta kimioterapiarekin hasi nintzen. Ez nuen nahi, baina anaiak erran zidan egiten ez banuen ahanzteko anaia bat banuela. Eta egin nuen.

Ginekologoak erran zidan behar nuela laguntza espiritual bat, sofrologia edo horrelakoren bat, eta hemengo sorgin bat xerkatu nuen. Sei hilabete pasatu nituen horrela. Minbizia nuela erran zidatarik, Alfonsori telefonoz deitu nion eta sei bat minutu egin genituen biok hipaka, negarrez, ezin mintzatuz. Paseo handiak egiten nituen egun haietan itsas bazterrean zakurrekin-eta. Neure buruari asko galdetu nion zergatik etorri zen hori, eta gainditu nuen. Bularra galdu gabe, gainera. Uste dut nire orduko bi *sorginek* –Zarauzko homeopata unilaterala bat eta Bidarraiko osteopata bestea– garrantzi handia izan zutela gainditze horretan, osasuna *oso* hitzetik datorrela ohartaraziz etengabe, naturala izan behar lukeen morala haziz.

Bizitza luzea denez, hamaikagarren proiektuan murgildu zara orain buru-belarri. Azalduko al diguzu nola sortu den?

Anaiak eta biok ukan dugun eta utziko dugun herentziatik has gaitzke. Gureak ez, kolektiboak direla uste dut. Guk ez dugu ondokorik ukan, eta ez nuke nahi gure ondasunak itzul daitezen frantses sistemari. Orduan, pentsatzen hasi ginen biok zer egiten genuen horretaz. Eta horrela sortu da fundazio bat egiteko eta gure esku-ematea merezi duen gai bat atzemateko asmoa. Jaiki Hadirekin horregatik sartu gara harremanetan. Horrela sortu da Abegi Fundazioa.

Zertarako?

Osatze etxe bat eskaintzeko tortura jasan duten pertsoneri. Aspaldi hasi nintzen torturatuak ezagutzen. Uste dut fenomeno izugarria dela hemen. Torturatuak izan direnik ere ez

dakigun milaka pertsona daude. Torturarena uste genuen gure gerlako beste atal bat zela, baina orain ikus daiteke zein neurritako zauria eragin duen. Istanbulgo protokoloa ere bada orain, tortura salaketen sinesgarritasuna neurtzeko. Oso garrantzitsua da test hori, torturatua izan zarela esatea delitu bihurtua dutelako egun, zure aurka bueltatzen delako. Horrez gain, torturatua izan den askok barruan darama hitz egiteko ezintasuna. Betirako. Trauma dute.

Orduan, torturatua izan den jendea osatzeko, sendatzeko, barnetegi gisa antolatu nahi dugu etxe bat. Bertan bilduko direnek beren gain hartuko dute etxeko jira. Hori izango dute pedagogia. Gainera, bada nazioarteko sare bat: IRCT Torturatuen Errehabilitaziorako Nazioarteko Kontseilua. Sare horretan sartu nahi genuke. Eva Forest zenaren bidez eza-gutu nuen nik IRCT. Danimarkan daude. Handik etorri zen mediku independente bat Mikel Zabalzaren autopsia egitera. Garai hartan auzi medikua Paco Etxeberria zen.

Tortura testigantzak biltzen ari da orain.

Bai. Milaka batzuk bildu dituzte dagoeneko, baina, zenbakiez haratago, Jaurlaritzak ez du pentsatu milaka horiek sendatzea eta erreparaziorik egitea.

Non izango du Abegi Fundazioaren etxea?

Domintxaineko plazan. Etxea txukundu behar da, eta, horretarako, auzolan taldeak antolatzea eta aurtien bertan lanean hastea da asmoa. Laguntza beharko da. Behin atea irekita, etxean egongo direnek aziendak eta lurrak ukango dituzte lanerako. Eta bizpahiru psikologo. Istanbulgo protokoloaren ezarpenean trebatzeko eta torturari buruzko liburutegia, agiritegia ezartzeko gunea ere izango da. Azken batean, gure herria oihal bat da, eta urratze bat gertatu da. Urratze hori behar da konpondu. 🍷

Besterik gabe

Asisko Urmeneta

Irudigilea

Nik jakixenat berbetan, mintzatzen, eleketan eta hizketan; komun askotan kaka egin jonat eta.

Felix Likiniano

Beste Aldea probokazioa zen, mapetan dena zuri agertzen zelarik, eta alta, mendi-lepotik ikusten genituela etxeak, bideak, jendeak. Inork ez du Beste Aldekoa izan nahi, baina oro gara Beste Aldeko, Beste Aldekoentzat betiere. Beste Aldean bizitzea etxean egotea da, baina etengabeko bidaian: legezko zerek epidermia sintetikoa janzen diote egunerokotasunari, lodiago edo meheago, itogarri ere artetan, letala usu.

Euskal nazionalistek batzarri egin ziguten euren inozotasun heroikoan: bi bozka gehiago. Haien ustez. Frantses nazionalistak funtsezko aferez arduratu ziren: «Badukek lanik herrian?», «Asurantza sozialak begiratzen hau?». Izan ere, Beste Aldea kontzeptu naturala da, kontzeptu politikoaren aurretikakoa: izate bat, egotearen gainetik. Balbina Ederrak: «*Gisa berean* da kebenkoa, *ber gisan* beste altekoa», Mauleko beharretara joan ohi zen uztarroztar langinaren elean. Menorkan katalana barra-barra entzuten da, ez da estonarik, turista gutiz gehienak itsasoz beste aldekoak, Bartzelona-koak baitira. *Qui paga, mana*. Hozta Miarritzeren pare dago

turisten etxebizitza-ehunekoan, etxeen erdiak arrotzen esku baitaude: Cognac, Bordele, Paris...

Alta, *Terra de Hostabarezio in Navarra* agertzen da 1300eta-ko paper ofizialetan. Eta gidaliburu mediebal batean Nafarroa dager *Navarre, ad Salva usque ad Lucronium*, hau da, Biarno-Salbaterratik has, eta Logroñorainoko Erresuma; Donapaleutik Vianara, B alderik gabe. Lauhire-n bat dagite Nafarroak eta Zuberoak eta Biarnok, eta bertan ikusi ditut Erresumako arma higuatuak antzinateko zedarrietan. «Nafarroako Erresuma bat eta bakarra da, eta ez da zatikatzen ahal», zioen garai hartako Foruak. Estatu forala bai hura. Baskeland, Baskistan bat munduan.

Beste Aldeak bere beste aldeak dakartza berekin: Gaskonia, eta Okzitania guztia, gehi frankofonia planetarioa, hau da, frantsesek tiranizaturiko herriak. Espainia after-inperialak, beste horrenbeste: Aragoi eta Gaztelatik haste, Andaluzia segidan, eta Latinoamerikako puska handia. Fabuloso da euskaldunaren bizitza: Bruselan ikasten ahal du, eta Quebec-eko laguna hartu, eta Toulonen eman bizitzen. Edo Buenos Airesen ikasi eta Madrilen familiatu, Beste Aldekoa bada. Hartzen dugun hatsa bezain naturalki. Ihitz hilabetetako paperreria egiten ari da Iruñean instalatzeko, B2 espainierazko azterketa barne. Beste Aldekoa baita, Oihenart bezain arrotza da Nafarroa okupatuan:

La voluntad de su majestad es que no se le muestren nada en los papeles que pide el dicho Oyanarte. Se procede con esta atención con los extranjeros, y mayormente con franceses, y en particular con quien tiene libro escrito 'De la Ynjusta Usurpación y Retención de Navarra por los Españoles'.

Ihitzek itzultzaile homologatu bati pasa eta paga egin behar dizkio Waloniako fakultateko paperak, espainieraz eman ditzan, eta hala, Iruñe okupatuan euskaraz egiteko bere klientekin. Kanboarra dela erran, eta funtzionarioak Kanbodiarra ulertu. Ipar Korellatik ez hain urrun haatik. Homologazioa

ibili badabil, izerdia bezain naturalki larraineko pikuondoan barrena. Castelaok zioen galegoak, kataluniarrak, euskaldunak ez gabela sekula espainiarrak izaten ahal, Herriaren Beste Aldeari uko egin gabe, zeinak erreferente gotorragoak baitauzka Espainiak bainoago. Gallop bisitari ingelesak berba batez definitu zuen euskal izaera: intsularitatea; Euskal Herria uharte. 1930a zen, eta *Frente Popular*-ak ez zeukan *Podemos*-en marketina. Espainiar konkistatzaileek, hasteko, argi zeukaten hiru mende atzerago: *Los más que andan con nombres de navarros nuestros son navarros de Francia, y todos uno, y la lengua misma*. Erdi Aroan, Beste Aldekoak ziren Erresumako populazioaren %10. Gortean, aldiz, ordezkapena hiru halako zen, goi mailako nobleen artean: Ezpeleta, Lakarra, Agramont. Sei mende honantzago ere, hor dauzka-gu diputazio probintzian Barkoxe, Mauleon, Beaumont.

Modan eman da Beste Aldeko izenak ematea sortu berriei: Etxaun, Eñaut, Maddi. Txema, Xanti, Maika.

Larreko idazten ari da bere egunerokoa, gordeka. «Norbaitek baleki zer idazten ari naizen... euskaraz». Kronikak Iruñeko klandestinitatetik:

Diario de Navarra-k dio euskal izenak ez direla arrotzak, Espainiakoak direla. Nik aldiz, mendiz hunaindian eta mendiz haraindian, izenak hemen bezala han. *Ergo*, hemengoak espainolak baldin badira, Franco jaunak Hitlerrek Sudeteekin bezala egin beharko du Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoarekin.

Espainiar bisorraiak, hasteko, ez zuen duda handirik egin Beste Aldeaz:

Don Enrique [II] de Labrit tiene en Tierra de Vascos [Nafarroa Beherea] que esta en su obediencia, y en Sola [Zuberoa] y Laborte [Lapurdi], que aunque son tierras de Francia no dexaran de seguille, mas de siete mill hombres.

Ospakizun nazionalerako data, oroiterraza: 10/10.

1527ko urriaren 10ean, lauhazka egotzi genituen espainiarrak Nafarroatik, betirako. Tira, Nafarroako parte batetik, nahi

bada. Baina egotzi. Flandriatik, Italiatik, Ameriketatik baino lehenago, hispaniar inperioa fueratua izan zen Beste Aldetik.

Eta estatu independentea berrantolatu egin zen, eta goi-funtzionarioei hizkuntz-eskakizuna ezarri: bai erregeren kontseilariak, bai eta erresumako fiskala ere euskaldunak behar ziren, legez.

Tuterako plazara agertu dira amikuztarrak: 2012an gaude, eta Konkistaren mendeurrena kari, ekitaldiak antolatu dira Nafarroa guztian. Aturriko fronteratik jinak direla, eta ohore Ebroko mugari, eta txalo, eta Kuntzuluren kantuek zerratu dute programa, eta txalo haboro. Nafarroa Bizirik-eko liberatu erdalduna etorri zait galdetzera ea motxila ematen ahal dionentz frantsesari. Kuntzuluz ari zen, Izura-Lakotegiko semeaz, zeinaren *Belarretan* himnoa traktore eta arditegi guztietako hit-paradean baitago.

Bestealdekotzeak bizi gaitu. Ohartu zarete zenbat peaje pagatu behar diren Herriaren zeharkatzeko? Baiona-Bilbo 4 sari: 17,60 €. Tuterba-Baiona 13,10 €. Ez dago peajea bezalakorik herri bat desegituratzeko. Horrexegatik da ez pagatzen Bil-

Bestealdekotzeak bizi gaitu. Ohartu zarete zenbat peaje pagatu behar diren Herriaren zeharkatzeko? Ez dago peajea bezalakorik herri bat desegituratzeko

bo-Castro edota Iruñea-Jaka. Urteak eman ditugu EiTB eskaka, ze gutirekin aski baitugu, halako tele eskaxa. Ukatzen zaigunaren isla baita Beste Aldea. Sekulako auto-ilarak zeuden atzokoan Baionatik irteteko. Euskadi Irratia piztu dut presoen aldeko manifaren balorazioa jaso nahian, baina ihardukitzea peajeren batean geldituko zen; Bilboko ekitaldia baizik ez dute aipatu. Segi-

dan, Espainia-zolako gertakari arruntez osatu dute albistegia. Alice pasatu zen ispiluz beste aldera. Pinocchio iragan zen su gibekeko harriaz bestera. Beste Aldekoak bakanetan iragazten du jadaneko ez dagoen aduana, eta iragazten baldin

badu, autoko depositoa bete, telefonoa ongi kargaturik, eta joan-etorri laburrean, ze... Norberaren herriko hiper-eroskiko parkineko karrutxotik ateratzeak, a ze estresa... Euroa eta oro ere: prezioak parekatzera ari dira, ezberdintasunak ezberdintasun. Kondoia garestiagoak dira (12,16 €) kapotak baino (8,75 €), eta babarrunak aisa merkeagoak (1,35 €) ilar gorriak bainoago (3,99 €). Beste Aldera telefonatzea Normandiara edo Leonera baino nabarmen karioago da, eta a ze numero pilo! Amatziren ahizpa autobusetik jaitzarazi zuen bere aitak, Baigorriko festetara zihoala, gazte denboran. Ba ote zen linea erregularra Elizondo-Baigorri? Ala jaietan baizik ez? Espainiak eta Frantziak adostu zuten herio-zigorra ezartzea mugarriak erazten zituenari. Inork erazi ote zuen mugarririk? 1659an eszenifikatu egin zen behin betiko zedarritzea Intzura Haundia uhartean: Bidasoa gainean, bi bazterretatik ekidistante. Intzura, Galopen intsula, okupatua. Ez baitakit ze estatus daukan geroztik: kinto indibisoa da, no jende's land? Ala erditik urraturik daukate *Conférence* eta *Faisanes* artean? Gauza da geroztik guti higitu dela mugaleroa.

Ozeanoz beste aldea, Beste Aldea dea? Lehu Egiazabal eletegia osatzen ari da, Ortzazeko bere ahaideekin konprenigailu:

Los diccionarios respetan la frontera política que divide a los vascos, quedando el léxico del norte fuera del alcance del castellano-hablante, ya que corresponde este a los diccionarios euskara-francés. Dicha frontera es religiosamente respetada tanto por vascos del sur o norte del Pirineo ignorándose mutuamente e impidiendo la construcción de una verdadera lengua nacional. Desde estos motivos nos hemos atrevido a realizar este vocabulario. Cerro de Montevideo, 2013.

Saiatu zarete *conciliar*, *dispensaire*, *connivence*, *recriminari* bilatzen elhuyar.eus eta nolaerran.org-en? Behatzaile inpartzialak erran lezake alde txipiagoa dagoela bi erdaren artean, Batuaren baitan baino. Xabi Payak ez omen daki nola itzul *riesgos y peligros* euskarara. *Peril* klasikoari eta Beste Aldeko *lanjer* biziari uko egiten die, kontzienteki. Berdin latinaren

mailegua den *arrisku* balekoa dauka, ez ordea nazioartearekin lotzen gaituzten beste biak; eta, honenbestez, Uruguain Euskara Batua daukatena, Euskal Herrian Bitua da.

Ni, pertsonalki, Beste Aldea ahazteak espainiarrago egiten nau. Castelao zuzen errotik: Beste Aldekoak arrozteak arrotzu egiten nau ni ere. Aria horretaz, Espainiak bozkatzera deitzen nauenean, Beste Aldeko naiz, eta binperrez. *Norte*-koaren ezaugarriak egozten dizkidatelarik, isila, langilea eta lanbrotsua naiz. *Sud-Ouest*-ekoa izateko, zalapartatsua, festagilea eta odolberoa behar naiz.

«Hau ez da Hego-Mendebala, hemen Ipar-Ekialdean zaudete» idatzi zuten, eta letra handiz, Donapaleuko gazteek *Musiques du Sud-Ouest* festibalean.

Adierazpen sana, naturala. Herriko alkateak ez die oraindik barkatu, suizidioan sinisten baitu. Gazte euskaldunena baldin bada betiere. Jakan euskara barra-barra entzuten omen da asteburuetan, oporretako etxea daukatenek hala diote; Landetan eta Castron fenomeno bera egiaztatua izan da. Kanpora joan gara gu gure Menorkaren xerka, asteburuetan euskara ozta-ozta bilatu beharra da Donapaleuko edo Lohizuneko ostatu eta karriketan. Autostopista hilaren eta baigorriar jendarme euskaldunaren pasadizorik entzun duzu inoiz? Laster batean jendarmeak izanen dira Beste Aldeko euskaldun bakarrak. Badakizu zerendako ez den euskaldunik Star Trecken? Gag ezaguna EHZn: etorkizunean pasatzen delako. Hoztako kontseilu berria elebiz hasi da komunikazioa igortzen herrikideei.

Lehentze. Eta lehentze ere herriko historian, kontseilu berraren bilerak erdaraz dira pasatzen orain.

Izena duen guztia ba omen da. Omen horretan datza arazoa, ezezagutzan. Ezagutu nahi da Beste Aldea? Interesa zaitgu egiazki, folklorada puntaletik harago? 2006ko inkesten arabera, aldeek ez dute interes bera erakutsi elkarri buruz; galdekaturik zein lurralde limitroferekin daukaten harreman

gehien, honatx nafartarren ehunekoak: 54 EAerekin, 17 Errioxarekin, 14 Aragoiekin... eta, azkenik, 4 pelatua Iparraldearekin. EAekoehunekoak: 36 Nafarroa Garaiarekin, 15 Kantabriarekin, 12 Burgos eta Errioxarekin... eta, hondarrean, 5 Beste Aldearekin. Iparraldeak, berriz, 33 Beste Aldearekin, eta, ondotik, 20 Landekin, 18 Akitaniarekin, 14 Biarnorekin... Duela sei urte proposatu nion sail finko bat *Noticias* egunkariari, Nafarroa Behereko errealitatea Beste Aldekoei hurbildu nahiz edo. Izena *Behertan* zukeen, eta kronika praktikoaren bidez

info baliogarriak eman nahi nizkion irakurleari, agenda laburra barne. *Me parece una propuesta interesante. Déjame estos días para que plantee al conjunto del Grupo si les interesa para a todos [sic] o si sólo nos la quedamos en Nafarroa. Te digo algo y valoramos periodicidad y demás.* Urtea eta hoxkaren ondotik idatzi nion berriz, berri zenbaiten emanez: Buzunaritze-Sarasketan diseinu-agentzia abiatua zuela Joana Ezpondak, Etxeparetik bistan: kom-on.net/eu; Donapaleuko Otsail Ostegunetako laugarren mintzaldia iragarri; bertako Libertimenduaren afixa ere igorri nion, eta deialdi bat desertu digitalaren aurka; Behauzeko eskola alternatiboaren abiatzearen berri, Domintxaineko trazabilitate-proiektua... eta horiek guztiak iragaten ari zirela Beste Aldeko irakurlearen ez jakinean. Desertu digitalean galdu bide zen erantzuna, eta trazabilitaterik batere utzi gabe. Bertze Aldekoak astotu egin dira, zioten aldudarek Eugikoen gainean. Euskara kentzearekin astotu. Berdin arrotzu. Euskaraz ariz ere, Beste Aldekoa ez da ulertzen. Hala erran zidaten Euskadi Irratian, lau bizilagun aritzeko ginela asteko egunaren arabera, herrialde ezberdinetakoak. Alde Honetako, denak.

Ezagutu nahi da Beste Aldea? Interesa zaigu egiazki, folklorada puntualetik harago? 2006ko inkesten arabera, aldeek ez dute interes bera erakutsi elkarri buruz

Goi-nafartarra da jasaten ahal den exotikoena, baina Beste Aldekoa? Urduritzen omen zen esataria, Batuaz geroztik 40 urte paseak ziren hartan.

Ordea, izan, izan, Beste Alderik ez da. Ez eta Alde Hau ere: alaba inskribitu dut Espainiako enbaxadan, Baionan, frantses suprefeturatik gertu: piper-potoa leihotik dilindan, CRSen usaiako furgona atarian. Haurra bi identitateren jabe; eta bakar bat zinezkoa baleuka bederen! Edo faltsuetariko bat ez erasotzaile behinik behin... Baina deus ez gara, ez alde honetan ez eta bestean ere: homologaziorik gabeko holograma, nazio foral, joko floral, presque country, hizkuntza erdi-Bitua. Nafarroa Garaiak bere komertzioa bideratzen zuen 1800etan: %62,3 hiru probintziekin; %37,2 Beste Aldearekin eta Europako ordokiarekin; Espainiarekikoa %0,5 zen artean.

«Nafarroan gari asko; batere, batere ez neretako», enperadorearen auhen ezaguna. Espainiak gero bi gerra irabazi zizkigun, komunalak saldu eta mutilak eraman eta aduanak bortuetara mugiarazi eta burbuila immobiliarioa donutsa bezain naturalki hazi zen gure labeetan, txuloa eta guzti. Harreman ekonomikoak sasiko egin ziren, gauez eta euskaraz Larrekok bezala, kontrabandoaren etiketapean; aduanero eta idazle arrotzak –batzuetan pertsona berak– aberastu egin ziren Lotilandia hartatik, ibar pirenaikoak krisi endemikoan hondoratzen ziren bitartean. Izturitzeko harpeetako gidak azaltzen du nola bertako cromagnonek itsasotik ekartzen zituzten txirlak, bertan landu eta ekoizpenok zabaldu gero kostaldean zehar, Matxitxakoraino. Turistentzako bere gag txipia egin du: Nazioarteko Inpo-Expoa, historiaurrean.

Aunitzetan, **Beste Aldeko euskalduna Beste Aldekoa da Beste Aldean ere**, eta euskaraz zuzentzen zaiolarik funtzionarioari, edo zerbitzariari, edo herrikideari, Beste Aldeko erdaraz jasotzen zein jasaten du errefera. Konkistaren ondoren, nafartarrei debekatu egin zitzairen Pariseko unibertsitatera jotzea. Herrian defendi zitzaielarik ezeingo ikasketarik.

Salamankako edo Zaragozako estudiante tunante, aukera demokratiko naturala izan da mendetan, tippexa bezainbat. Anaiaren ustez toreroa unibertsala da, artzaina txokokoa. Menturaz horrexegatik eman zioten *Vasco Universal*-aren saria. Lehendakariaren diskurtsoan ez zen Nazio hitza behin ere agertu, tradizio testatua ukanik ere: Euskaldunen Nazioa, *Nación Bascongada*... Herria berbaren arrastorik ere ez, nahiz ekitaldia horretarako biziro egoki zen. Txokoa bai, behin eta berriz, *siempre que puede vuelve al txoko*, eta horrelako. Nondik txoko, Lopez? Nongo bazterretik so eginik?

Bada Txoko eta Beste Aldea baino izendapen iraingarriagorik, hala ere. *Conjugación vasco-francesa*, Satrustegi akademiakoaren erranetan. Edo *la parte gabacha del Irati*, Orbaitzetako behinolako idazkariaren hitzetan. Hoztan, ETB1 Espainiako Telebisionia da, eta Lujanbio Espainiako Koblakari Onena. Nik doktrinatzten baitut izendapen okerraz, lortu egin dut Xan Gilenek erran diezadala Hegoaizeko.

La Reine Margot filma eman behar dute telean, eta *Euskaldunon Egunkaria* zeneko kazetariak ez du haren ohar laburrean aipatu Isabelle Adjanik daukala protagonistaren rola, Nafarroako erreginarena hau dela; edo Daniel Auteuilek Henrik III.arena egiten duela... Castingaren bederatzigarren posturaino jaitsi behar izan du hatza, guri errateko Miguel Bosék rol txipiñi bat jokatu duela. Andoaingo beste kazetari hura Jatsura etorri da Marko elkarrizketatzera. Azken hori sukaldera sartu da kafearen prestatzera, eta parada bali, kazetariak konfidentzia egin dio bere aldekoari: «Lekutan zagok hau, txo!». Lekutan. 69 kilometro. Ordubeta ez arras autopistaz. Marko jalgi egin da atzera ere, eta kazetariak jarraitu dio hitz egiten tontoa bailitzen, edo haurra, edo gorra, edo hirurak. Bedaxagarri ez zaio lekutan iruditzen Donostia, disko berria grabatzera abian denean. Elkar-ek teknikari erdalduna dio ezarri. 2015 urtean gaude, eta Jean Mixel Bedaxagarrek espainieraz bideratu behar izan du bere kreaio berria, Herrian, etxean, Europako Kultur-Hiriburu-tutzaren bezperan.

Euskara arraroa omen daukate Beste Aldekoek, Hegoaldeko gazteei eginiko inkestaren arabera. Hain arraroa, ze Maixan Minaberriren poesia elebiko argitalpenean eman izan baita, bi hizkuntza bailiren harena eta estandarra, parez pare ezarriak. Iduzkia=Eguzkia, Xoria=Txoria, Gatu=Katu. Iparraldeko idazle zenbaitzuek eletegi laburra gehitzen diote liburuari, eta beste batzuek arbuiatzen dute arraso beren hizkera, berdin Batua izanagatik ere, eta ahalik eta eurengandiko Beste Aldekoenaz egiten saiatzen dira. Saizarbitoriaren lanean, konparaziora, Beste Aldeko hizkeratik gehiago dago Landarten liburu berrian baino.

Argia aldizkariak ohiko irekitasunez hartu nau, Euskal Herriko Artzainen xedea gauzatzeko: *Okatxu* albuma. Mattin Irigoienek egin testuak ordea ez du Hizkuntz-arduradunaren aduana gainditu. «Besteren artean bortu hitzak zer esan nahi zuen ez nekien. Nere ustez, horregatik, hasierakoa da korapilatsuena ez nekielako ardiekin zer egin behar zuten baina gero ondo segitzen da istorioa».

Zer den estres linguistikoa Beste Aldearekin; zer, eta bortu=portu latinetik eratorritako hitza gorabehera. *Ultra Puertos. Saint Jean Pied de Port*. Bortua zer den ez jakiteak hura goratzen duela iruditzen zait. «Hori bai, globo batzuk (zerrendan jarri ditut) oso-osorik uler-tu gabe pasa zaizkit. Zenbat globo pasa ditzake irakurleak uler-tu gabe eta komikia irakurtzen segi?». Bilkura mamitsuak burutu genituen hizkeraren ebazteko,

Iparraldeko idazle
zenbaitzuek eletegi
laburra gehitzen diote
liburuari, eta beste
batzuek arbuiatzen
dute arraso beren
hizkera, berdin
Batua izanagatik ere

konpromisoak adostu, inork bere burua traizionatu gabe. Artzainek beren burua ezagutu gogo zuten albumean, eta Oionen ere ulergarri behar zen.

Batuaz behar zela bai, baina alde honetako ustez, *gira* eta *zira* negoziataezinak ziren.

Ezin ulertuz ibili naizen globoak:

- «Puaaa, berriz ere net blokatuak!»
- «Merkatuko aldi, Xantxot?»
- «Araiz, izialdura hontarik landa,...»

Zerrenda aisa luuuuuzego zen. Latinoamerikar idazleak, afrikarrak, ez al ditugu hedadura handiagoaz onartu izan, erdaraz irakurtzean? Berdin hiztegia ondoan ere. Biurdana institutuak komiki-irakurtaldia antolatu du Liburuaren Eguna-kari, 2013an. MLSKR! Patxiek (Gallego eta Zaldi Eroa), Unai Iturriagak eta lauok, bakoitzak bere albumetik.

Ez zen Beste Aldekorik, ez generoan, ez geopolitikan. *Gartxot* proposatu didate, Marko eta Jokinekin eginikoa.

Nik *Okatxu*-z kontratakatu, Mattin Irigoien eta Adurrekilakoaz: atera berri zen orduan, eta hizkera ekumenikoaz idatzia. *Gartxot* albumean, berriz, gure ustezko zaraitzueraz idatzia berreraikitzen saiatu ginen, arrakasta dudakoaz, 10 urte atzerago. Kronikarako: Iruñeko ikasleei kriptikoago egiten omen zaie Beste Aldeko hizkera ooooooso egokitua Batura eta bizirik dagoena egun eta hemen, XI. mendeko gure zonbi arrapiztua baino.

Maurik dio bortuak lehengo errepedeak zirela, eta itzaltzuarrek badakite zerbait bortuz, eta errepedez. Eta dialektoen isoglosak meridiano izan dira, eta ez paralelo. Orokieta daukagu Greenwich, eta Jauntsaratsetik emititzen du Esan-Erran irrati herrikoiak bezain heroikoak.

Garat uztariztar senadoreak bizpahiru departamendutan bildu nahi izan zituen euskal herritar guztiak, eta departamendu bakoitza bi aldeetako euskaldunez berrosatu. Xalbadorrek formula lirikoa eman zion xede hari: «Goi ta Beherik ez da enetzat, Nafarro bat da bakarra».

Ez du arras mendea, Mariano Mendigatxa deitu du Resurreccion Maria Azkuek Urdaitzeko bilkurara. Bertan, eskualdeko hiztunekin batzartuko da, haren ikerketa dialektologikoan abantzatzekotan.

Mendigatxak erantzun dio zahartu eta baldartu egin dela, eta ez diezaiokeela inolaz ere Bidankoze-Santa Grazi bide malkartsuari ekin... Oinez.

Mandoz ditu bortuak iraganen. 70 urterekin. 50 kilometro. 7 orduz. Ez zitzaion lekutan iruditu, nonbait.

Mogelek Beste Aldeko iheslari bat txertatu du pertsonaien artean, haren hizkeraz; eta ongi, sinesgarri. Begien aitzinean dauzkat Hunbelino eta Moises osaba zaharrak, Aturri aitzinean, Santu Espiritu auzunea hondoan daukatela, 1936an. Beharrik hor izan da Beste Aldea, bertara jotzeko iheska. Schengen aitzin, eta areago, Mitterrand aurretik. Baionan konspiratu izan da beti Kausaren alde; XVI. mendean gerotik, eta GonzALEZ arte. Beste Aldekoek poteoa, Batuaren ernamuina, ikastolak eta Olentzero ekarri zituzten berekin; hibridazio dialektala obratu zen, eurekaz eta haiekilan girelarik eta gagozenez. Xahok Gasteiz zeukan Beste Aldea, Txillardegik Hazparne, tiraniaren kontrako konspiragune.

Ils adorent le 64! dio herriko biarnesak, Korsikari buruz ari garela. Euskaraz erran lezake –baldin baleki– euskaldunok gaituztela itsuski maite. Lengoia bakoitza bere mapan ibiltzen baita hobekien: *Produit de France* dena, Euskal Herriko Ekoizpena da, Irulegiko arnoetan. Idiazabalgo gaztan, Euskal Herriko ardiaren esneaz egin dela dioen tokian, *hecho con leche de ovejas de Euskadi y Navarra* dio. Traduttore, trovatore.

Bizkaiko adieran, Beste Aldekoak izaten dira alboko bizilagunak, habitat biko etxean. Etxekonekoak, edo etxegozkiak, meridioaren arabera. Joxemiel Bidadorri pastoralak eskaini diote Iruñean, Mañueta gaineko plazan. Antologikoa. Hala ere, nago Joxemi zenak ez zuela kantarekin bat eginen: «Hizkuntzak leihora dira etxean, argi eta aire iturri / Gure etxeak bi ditu-eta, ez gaude horretan urri». Mantxuutu? Hiztegia eta iruditeria zehazte aldera: guk geure leihora badaukagu; horren bitartez mundua ikusten dugu, eta gure burua munduan kokatzen. Arazoa dugu, goiko auzoak sekulako zuloa

ireki digula etxeko sabaian, eta beheko auzoak zoruan, eta bi zuloz horietatik gaitzeko haize-zirimola sartu egin zai-gula etxean, eta gutxi egin du ez bagaitu guhaur ere hare-kin xurgatu, grabitaterik gabeko hutsera jaurtikiz. Bi leiho dauzkagula? Guk egin, bat eta bakarra. Beste biak butroi hutsak dira, pasabide inperialak tiranoak iragan daitezela gure intsularen okupatzera. Milurteko pogromaren jomuga gara, eta uhartearron arteko egiturak suntsitzea puntu nagusia da ezabatze programatu horretan. *Faisanetan* bi esparru administratibotan bereizi gaituzte, eta *Conférence*-n beste populu batekin nahas ezarri, gutxiengoan garela. *Gaizkileen* mugak bat egiten du bi *erkide autonomoen* artekoarekin, zortzirehun urteren itzulian, *Subserra* gorabehera. «Azke-nikan frantsesak itxi du fron-tera». 1836an bezala 1936an, ber orbana, ber ordaina. Zis-ma bikoitza, Vianatik Berara, eta Beratik Belagoara, eta hala ere, hala ere... Beste Aldekoa berdin etxekoneko, etxegozki. Frantziar Errepublika progre-sistak lau mila Beste Aldeko deportatu zituen, Beste Alde-

Milurteko pogromaren jomuga gara, eta uhartearron arteko egiturak suntsitzea puntu nagusia da ezabatze programatu horretan

koekiko harremanak eragozte helburu. *Es menester castigar el excesivo trato, comercio y conversación que tienen los de San Sebastián con los herejes de Francia*, espainiar inkisidoreak. Eduki ere, diagnostia zehatza dauka etsaiak: «Euskaldunak ez dira frantsesak ez eta espainolak ere, eta hizkuntza ezezagun batez dira mintzatzen: horratx lehen marka gaiztoa». Lancrek, aditua eta aritua zigor anizkoitzean. Soluzio Finala, hurrengo mendean: *Recommandons l'extirpation pure et simple du idiome basque. Endlösung*. Star Trecken historiaurrea.

Urte guttiz editatzen dira liburu berriak, gure artean zein ezberdinak garen erakusgarri. Euskaraz ez dut bakar bat ere aurkitu, ez eta ingelesez, alemanez, edota espainiera zein frantsesa ez den beste ezein mintzairaz idatzitakorik. Eta

halakoetan ez da sakontzen beste lan-hipotesi hainbatetan, adibidez zer ikusteko daukagun normandiarrekin eta leondarrekin. Hala ere, harrigarriena da nola oraindaino ere geure arteko harremanik aitoritzen zaigun, ukatzeko helburuaz bada ere.

Baina gu, guhaurko euskaldunok? Ze harreman daukagu urtearen eta uhartearen itzulian? Merkataritzan zein oporretan? Ikasketetan? Abenturetan? Kirolean? Sare eta zare sozialetan? Jaialdietan? Espioitza industrialean?

Prest ote gaude gutasunaren onartzeko, hantasunik gabeko Herrian? Paolik Korsika independentean bezala, gure *Isula Rossa* eraiki nahi dugu, B alde barik? *Lekutan* zein *bertan* kontzeptuak errebisatu?

Ohartuko gara inoiz etxeko leihoaz beste aldean dagoen hori ez dela geure burua baino, islan? Marrakukua ez dela Kukumarroa besterik? Estres sintetikoa gaingitu gogo dugu? Gai ote gara oraindik naturaltasunari behatzeko, ukazio luzearen ondotik? Eta, ikusirik banalitatean ez dugula asmatzen, oinarritzko atazetara pasatuko gara segidan?: tirano arrotzak ohildu, ohoin-zuloak tapatu, zedarriak etzanarazi gure burua berrosatzeko *visconte dimezzato* baten gisan, kanoikadek [bortu]bizkarra erdibitu ondotik; eta orbanak sendatu, leihoa zabaldu, eta Euskaldunen Nazioa biziarazi, gura dugun gisan, ostera ere.

Eni 2027ko urriaren 10erako ongi zait.

Hala, demokrazian bozkatzeko ahalko du alabak.

Gure zaharrak errana:

Guk errespetatuak izan nahi dugu Pirinioz bi aldeetan, bai Historiak ezarri gaituen bi estatuetan [kale], bai eta bihar euskaldunok ageriko dugun Super-Estatuan ere. 🍷

Euskal errefuxiatuak Iparraldean

Eguzki Urteaga

*UPV/EHUko Soziologia eta Gizarte Langintza Saileko
irakaslea eta Jakin Taldeko kidea*

Memoria eta errelatua aho guztietan dauden une honetan, ezinbestekoa da iragana objektibotasunez begiratzea, gertatutakoa bere osotasun, aniztasun eta gordintasunean ulertzeko, eta, iragana ulertzeaz gain, ez dadin errepikatu. Historia horretan, Iparraldean epe motz ala luzeagoan bizi izan diren euskal errefuxiatuek toki berezia betetzen dute, batik bat 1960ko hamarkadatik 1980ko hamarkadara arte.

Izan ere, bolada horretan, euskal errefuxiatuak bizitza politiko, sozial eta kulturalaren erdian kokatu dira, nahiz eta fase ezberdinak egon. Hain zuzen ere, hartu-eman zuzenen bidez, Ipar Euskal Herriko abertzaletasun garaikidea sortzen laguntzeaz gain, frantses estatuaren errepresioak sustengu mugimenduak eragin ditu, baita zenbait barne zatiketa ere, estatu terrorismoaren biktimak izan direla eta frantses zein espainiar estatuen arteko lankidetzaren ondorioak pairatu dituztela ahaztu gabe.

Abertzaletasun garaikidearen sorrera

Hain zuzen ere, Iparraldeko abertzaletasunaren sorrera (Malherbe, 1977) bertako herritarrek Hegoaldeko errefuxiatu

politikoekin mantendutako harreman eta eztabaidetatik bannaezina da. Gerra Zibilak (1936-1939) eta frankismoaren lehen urteek eragindako errefuxiatu uholdeak euskal kontzientzia suspertzeko baliagarriak eta hainbat kultur elkarteren sortzaile izan baziren, Oldarra abesbatza eta dantza elkarteak adibide zela, 1950eko hamarkadaren amaieran gertatutako uholdeak eragin politiko nabarmenak izan zituen. Izan ere, sortu berria zen ETAko (1959) hainbat kide, buruzagiak barne, Ipar Euskal Herrira joan ohi ziren, bertako militante gazteekin harreman zuzena edukiz (Urteaga, 2004: 12). Ondoren Enbatako kide izango zirenen eta ETAko zenbait buruzagiren artean harreman zuzen bezain ugariak suertatu ziren. ETAk, Enbataren bitartez, aukera ikusten zuen batasun nazionala bultzatzeko eta Euskal Herri osoa askatzeko.

Hori zela eta, bai Txillardegik bai Julen Madariagak Enbata erakunde politikoaren sorrera ekitaldian parte hartu zuten. Itxasun antolatu zen 1963ko apirilaren 15ean, Aberri Egunaren kari. Bostehun pertsona inguru egon ziren ekitaldi horretan: Enbatako sortzaileez gain (Davant, Larzabal, Labegerie, Abeberri, Burukoa eta Haran), Etxeberri-Aintxart eta Errekarte bezalako hautetsi zein jauntxoak, Europako gutxiengo nazionalen ordezkariak eta euskal errefuxiatu politikoak zeuden: bai ETAko kideak bai Telesforo Monzon (Cassan, 1997: 137).

Euskal errefuxiatuekin mantendutako harreman estuak baliagarriak izan zitzaizkien erakunde politiko bat antolatzeko, baita ere ideologia koherente batez hornitzeko (Forné, 1990) eta egitasmo politiko zehatz bat osatzeko. Izenpetutako Itxasuko Agiriak (Davant, 1986) zioen euskaldunak zirela lurraren, hizkuntzaren eta ohituren aldetik eta nazio bat osatzen zutela iraganeko zein gaur egungo borondatearen izenean; baita ere demokrazia bat zirela naturaz eta historiaz. Era berean, batzeko eta erabakitze eskubideak aldarrikatzen zituzten. Oinarri horietatik abiatuz, eskubide horietaz kontziente izanik eta herriek zeukaten autodeterminazio eskubide unibertsalaren izenean, beraien erabakigarritasuna adierazten zuten,

nazioaren antolakuntzaren eta ezagupenaren bidez demokrazia erabat gauzatu, bateratuta zegoen Euskal Herriaren bitzitza eta jarraitutasuna bermatzeko (Urteaga, 2004: 14).

Errepresioaren areagotzea eta elkartasun mugimendua

Urte gutxi batzuk lehenago, frankismoa kanpoari zerbait ireki zitzaion (Hermet, 1992) eta Frantziarekin harreman politiko eta ekonomikoak garatu zituen. Testuinguru horretan, frantses gobernua Iparraldean kokatuta zeuden euskal errefuxiatuen aurkako neurri administratiboak hartzen hasi zen, hala nola, bizileku asignazioak, egonaldi debekuak eta kanporaketak. Horrela, 1964ko azaroaren 17an, Frey Barne ministroak ETAko buruzagien aurkako urruntze erabakia hartu zuen; horien artean zeuden Txillardegi, Madariaga, Benito del Valle ala Irigarai. Eta 1965ean lehen epaiketak hasi ziren (Cassan, 1997: 203), besteak beste armak, dokumentu faltsuak eta ezkutuko argitalpenak edukitzeagatik. Esaterako, Madariaga sei hilabeteko kartzela zigorrera kondenatu zuten. Iparraldean zeuden euskal errefuxiatuen aurkako errepresioa areagotuz joan zen, batik bat 1969an frantses eta espainiar gobernuek lankidetzaren hitzarmen bat izenpetu ostean, ETArekin jardueraren mugaren bi aldeetan oztopatzeko asmoz. Eta 1970ean gertatu zen Burgosko epaiketaren nazioartean eta beraz Frantzian oihartzun itzela eduki bazuen (Halimi, 1971), frantses gobernuek euskal errefuxiatuen aurka zeraman gudua jarraitu zuen. Horrela, 1963 eta 1971 bitartean, 59 kanporatze egon ziren, horietariko 35 1972an (Cassan, 1997: 203).

Iparraldean zeuden euskal errefuxiatuen aurkako errepresioa areagotuz joan zen, batik bat 1969an frantses eta espainiar gobernuek lankidetzaren hitzarmen bat izenpetu ostean

Errepresio horren ondorioz, Frantzia osoan 300 euskal errefuxiatu inguru bizi ziren; horietariko gehienak Ipar Euskal Herriari zeuden, eta beste horrenbeste Europako hainbat herritan erbesteratu ziren, batez ere Belgikan, Alemanian eta Suitzan. Egoera horrek euskal errefuxiatuen aldeko mobilizazioak piztu zituen (Urteaga, 2012: 1.065), funtsean hiru itxura hartuz: gose-grebak, manifestaldiak eta informazio kanpainak.

Sei gose-greba izan ziren 1970 eta 1974 bitartean: 1970eko martxokoa, 1971ko maiatzekoa, 1972ko urri eta azarokoa eta 1974ko urtarril zein otsailekoa. Ondoren, beste bi gertatu ziren, hots, 1976ko gabonetakoa eta 1984ko urtarrilekoa. Zortzi gose-greba horiek eragin handia eduki zuten Ipar Euskal Herri osoan eta, abertzaleetatik at, hainbat sektoreren begikotasuna eta elkartasuna piztu nahiz agerrarazi zituzten. Zentzu horretan, 1972ko urrian izandako gose-greba esanguratsua izan zen, zeren, 1972ko urriaren 8an, Aldizkari Ofizialean ministerioaren erabaki baten berri ematen zen zeinen arabera ETA erakundea debekatuta zegoen frantses lurraldean (Urteaga, 2012: 1065). Gazte abertzaleek esku-hartze handia eduki zuten, pixkanaka, informazio lanaren ondorioz, gose-greba geroz eta herrikoiagoa izatea lortuz. Hain zen egia, non hiri eta herri ezberdinetara hedatuko zen, Baionaz gain Donapaleu, Maule ala Zokoa aipa zitezkeelarik. 1974ko urtarril eta otsaileko gose-grebaren kasuan, ETAk Carrero Blanco hiltzeak sortutako errepresioari aurre egitea zuen helburu. Hortik aurrera, espainiar gobernuak frantses gobernuari presio nabarmena egin zion azken horrek errefuxiatu politiko batzuk bota zitzaizkien, oihartzun handiko gose-greba piztuz eta bretoi nahiz flandriarren elkartasuna lortuz.

Sustengu manifestaldi eta elkarretaratzeei dagokienez, anitz izan ziren, bereziki Burgosko epaiketaren garaian. Ostean, 1971ko Aberri Eguna Donibane Lohizunen ospatu zenean, eta prefetak debekatu ondoren, ehunka gazte bildu ziren. Izandako liskarren ondorioz, Txillardegia eta Monzon Ipar Euskal Herritik urrunduz zituzten; une berean, hainbat militante abertzale epaitu zituzten, isun zein bete gabeko kartzela

zigorrek jasanez. Halaber, 1972ko otsailaren 22an, abertzale erakundeek bat-bateko manifestaldi bat egin zuten Baionako Herriko Etxearen aurrean, kanporatze mehatxu berriei aurre egiteko asmoz. Bestalde, 1972ko gose-grebei elkartasuna adierazi nahiz, bi manifestaldi anolatu ziren Baionan, 1.200 eta 2.000 pertsona bilduz.

Azkenik, anitz informazio kanpaina izan ziren (Urteaga, 2012: 1.066). Jadantik 1969an, preso politiko batzuen heriotza-zigor mehatxuak zirela medio, Enbata zein PSUk ekimena hartu zuten. Urte horretako uztailearen 29an, *Front de lutte du Pays Basque contre la répression franquiste* taldea Baionan sortu zen, Enbata, ETA, PSU, PS, MFE eta Humanité Rouge erakundeak bilduz. Eta fronte horrek informazio kanpaina indartsu bat bultzatu zuen Hego Euskal Herriko torturari buruz bereziki eta errepresio frankistari buruz oro har, kartelak eta artikuluak hedatuz. Aldez aurretik, Enbatak Iparraldeko iritzia publikoa sentikortu zuen (Urteaga, 2004: 15), gai horiei buruz zenbaki berezi bat argitaratuz.

Errefuxiatu estatusaren galera

Francoren heriotzaren ostean (Goulemot Maeso, 1989), euskal errefuxiatuek pairatzen zuten errepresioak gora egin zuen. Izan ere, 1976an, 80 errefuxiatu Iparraldetik kanporatu eta Frantziako hainbat eskualdetan asignatu zituzten, Île d'Yeu adibide zela. Ondorengo bi urteetan, errepresioa areagotu eta aniztu zen, zeren, alde batetik, atxiloketak eta zigorrak ugaritu ziren eta, beste aldetik, espainiar polizia zuzenean errefuxiatuak ematen zitzaizkion (Cassan, 1997: 203).

Baina aldaketa nagusia 1978ko espainiar konstituzioaren onarpenaren ostean gertatu zen. Hain zuzen ere, hortik aurrera, Frantziako gobernuak kontsideratu zuen Espainia demokrazia parlamentario bat bilakatu zela eta, ondorioz, ez zeukala gehiago zentzurik euskal aktibistei errefuxiatu estatusa ematea. 1979ko urtarrilaren 30ean plazaratutako komunikatu baten bidez, frantses Atzerri Ministerioak zioen

espainiar herritarrei errefuxiatu estatusa kenduko zitzaiela (Cassan, 1997: 204). Hortik denbora gutxira, errefuxiatuez arduratzen zen OFPRA erakundeak, eskutitz bidez, euskal errefuxiatuei jakinarazi zien beraien errefuxiatu estatusa galdu zutela. Une berean, Espainiako gobernuaren presiopean, frantses gobernuak, hainbat atxiloketa burutzeaz gain, kanporatze erabakiak hartu zituen. Guztira, 1979 eta 1981 bitartean, 200 kanporatze-erabaki hartu zituen.

Beraz, paperik gabe zeudenez, kanporatze erabakipean zirenez, ez zeukatenez lan egiteko baimenik eta polizia frantsesak atxilotu zitzakeenez, euskal errefuxiatu asko klandestinitatean sartu ziren.

Abertzaletasunaren zatiketa

Euskal errefuxiatuek jasaten zuten errepresio geroz eta latzagoak tentsioak sortu zituen Iparraldeko abertzaletasunaren baitan (Urteaga, 2004: 22) eta bi erakunde armatu nagusien artean, alegia, ETA eta Iparretarrak-en (IK) artean. Izan ere, Iparraldeko mugimendu abertzalearen zati batek kontsidera-

Errefuxiatuek jasaten zuten errepresio geroz eta latzagoak tentsioak sortu zituen Iparraldeko abertzaletasunaren baitan eta ETA eta Iparretarrak-en artean

tzen zuen ordua etorri zela Iparraldeari propioak zitzaizkion problematikak lantzeko, hala nola, Ipar Euskal Herriaren erakundetzea, euskararen ofizialtasuna, garapen industrialala ala justizia soziala. Hori zela eta, mobilizazio abertzalea ezin zitekeen soilik euskal errefuxiatuen babesaren inguruan antolatu, baizik eta, esaterako, bere biziko garrantzia zeukan turismoaren eta etxegin-

tza espekulazioaren inguruan. Era berean, ETAk Hegoaldean zeraman borroka armatua bezala, IK-k (Moruzzi eta Boulaert, 1988) antzeko gudua eraman behar zela zioen, bakoitzak bere bidea jarraituz, Euskal Herri askatu eta bateratu bat lortzeko.

Abertzaletasunaren beste zati batek, ordea, pentsatzen zuen lehentasuna Hego Euskal Herriaren askapenari eta errefuxiatuen babesari eman behar zitzaie (Urteaga, 2004: 23). IKren *Erne* barne aldizkarian irakur zitekeen bezala: «arazoak agertu ziren batzuek erabaki zutelarik, behingoz eta denentzako, fronte bakarrean borrokatu behar zela, fronte bakarra noski Hegoaldekoa zelarik eta Iparraldea betiko sakrifikatua». Hori zela eta:

Iparraldekoak eta Hegoaldekoak batu beharko lirateke espainiar estatuaren aurka borrokatzeko, frantses estatuko santuarioa babesteko eta atentatuak prestatzeko babesgunea izaten jarraitzeko. Behin Hegoaldea askatuta, gauza bera egin beharko litzateke Iparraldea askatzeko.

Une horretan, fronte bakarraren alde zegoen zatia oso kezkatua zegoen euskal errefuxiatuek pairatzen zuten geroz eta errepresio handiagoarekin, baita ere frantses poliziaren presentzia nabarmenarekin. Horrek, atxiloketak, kartzelaratzeak eta kanporatzeak ugaritzeaz gain, ETako kideen mugimenduak eta jarduerak zailtzen zituen.

Bi gobernuen arteko adostasuna

Testuinguru horretan, Frantziako Alderdi Sozialista boterera iritsi zenean (1981), bi aurpegi ezberdin erakutsi zituen. Hasiara batean, alegia, hauteskunde presidentzial eta legislatiboak irabazi eta denbora gutxira, 1981eko abuztuan hain zuzen, Frantziako Asanblea Nazionalak Estatuaren Segurtasun Korte (Auzitegi Gorenaren baliokidea) bertan behera uztea erabaki zuen. Erabaki hori Amnistia legearen 2. artikulua baitan kokatzen zen, zeinek zioen «estatuaren autoritatearen gauzapena oztokatzen duen edozein joerari loturiko infrakzioak» amnistiatzen zituela (Quadruppani, 1989: 133). Halaber, kontuan izanik euskal gatazkaren atzean motibazio politikoak zeudela, Espainia demokrazia gazte bat zela eta torturaren erabilpena egiaztatuta zegoela, François Mitterranden lehen gobernuak, Pierre Mauroy lehen ministro zela,

uko egin zion euskal errefuxiatu eta presoak estraditatzeari. Jarrera hori ulertzeko, gogoan izan behar da, oposizioan zegoen bitartean, Alderdi Sozialistak kritikatu zuela euskaldunei errefuxiatu estatua kendu izana. Horrez gain, 1981eko hauteskunde presidentzialei begira, Alderdi Sozialista eta EHAS alderdi abertzalea akordio batera iritsi ziren, azken horrek hautagaitzarik ez aurkeztearen truke, Alderdi Sozialistak euskal departamendu bat sor zezan (Urteaga, 2004: 21).

Aitzitik, batez ere PSOE Espainiako gobernura iritsi ostean (1982an), bi gobernuen arteko harremanak aldatu ziren. Bi alderdiak Internazional Sozialistako kideak izateaz gain, beraien buruzagiek elkar ezagutzen zuten eta harreman nahiko estuak zeuzkaten. Hori zela eta, 1982ko azaroaren 10ean, Frantziako Ministro Kontseiluak komunikatu baten bidez jakinarazi zuen asilo eta estradizio eskubidea arautzen zuen politika aldatzen zuela (Cassan, 1997: 232) eta, hortik aurrera, erabakiak irizpide berrien arabera hartuko zirela, esan nahi baita ETAko kideen ekintza eta jardueren motibazio politikoa ez zela gehiago kontuan hartuko. Baina aldaketa hori benetan indarrean sartu zen 1984tik landa, Laurent Fabius lehen ministro bilakatu zenean. Hain zuzen ere, 1984ko irailaren 26an, lau euskal preso estraditatu zituzten (Cassan, 1997: 235). Hortik aurrera, errefuxiatuen estradizioak biderkatu ziren eta beraien aurkako gudua sistematizatu zen. Jarrera aldaketa horretan, François Mitterrand eta Felipe Gonzálezek 1983ko abenduaren 20an eduki zuten bilkura erabakigarria izan zen. Bilkura ofizial horretan, agintari espainiarrak frantses presidenteari eskatu zion Frantziak ez ziezaien inongo babesik eskaini euskal errefuxiatuei eta ETAko kideak atxilotu eta estraditatu zitzaizkien. Jacques Attali (1992) Mitterranden aholkulari bereziaren arabera, egun horretan bi agintariak adostasun batera iritsi ziren euskal errefuxiatuen inguruan.

Akordio horren ondorioak laster ikusi ziren, 1984ko urtarilaren 10ean 17 errefuxiatu atxilotu baitzituzten: hamaika errefuxiatu Frantziako hainbat eskualdetan asignatuak ziren

bitartean, gainontzeko seirak bat-batean kanporatu zituzten (Cassan, 1997: 238). Era berean, prefetek Barne Ministeriotik jaso zuten eskutitz baten arabera, hortik aurrera errefuxiatu estatusa eskatzen zuten euskal herritarrei sistematikoki ukatuko zitzaien Frantziako hego-mendebaldeko bederatzita departamenduetan egoteko eskubidea. Eta, 1984ko urrian, debeku hori Britainia eta Normandiara hedatu zen. Horrela, sei hilabeteko epean, 18 euskal errefuxiatu asignatuak izan ziren eta beste 26 kanporatuak. Horrez gain, egonaldi baimenaren iraupena murriztu zitzaien eta erregulariki prefekturara joan behar zuten beraien egonaldi-eskaera berritzeko, beraien kontrola erraztuz. Halaber, 1983ko udaberriaz geroztik, hiru hilabete baino gehiagoko egonaldi baimena ez zuten errefuxiatuei, gehienei, alegia, etxebizitza eta familia laguntzak jasotzeko eskubidea ukatzen zitzaien (Cassan, 1997: 240).

Zalantzarik gabe, Frantziako gobernuari presio egiteko tresna eraginkorrena GAL erakundea sortzea, diruztatzea eta laguntzea izan zen

Estatu terrorismoa

Zalantzarik gabe, Frantziako gobernuari presio egiteko tresna eraginkorrena GAL erakundea sortzea, diruztatzea eta laguntzea izan zen. GAL ez zen lehen erakunde parapoliziala izan, 1976az geroztik sigla ezberdinetako taldeek (GAE, AAA, ANE, ATE, Guerrilleros del Cristo Rey ala BVE) euskal errefuxiatuen aurkako hainbat atentatu burutu baitzituzten. Lehen atentatua 1976ko martxoaren 21ean burutu zuten Donibane Lohizunen ETako kide baten eta bere familiaren aurkako eraso batean: emaztea eta haurrak larriki zaurituak izan ziren. Baina, atentatuak biderkatu ziren 1978ko uztailetik gora, ETako buruzagi bat larriki zauritua izan baitzen eta bere emaztea hil zelako. Urte bereko abenduaren 21ean,

Batallón Vasco Españolko komando batek Jose Migel Beñaran *Argala* ETako buruzagi historikoa autobomba baten bidez hil zuen. 1979 eta 1980 bitartean, guztira hamaika euskal errefuxiatu erail zituzten eta hamarka pertsona larriki zauritu (Cassan, 1997: 285).

GAL erakunde horien jarraipenean kokatu zen, 1983 eta 1987 bitartean 27 pertsona hilez eta 30 pertsonatik gora larriki zaurituz. Hain zuzen, 1983ko urriaren 16an Tolosako bi errefuxiatu gazte bahitu zituzten eta, 1984ko urtarrilaren 20ean, beste bi errefuxiatu hil ostean, GALEk Lasa eta Zabala bahitu eta hil zituela aldarrikatu zuen (Cassan, 1997: 287). Plazaratu zuen komunikatuan, GALEk adierazten zuen ETAk egindako atentatu bakoitzak berehalako erantzuna edukiko zuela eta biktima bakar bat ez zela erantzunik gabe egongo. Era berean, zioen frantses estatuak ETako kideei aukera ematen ziela «inpunitate osoz» bere lurraldean egoteko. 1984an, guztira bederatzi pertsona erail, hamaika zauritu eta bi bahitu nahiz torturatu zituen, baita ere hamar bat sute, bomba eta tiroketa burutu. Atentatu gehienak taberna eta kooperatiba abertzaleetan, ETako kideen etxeetatik gertu ala kalean bertan gertatzen ziren (Cassan, 1997: 290). Orduan, hainbat kazetari eta behatzaile ohartzen hasi ziren atentatu horiek Frantzia eta Espainiaren arteko harremani estuki lotuak zeudela (Cassan, 1997: 290) eta Espainiako estatuak zerikusi zuzena eduki zezakeela.

Nahiz eta 1984an Frantziak euskal presoan estradizioak hasi, GALEk jarduera armatuarekin jarraitu zuen. 1985a bereziki odoltsua izan zen, 16 atentatutan hamaika hil eta beste hamar pertsona larriki zaurituak izan baitziren, biktimen artean naziotasun frantsesa zeukaten lau herritar zeudela (Cedri, 1989: 59). Geroz eta gehiago, tabernen tiroketak eta bonbazko atentatuak burutzen zituen. Helburua Iparraldeko biztanlerian ahalik eta beldur handiena sortzea zen. Zalantzarik gabe, 1985eko urriaren 25ean Monbar Hotelaren aurka burututako erailketak sortu zuen astindurik handiena, bai euskal errefuxiatuen artean bai Ipar Euskal Herri osoan,

bertan lau errefuxiatu ezagun hil baitziren. 1986an atentatuak murriztu ziren, batik bat eskuinak urte horretako hauteskunde legislatiboak irabazi zituelako. Hortik aurrera, frantses gobernu berriak euskal errefuxiatuen eta presoek aurkako borroka gogortzea onartu zuen, beti ere Espainiako gobernuak GAL sustatzeari eta diruztatzeari uko egiten bazion. Izan ere, Charles Pasqua Barne ministro izanik, euskal errefuxiatuak kopuru handian espainiaratu zituzten eta frantses poliziaren presentzia nabarmen areagotu zen Iparraldean.

Lankidetzeta eta errepresioaren aukera


Jacques Chirac-en gobernuak eta ondorengo agintariek, eskuinekoak ala ezkerrekoak izan, Espainiako gobernuarekiko lankidetzeta estua mantentzearen eta errepresio politika gauzatzearen apustua egin zuten. Hain zuzen ere, 1992ko otsailaren 14an, Pirinio Atlantikoetako prefetak iragarri zuen bezala, estatu frantsesak helburu nagusi bat zeukan: ETaren aurkako borroka determinatu eta egonkorra (*Sud Ouest*, 1992: 20). Hamar urtean, Iparraldean kokatutako polizien kopuruak nabarmen egin zuen gora. Horrela, 1986an, 1.400 polizia inguru zeuden Iparraldean, gobernu frantsesak polizia judiziala zein zerbitzu sekretuak bereziki indartu baitzituen. Espainiari bere prestutasun eta borondate ona erakutsi nahian, frantses gobernuak segurtasun neurriak behin eta berriro indartu zituen. Egindako indarra hain zen handia, ezen, 1992an, Marchand Barne ministroak zioen 2.000 polizia Ipar Euskal Herrian kokatuta zeudela ETaren aurka borrokatzeko (*Enbata*, 1992: 4).

Halaber, justizia-sisteman aldaketak nagusitu ziren. Izan ere, Estatuaren Segurtasun Korteak desegin bazuen, Frantziako gobernuak magistratu bereziz osatutako zigor auzitegi berezi bat sortu zuen borroka armatuari loturiko kasuak epaitzeko (Cassan, 1997: 176). Gainontzeko auzitegiak ez bezala, zigor auzitegi hori apelazio auzitegiak izendatutako lehendakari batez eta beste sei magistratuz osatua zegoen. Auzitegi horrek ibilmolde berezia zeukan, oso zigor larria jarri

baitzezakeen gehiengo sinplearekin, zigor auzitegi arruntek gehiengo kualifikatua eskatzen zutenean. Halaber, euskal errefuxiatuen kasuan, borroka armatu kasuetan murgilduta zeuden delituak Parisko auzitegi korrekzional berezi batek epaitzen zituen. Horren bidez, kartzela prebentiboaren iraupena luzatzeko aukera zeukan, baita ere preso zeuden errefuxiatuak Ipar Euskal Herritik urruntzeko (Cassan, 1997: 177).

Geroztik, ETaren eta euskal errefuxiatuen aurkako borrokan, bi gobernuak estrategia berari eutsi diote.

Egia ezagutzeko premia

Beraz, memoria eta errelatu askotariko baina partekatu bat sortu nahi bada, ezinbestekoa da, gutxienez 1936tik gaur egun arte gertatu denaren kontakizun zorrotz bezain zintzo bat egitea, euskal gatazkak sortutako sufrimenduak onartuz eta konponduz. Hori egin ezean, edo errelatu ofizial bakarra inposatzeko tentazioan eroriz gero, zauriak ez dira itxiko, gorrotoak elikatuko dira eta etorkizunean gatazka berpizteko arriskua egon daiteke. Helburua gure seme-alabek gure gurasoek eta aitona-amonek pairatu dutena ez bizitzea bada, premiazkoa da ausardiaz jokatzea. Hurrengo belaunaldiek ez ligukete barkatuko ez lortzea, eta horretarako gutxienez saiatu behar da. 

Bibliografia

- Attali, J. (1992): *Verbatim 1 1981-1986*. Paris: Fayard.
- Cassan, P. (1997): *Le pouvoir français et la question basque*. Paris: L'Harmattan.
- Cedri (1989): *Le GAL, ou le terrorisme d'État dans l'Europe des démocraties*. Ikerketa txostena, 1989ko otsaila-ekaina.
- Davant, J.-L. (1986): *Histoire du peuple basque. Le peuple basque dans l'histoire*. Baiona: Elkar.
- Enbata* (1992), 1992-01-04.
- Forné, J. (1990): *Euskadi. Nation et idéologie*. Tolosa: CNRS.
- Goulemot Maeso, M. (1989): *L'Espagne. De la mort de Franco à l'Europe des douze*. Paris: Minerve.
- Halimi, G. (1971): *Le procès de Burgos*. Paris: Gallimard.
- Hermet, G. (1992): *L'Espagne au 20ème siècle*. Paris: PUF.
- Malherbe, J.-P. (1977): *Le nationalisme basque en France (1933-1976)*. Doktoretza tesia, Université de Toulouse 1.
- Moruzzi, J.-F. eta Boulaert, E. (1988): *Iparretarrak. Séparatisme et terrorisme en Pays basque français*. Paris: Plon.
- Quadruppani, S. (1989): *L'antiterrorisme en France ou la terreur intégrée 1981-1989*. Paris: La Découverte.
- Sud Ouest* (1992), 1992-02-15.
- Urteaga, E. (2004): *La question basque en France*. Tolosa: Milan.
- (2012): 'Ipar Euskal Herriko mugimendu abertzalearen historia politikoa (1963-1981)', *Vasconia* 38, 1.055-1.077.

EGUNEN GURPILEAN

109 Kultura

DSS2016 eta parte hartzea.

Sarean zuloa

Bertso Eguna. Feminismotik sarea josten

Maskaradak, *buhaminak* eta
ikusezintasuna

Miren Artetxe

115 Ekonomia

Mundua biran... buruz behera!

Errefuxiatuak Europako gotorlekuan

Petrolioaren merkatuan, egoera

aldakorrak norabide askotarikoak

Foru Gobernuaren duda-mudak

Henrike Galarza

122 Soziolinguistika

Hizkuntza politika ausarta ala hizkuntza
komunitate indartsua?

Itxaron genuen

Militantzia

Txerra Rodriguez

128 Telepolis

Chromecast trantsizioa

Ziborgak gara

Parte hartze plataforma herritarrek

Gorka Julio



Kultura

Miren Artetxe

DSS2016 eta parte hartzea. Sarean zuloa

Hasi bada hasi da. Donostia Europako Kultur Hiriburu dugu, jaun, andere eta bestelakook. Aspaldi sartu zitzaigun kontzeptua begi-belarrietatik, baina, hasi behar zuen eta hasi da. Giza eskubideak, elkarbizitza, elkartasuna, identitatea eta aniztasuna; prozesua eta legatua. Eta arrapaladan etorri dira danbor hotsak, pantaila erraldoiak, argiak, zubiak, topak eta brindisak.

Eta ez dezagun gure burua engainatu. Ez bageunden jakinaren ganean, jakin nahi izan ez dugulako da. Kultur Hiriburutzak eragin kulturala –eta, beraz– sozioekonomikoa izango du datorren urtetik aurrera ere, eta ez Donostian soilik. 2016 Desokupatu mugimenduak gonbidatuta Euskal Herrian izan zen Manuel Delgado antropologo katalanak horrela laburbiltzen ditu hiriburutzaren ondorioak 2015eko maiatzean eginiko elkarrizketa batean: prozesu honen legatua hiri garestiago, eksklusibo, eta, beraz, baztertzaileagoa izango da. Bistan da lotura giza eskubideekin, elkarbizitzarekin, elkartasunarekin, aniztasunarekin eta identitatearekin.

Hasieratik eman du zer pentsatua proiektuak, eta nabarmenak izan ditu zenbait arrakala. Baina, badirudi inaugurazioan hasi zela dena. Inaugurazioek horixe dute ona eta txarra. Donostiako Piratak Alderdi Ederren topa egiten ari ziren bitartean, azken prestaketa lanak kontrolatzen ari zen Hansel Cereza, Bartzelonako 1992ko Olinpiar Jokoetako eta 2004ko Kulturen Forumeko inaugurazio ekitaldien diseinatzailea. Handik ordu batzuetara, mingainak mizto, zabalik espero gabeko ahotan ere. 660.000 euro *horretan* xahutu izanaren zentzugabekeria. Alderdi emozionalari garrantzia

emango zion ekitaldiak inor gutxi hunkitu izana (jakinda gurean *Baga, Biga, Higa* entzunda oilo-ipurdia jartzea erreflexu eraikia dela). Cereza(ren) ulertu ezina. Etorri dira adierazpenak, artikulua, eta eztabaida; eta kritika egin dugu argien erabileraz, fokua argietan.

Alde ederrekoa, Alderdi Ederren alfonbra urdin parodikoaren oinetan egindako herri-brindisa. Gutxi baitira, Piraten gisan, arreta produktutik haratago prozesuan jarri dutenak. Gorka Bereziartuak *Argia*-ko blogean idatzi duen bezala, ikuskizunaren beraren desegokitasuna «kontratazio-moduaren albo-kalte» gisa uler liteke; eta zentzu horretan, diskurtsoaren eta praktikaren arteko aldea da larria, Bereziartuaren ustez, 'parte hartzea' bezalako kontzeptuak aldarrikatzen dituztenengan.

Izan ere, DSS2016k bere zutoihal bihurtu du hiritarren parte hartzearen kontzeptua (orain, parte hartzea kontzeptua baita). Hala, Cerezaren esanetara, mila lagun inguru aritu ziren inaugurazio ekitaldiko entseguetan parte hartzen eta 300 bat boluntario aritu ziren egunean bertan lanean. Eta boluntarioak biltzeko kanpainak aurrera darrai, urte osoan zehar antolatuko diren ekitaldietarako. Boluntarioak ez, 'saregileak', DSS2016ren hiztegia erabiliz. Alta, lehen aipatutako Manuel Delgadok ekitaldi handi horiek publizitate operaziotzat ditu. «Spot erraldoi» horietan hiritarrek figurante papera besterik ez omen dute izaten, makroekitaldi bakoitzari tokian tokiko kolorea emateko. Txalaparta hotsak eta lasto fardoak ez direlako aski balio unibertsal abstraktuen jokerrari zentzua emateko.

Tranpa bera ikusten dut, maila txikiagoan –eta aldi berean asaldagarriagoan– urtarrilaren 7ko Argi-gerrilla ekintzan. Potentzia handiko linternak, 30 boluntario, eta aurrez planifikatutako argi eszenak Donostiako txoko jakinetan. DSS2016ko komunikazio taldearen arabera, «heritarrek espazio publikoak eraldatzeko duten ahalmenaren erakusle da guerrilla [sic] lighting ekintza, izan ere boluntarioen parte hartzea behar-beharrezkoa da ekimena aurrera eramanez ahal izateko». Izan ere, kausazko lokailua. Are gehiago:

«Argi-ekintza honekin, beren ingurunean ikusten eta atzema-ten dutenaren sortzaile bilakatzen dira herritarrak». Sortzaile. Eraldatzaile. Gerrilla. Ekintza. Ezin burutik kendu Maialen Lujanbiok urtarrilaren 13ko *Sinadura*-n mahai gainera eka-rritako sinonimoen ekuazioa.

Baina esanahien perbertsioaz akusazioak egiten ari naizen honetan, aitor dezadan: fede ona egon badago. Ezin pentsa li-teke DSS2016ko proiektuan buru-belarri dabiltzan emakume eta gizon horiek guztiak kultura hegemonikoaren errepro-dukziorako engainu baten alde ari direnik. Asmo on horien aterkipean proiektu eder askoak sortu dira, eta garatuko dira. Eta proiektua kritikatzan dugun askok dugu hanka bat loka-tzetan, DSS2016k zuzenean edo zeharka finantzatzen duen egitasmoren batean parte hartzen dugulako. Parte hartzeak hori baitu. Sistema baten parte bihurtzen dela bat. Kontua da zein sistema motatan gauden, eta sistema horretan zein rol jokatzen dugun.

Bertso Eguna. Feminismotik sarea josten

Sare guztiak ez baitira berdinak. Ezta parte hartze guztiak ere. Azken aldian badirudi parte hartzeak berak bermatzen duela ekimen baten eraldatzailetasuna. Baina, parte hartze sare guztiak ez daude eraldaketarako diseinatuta. Sistemak norbere lekuari egozten dion funtzioak, balioek, estatusak eta norbere jarrerak definitzen dute (besteak beste) norbere agentzia maila. Eraldaketarik nahi ez duenak ederki babes-tuko du proiektuaren muina parte hartzaile soilen ekintzai-letasunetik. Enara Garciak, DSS2016ko parte-hartze ardura-dunak, azpimarratu duenez, «laguntzaileek berebiziko lana egiten dute. Haiek gabe proiektuak aurrera egin ahal izango luke, baina, ez litzateke berdina izango». Garciaren hitzetan, «boluntarioak ez daude ezein langileren ordez. Are gehiago, uneoro izango dute kontratupeko profesionalen laguntza». Ezin izan dut Bertsozale Elkarteaz gogoratzea saihestu.

Beñat Gaztelumendik *Argia*-n argitaraturiko elkarrizketan dioen gisan, askotan saldu dute eta dugu Bertsozale Elkar-tea eredugarritzat, eta horrek ez nau oso eroso sentiarazten. Baina, ezin da ukatu bertsoaritzak jakin badu tokian tokiko eta unean uneko egoerara egokitzen gure kultur eta gizarte ekosistemaxoan (eta ez naiz esaldi honetako «gure» definitzen ahaleginduko), musu-trukeko lanagatik izan dela hein handiengan, zorionez. Baina, urtarrilaren 21ean Euskaltzaleen Topaguneak antolatutako jardunaldietan agerian geratu zenez, badugu oraindik zer ikasia autoeraketaz eta ahalduntzeaz.

Feminismotik hartuta ekarri dugu 'ahalduntzea' gurera. Eta horretaz ere aspalditxotik ari da talde-gogoeta eraikitzen bertsoaritzaren inguruan, berriz ere, bertsoaritzaren mugimendua genero kontuetan eredugarri ikusteraino, barrutik zein kanpotik. Lujanbio txapeldun, Uxue Alberdi eta Ainhoa Agirreazaldegi diskurtsoaren bide-urratzaile, emakume bertsolari talde saretu bat eta Elkartean bertan genero batzordea. Eta egindako bidearen erakusle, genero-gaiak ardatz izan zituen 2014ko bertso egun polemikoa.

Pasa dira bi urte, eta urtarrilaren 30ean izan berri da 2016ko bertso eguna, eta aurtengoak ere eman du zeresana. Goizean saio musikatua izan zen Kurtaal pareko taberna batean, eta arratsaldean ekitaldi nagusia Kurtaalean. Hala, arratsaldeko saio osteko lehen tragoa hartzen ari ginela iritsi zen komentario –jo dezagun– anonimoa. «Saioa polita; egia esan urtero izaten da polita. Generoari buruzko hura izan ezik». Orduantxe esaten ari ginen saioa ez zitzaigula gustatu, eta genero ikuspegiari dagokionez, hutsune nabarmenak izan zituela. Bertsofeminaziak, kontzeptu gisa.

Aipatuko nuke arratsaldeko saioan, hots, ekitaldi nagusian, nabarmena izan zela emakume 'kupo' bete nahia, eta aurtan ere ez genuela bi emakumeren artean osatutako saiorik aditu ahal izan. Esan behar dut gai irekiak ere egon zirela, bi gizon bikote eta guraso paperean, esaterako, eta gero eta erosoagoak ari direla bilakatzen horrelakoak (bertsolariak ez zuten sentitu 'ama nor zen' zehazteko beharrik). Rol estereotipatuak


makina bat izan ziren, ordea (esaterako, jubilatutako aipatzerakoan, beste askoren artean ageri zitzaizkigun haurrak zaintzen zituen emakumea, batetik, eta «oraindik lanean» ziharduen gizon igeltseroa, bestetik). Goizeko saioan, aldiz, oso agerikoa izan zen genero ikuspegiaren lanketa, kupotik haratago. Estitxu Eizagirrek gidatutako saioan Ane Labaka, Maialen Lujanbio, Beñat Gaztelumendi, Miren Amuriza, Nerea Elustondo eta Rosi Lazkano aritu ziren kantuan, eta Idurre Eskisabelen testuek ederki jantzi zuten bertsolarien jarduna. Esango nuke arratsaldekoa baino dezentez saio gustagarriagoa izan zela –ikuspuntua ez bertsofeminazi batetik ere–. Arratsaldekoaren aldean xumeagoa, intimoagoa, eta merkeagoa. Hori ere ez da kasualitatea.

Joshua Fishman eta Angela Davis (oh, Angela gurea) koktel-ontzian sartuz, iruditzen zait 'genero arnasmuneak' sortzen ari direla bertsolaritzan ere, baina oraindik ez diotela sistema osoari (batzuek) nahi adina eragiten. Denbora behar dela esango dit batek. Gogoia behar dela beste batek. Eta biek izango dute arrazoi.

Maskaradak, *buhaminak* eta ikusezintasuna

Parte hartzea, jarraitutasuna eta berrikuntza. Zuberoan badakite zerbait horretaz. Aurtengo maskaradak (ere) horren adibide. Euskal Kultur Erakundearen hitzetan, «Xiberutarrak bizitzeko kostaldera joatearekin gelditu baldin baziren ere, berriki berriz bizi-bizi hasi dira, tradizioa eta modernismoa nahasten jakin duten tokiko jendeei esker». Aurten sohütarrrek (gehienbat Hoki baserri-auzoko euskal hiztunek) eskainiko dituzte maskaradak, hamahiru urte eta gero, berriz. 2003an eman zituzten azken aldiz, eta orduko kherestua da maskarada hauetako bi errejentetako bat (hots, bi gizonetako bat). Belaunaldi berri bati egokitu zaio lekukoa hartzea oraingoan, eta 38 lagun ibiliko dira, urtarrilean hasi eta apirilera arte, ohiturak eta aldaketak gorputzen.

Beti berdintsuak diruditen arren, maskaradetako berrikuntzak esanguratsuak izan ohi dira urte batetik bestera, maskaradek inauterien funtzio soziala betetzen segitzen duten heinean, eraldaketarako eragile ere badirelako. Aurten, adibidez, ez da jaunaren ezpata zorrozituko duen xorrotxik. Horien ordezkotako, bi artzain izanen dira. Emakumeak biak. Eta artzainek eta artaldeak osatuko dute maskarada hauetako buhame taldea edo, Allande Sokarrosek definitu gisan, *Buhamina* taldea. Izan ere, denak emakumeak dira, eta horietako baten peredikioak kutsu feminista ere ba omen du (ez gaitzen asalda: «maskaraden moldean, bromaz josia», beti ere). Are gehiago: neskak gehiengoa dira aurten parte hartzaileen artean. Sokarrosen artikuluan atentzioa eman didana, ordea, lerro-burua da. Testuan zehar argi ageri bada ere aurtengo aldaketa nagusietako bat emakumeen presentziaren eta rola ingurukoa dela –esan beharrik ez da Zuberoan ere espazio publikoa ez dela bereziki emakumeen esparrua izan, inauterietan ere–, horratx, lerro-burua: «Gaztetasuna eta berezitasuna». Ikusezintasuna, bi zentzutan. Ai, Angela, pasa zaitetz Oskixeko gainetik ere.

Ez baita erraza. Terminologia modernoa erabiliz, lurra prestatu egin behar da goldea –eta ez arrabola– pasatzeko. Generoaren eta parte hartze esanguratsuaren gaiek gogoe-ta eskatzen dute gugandik. Baina, onar dezagun: zer egingo genuke horrelako buru-lanik gabe? 2016 honek plazaratzen dituen zalantzetatik abiatuz berriak sortuko zaizkigu, zorionez. Lujanbiok bertso-eguneko agurrean bota zuen gisan, dudak ditugunez bizirik gaude. Pena metonimiko bakarra, hausnarketa-lagun izan ohi dugun kafea garestiago ordainduko dugula aurten. 



Ekonomia

Henrike Galarza

Mundua biran... buruz behera!

2016 urte berriaren hasieran izandako gertakizun odoltsu eta latzek atari ilunena jarri diote zegoeneko ziurtasunik ezaz eta sufrimenduaz tindaturik zetorren urteari. Izan ere, Parisko eraso pentsaezin bezain beldurgarriak; errefuxiatuen etengabeko tragediak; Irak, Kamerun, Palestina, Yemen, Siria, Libia bezalako herrietan pairatzen ari diren atentatu eta eraso basatiak; mundu, herri eta biztanleen aberastasun banaketaren okertzea –kasu Intermon-Oxfam erakundeak taxutu berri duen gai horren inguruko txostenari!– eta gure inguru hurbileko baztertutako pertsonen kopuru hazkorra ez dira ustekabeko salbuespenak, duela asko ereindako politika ekonomiko-sozial antikomunista eta atzerakoiaren emaitza krudel eta logikoak baizik.

Neoliberalismoa zen, eta da, soilki zerbaiten aurka mantentzen den antolaketa sozioekonomikoa. Kapitalismoan, indar produktiboen ahalmen bihurria gutxi batzuen interesetara bideratzen da. Ondorioz, ekidinezinak dira gatazkak, gutxiengo boteretsuaren eta gehiengo zapalduaren arteko lehia sozioekonomikoak. Halaxe da, egituraz, ezin da bertzela izan... sistema aldatzen ez bada.

Ildo horretan, Amerikako Estatu Batuetako lehendakari-tzarako hauteskundearen kariaz, nahiko interesgarriak dira Sanders hautagai demokrataren mezua eta lortu dituen lehenbiziko emaitzak. Wall Street eta haren *establishment*-a ezin gogorkiago kritikatzear gain, ez du inolako beldurrik izan publikoki bere burua sozialistatzat aitortzeko, edota dirudunek ordaintzen dituzten zergak igo behar direla azaltzeko. Non eta 'komunista' edo 'sozialista' hitzak soilki

iraintzeko darabiltzaten herri batean. Ikustekoa da Hillary Clinton hautagaiarentzat benetako mehatxua den, duela zortzi urte Barack Obama izan zen moduan, edo estatu 'liberal' bakan batzuetako ondoriorik gabeko anekdota koloretsua. Bertzaldetik, AEBetako errepublikanoen aldetik, beldurrezko istorio baten pertsonaiak ageri zaizkigu, zein baino zein eskuindarrago. Lehenengo lerroan jarri den Donald Trump hautagaiaren mezu xenofobo eta muturrekoak lagun, Ted Cruz, Marco Rubio eta Jeb Bush ultraeskuindarrak moderatu irudiz mozorroturik agertzen ari dira, haien benetako asmo atzerakoi eta belizistak bigarren planoan geraturik... Alderdi politikoen lehendakaritzarako hautagaien arteko lehia hasi bertzerik ez da egin. Azaroko bozketak izan arte, denbora-pasa politiko ederra izanen dugulakoan gaude. Ea onerako den!

Aro postmoderno hutsal honetan, memoria eta gertaera historikoen aitortzearen orde, 'memoriaren diskurtso-salgai' sorta bat eskaintzen digute, subjektibitate ezberdinen baturak, amalgama gehienetan, errealitate objektiboa osatuko duelakoan edo... beti ere merkatu kapitalistak ongi ordaindutako bozeramaile-loreontzien hedabideetako adierazpen gezurtiez horniturik. Zaila da, beraz, benetako egoerak islatzea, mozorroak kentzea, adierazpen publikoen sakoneko mezua erauztea. Informazio aro honetan, gehiegi dira debekatutako gaiak, zentsurapean aritzen diren hedabide eta kazetariak, ez ikusiarena behin eta berriro egiten duten politikariak. Gerra eta mehatxu ekologikoen peko mundu honetan, inoiz baino beharrezkoagoak dira anaitasuna eta elkarlan baketsu eta gardenak taxutzen dituzten nazioarteko zein barneko ekimenak, eta jende xumearen aldekoak badira hobe!

Errefuxiatuak Europako gotorlekuan

Europako Batasunean errefuxiatuei harrera duinik ez egiteaz gain, 'muga-sariak' ordainarazteko neurri legalak ezartzen ari

dira. Diotenez, sentimentalki garrantzikoak diren objektuak ezik –eraztun eta lepokoak, erraterako–, mugako funtzionarioek sakelako telefonoak, erlojuak edota bideokontsolak bereganatzeko baimen legala izanen dute, errefuxiatuak hartzearen ondorioz herriek dituzten gastuen finantziazioari aurre egiteko. Nola eta nork erabakiko du ‘atxikimendu sentimentalarena’? Eta bahitutako, konfiskatutako objektu horiek nola dirutuko? Beharbada, bigarren eskuko merkatuari bultzada ederra emanen diotela pentsatu dute Danimarka, Alemania edo Polonian, baina ez dugu oso argi ikusi prozedura hori guztia, duintasun pertsonal eta zuzenbidearen ikuspegitik, behinik behin.

Bela beltzez estalitako Egeo itsasoan, Hego Andaluzia edo Lampedusako kostaldean bezala, Evaristok izendatu zuen ‘oparotasunaren B aldea’ ezin ageriago geratzen ari zaigu, Mendebaleko zibilizazioaz aditu postmodernoen barreiatzen dituzten zurikerien gainetik. Mundu honetako herri eta biztanle aberatsenak, aurreratuenak ote?, gainerakoentzat eredugarriak izan beharrean, lehenengoak gara armagintza, gastu militar eta armen merkataritzan; droga legal eta ilegal gehienak saldu eta kontsumitzean; Ama Lurra kutsatu eta suntsitzeko orduan; mugaz haraindiko etorkinei hesiak altxatzen ere bai, behin baino gehiagotan haien bizitza bidean galtzeko aukerak igoaraziz.

Siriako gerra amaitzeko Genevan hasitako elkarrizketak, Erroman jarraitzeko omen direnak, edo dirua lortzeko Londresen egindako bilerak antzerki diplomatikoaren atalak bertzerik ez direla pentsatu dugu. Bakeari, eraso bortitzak eteteari oztopoak jartzea omen da ‘bakerako’ bileren asmo ezkutua. Izan ere, alderdi bakoitzean jokoan dauden eragin politiko-ekonomikoak pertsonen bizitza baino garrantzikoagoak balira bezala aritzen baitira, bai potentziak, bai gerran parte hartzen ari diren herri bakoitzeko talde armatuak... Eguzkipean, ezer berririk ez!

Bitartean, Europako Batasunaren eta Erresuma Batuen arteko negoziaketa berriaren emaitzak zentzu askotan

azaltzen ari dira, aferan dauden interes politikoen araberrako interpretazioei bide eginez. Hala, Cameron lehen ministroaren irakurketa baikorra ez dute egin euroeszeptiko britainiarrek, nahiz eta Bruselan Cameronei eskubide sozial eta ekonomikoen kudeaketa berezia bezain zekena onartu, EBko egoiliar batek lau urteko epearen barnean eskubide britainiarrik ezin jasotzeraino. Ez dago garbi, kontu horietan, Erresuma Batuko parlamentuaren eta Europako Batzorde eta Parlamentuaren arteko harremanak nolakoak izan diren. Beti bezala, subiranotasun nazionalaren murrizketa gehiegizkoa da batzuentzat, bertzeentzat onargarria denean, komunean dituzten helburuen ikuspegitik. Zentzu horretan, krisialdi ekonomiko eta sozialak normalki ez dira horrelako talde-egitasmoentzako ingurumari egokienak. Berekoitasun nazional eta politikoak indartzen diren heinean, elkarlanerako borondatea ahulduz doa, eta hartutako konpromisoei muzin egiteko zirikitu legal eta politikoak edonon bilatzen dira. Erresuma Batua, historikoki –orduko Europako Erki-dego Ekonomikoan sartu zen 1973tik aurrera–, Europako Batasunaren kide ‘berezia’ izan da. Bere garaian, De Gaulle *président*-ak ez zuen nahi britainiarrik Europako Batasunean, herri horretan Amerikako Estatu Batuetan gehiegizko itzala ikusten baitzuen. Gero, joan den mendeko laurogeiko hamarkadan, Thatcher andrearen birnegoziaketa gogorak –gogoan izan txeke xelebrea– britainiarren kideztari bertze ezberdintasun puntu bat erantsi zion. Gero, euroari ezetz erran bazioten, Schengen itunari baiezkua ematea oso ongi ikusi zen Bruselan. Orain, *Brexit* delakoa saihesteko –bere biztanleei erreferenduma agindu die Cameronek–, baldintza bereziak onartu dizkiete.

Inkesten arabera Europako Batasuna uzteko hautuak aukera gutxi badu ere, ezin da ukatu erabakiaren inguruko ezbaiak finantza merkatuaren gainean izan lezakeen eraginarean garrantzia, egungo aurrekontu publikoaren defizita eta bankuen nazionalizatzeko erraldoiaren konponketak tartean izanda.

Petrolioaren merkatuan, egoera aldakorak norabide askotarikoak

Nazioarteko boikota amaitu ondoren, Irango Errepublika Islamiarraren egoera ez da gehiegi hobetu. Hasi petrolioaren salneurri apalarekin, haren auzoko herrietako egoera eze-gonkorrarekin amaitzeko. Barne tentsio eta gatazka irekiak ahaztu gabe. Hala ere, Mendebaleko zenbait herritatik igaro da Rohani lehendakaria milioikako kontratuak, edo aurrea-kordioak, sinatzen. «*Business as usual*», diotenez. Ikustekoa da potentzia kapitalisten jarrera ireki horrek luzaro iraunen duen. Deflazioari eta langabeziaren mehatxuari aurre egiteko 'lokomotora' bat edo gehiago behar du kapitalismoak. Duela hogeita bortz urte, 1989 inguruan, Japoniako ekonomia atzeraldian sartu zenean, espekulazio-hamarkada ero baten amaieran, kapitalismoaren kontraesanak areagotzen ari ziren, Sobiet Batasunaren barneko tentsioak lehertzen hasi eta gero, bereziki. Bloke sobietarraren desagerpena kapitalismoaren erabateko garaipena izan beharrean, sistema politiko-ekonomiko neoliberalaren gabeziak ezkutatzeko indarrean zeuden mekanismoak, Gerra Hotzaren garaietatik zetozenak, agerian utzi eta nolabait indargabeturik geratu ziren. Hasiera batean, joan den mendeko 90eko hamarkadaren lehenengo erdian, Amerikako Estatu Batuetan lidergoa sendotuko zela bazirudien ere, Yugoslavia ohiaren banaketaren prozesuaren inguruan sortutako desadostasun estrategiko berriak (gogoan izan Alemania batua ez zutela oso begikoa Mitterrand eta Thatcherrek, eta Alemaniak Ekialdeko Europako lehenbiziko independentziak inolako negoziatorik gabe aitortu zituela bere kabuz) eta Sobiet Batasunaren desagerpenarekin sortzen ziren merkatu kapitalista berrien kontrolatzeko saia-kerak bloke kapitalista zatitzeko nahikoak izan zirela. Gero, euroaren sorrerarekin Europako Batasunak mundu mailako hedapena garatzeko tresna izan zuelarik, nazioarteko lehia azkartu eta areagotu da, merkatuetan Txina, India eta enparauren agerpen indartsua ahaztu gabe.

Energia berriztagarriak babesten eta goresten dituzten gobernu berberak petrolio eta gasbide berrien eraikuntza prestatzen ari dira. Egitasmo horien garrantzi geostrategikoaz gain, enpresa transnazional batzuentzako egundoko negozioa dira, urteetako lan eta diru sarrerak suposatzen baitituzte. Orduan, ikustekoa da petrolioaren salneurria hain merke mantentzearen politika egin beharreko inbertsio berriekin bateragarria ote den. Venezuela, Iran edo Errusia bezalako herrietan erne dabilta, baina petrolio merkearen aroa gainditu arte ezin izanen dute behar duten finantziarioa eskuratu, nazioarteko finantza merkatuetatik at, noski.

Foru Gobernuaren duda-mudak

Espero bezala, aldaketaren aldeko nafar gobernu berria kritika on eta txarrak jasotzen ari da. Bere garaian lerro hauetan aipatu genuen moduan, oso zaila da egun batetik bertzero gastu publikoaren antolaketa aldatzea, are zailagoa diru sarreraren aldetik arazoak bertzerik ez dauden uneetan. Izan ere, zerga erreforma kontuan harturik ere, datozen urteetan bere helburuak lortzeko nafar gobernu berriak eskura izanen duen haren gastuaren zatia oso txikia izanen delakoan gaude, gehiena gutxienerako diru laguntzak bezalako gastu sozialetan inbertiturik. Beharbada horregatik, keinu eta erabaki sinbolikoak ugaltzen ari dira: ostalaritzako ordutegi eta baldintza zorrotzak, lan gatazkan dauden langileekin egindako elkarrizketak, etxe baten desjabetzearen aurka azaltzearena... Baina, bertzaldetik, administrazioaren lagun baten izendapen ezabatua; Hezkuntzako lan eskaintzaren *espantada*; Baztan aldeko egitasmo turistiko erraldoiarena... Sinbolikoki nahiz ekonomikoki oso esanguratsuak diren kontuak direla uste dugu. Orain arte, behintzat, hirutan, nafar gobernuaren erabakiek ez dute inor kontent utzi. 'Aldaketa'-gobernu batetik espero daitekeen gutxienerako da beraren programa eta hitzari eustea, printzipioengatik bada ere! Funtzionario

bikain baten karrera ez zikintzea bai zela 'independente' izateko arrazoi pottolo eta sendoa, alajaina! Ohiko astoei men egitearenak ez du izenik. Eta zer erran, urteetan zehar –eta zein urte haiek!– *Vascuence*-ren legeak zigortutako Nafarroa Garaian, euskal hezkuntza aurrera eta goiko mailetara eramaten ari izan diren ehunka lagunak aukerak kontratu finko bat lortzeko lehian sartzeari, ez baitira doan ematen, ateak ixtearenaz! Lehenbiziko mobilizazioak iragarri dituzte gehiengo sindikala osatu duten sindikatuek, baina erabakia ez dela aldatuko ematen du. Aukeren sasiberdintasunaren aitzakia merkea erabiltzearenak berea egin zuela pentsatu dugunontzat bai kolpe gogorra! 🚫



Hizkuntza politika ausarta ala hizkuntza komunitate indartsua?

Galdera-tranpa bat da hori, ezer izatekotan. Gehienok erantzungo genuke hizkuntza politika ausarta eta komunitate indartsua. Biak. Biak direlako beharrezko eta ezinbesteko. Biak zaizkigulako orain eta hemen gutxi. Biak behar(ko) ditugulako gure zuhaitzaren barne-izerdia elikatzeko. Biak.

Baina horrelako egoera idealik izango bagenu, ziur naiz horren tankerako galderarik ez genukeela egingo, inola ere ez. Beraz, galderaren muinera bueltatuta: zein izan beharko litzateke lehentasun ikuspuntu soziolinguistiko huts batetik (horrelakorik balego, jakina)? Edo, beste era batera adierazita, zein da beharrezkoago gure biziberritze kultural zein linguistikorako? Non jarri behar da indar gehien bi esparru horien artean?

Hizkuntza legeei (edo araueri) egin beharko genieke jaramon lehenik. Joshua Fishmanen aipu batekin oratuko diot gaiari:

Legeak alferrik daude, haiek sustengatuko duten sustapen sozialik ez badago. Izan ere, sustapen hori gabe, ezin dituzte bete ezarritako helburuak. Era berean, legeen bidez lortu nahi diren helburuak lor daitezke, baldin eta horiek lortzeko indar sozialik nahikoa bada, lege espliziturik behar gabe.

William Mackeyk ere antzeko zerbait esaten zuen:

Hizkuntza-legeak eraginkorrak dira sustatu nahi den hizkuntzari atxikita dauden beste alorretako nagusitasunak gertatzen direnean: nagusitasun kulturala, ekonomikoa, demografikoa, eta abar.

(Bide batez, 2015ean zendutako bi egile horiei omenalditxo txikia egin nahi izan diet).

Hala ere, nire ustez, gurean bada, legeen eraginari dagokionez, muturretara jotzeko joera argia. Nekez beteko du bere helburua ezelako babes sozialik ez duen legeak. Hala ere, gutxieneko sustapen soziala duen legeak bere helburuak bete ditzake sakon-sakon (tabakoaren kontrako legeen kasuan, adibidez). Muturrik mutur ibiltzera ohitu gara askotan, baina kasu honetan ere grisak eta ñabardurak behar-beharrezkoak direlakoan nago. Kasu honetan ere.

Ematen du, gainera, maila sozialean hizkuntzak duen bizitasunaren arabera dela sarritan hizkuntza politika. Edo, behintzat, hori ondorioztatu dezakegu Kontseiluak udalerrietan egin dituen hiru azterketak aintzat hartuta (azkena 2014koa izan da). Azterketa horietan udalerriak sailkatu egiten dira hizkuntza politikaren arabera. Puntuazioa ematen da hainbat gai eta kontu aintzat hartuta, eta, horrela, hizkuntza politikaren ranking bat egiten da.

Hortaz, zerrendaren goiko aldean agertzen direnak, gobernatzen duen alderdia edozein izanda ere, euskaldunen proportzio altua duten herriak dira, eta, ostera, beheko aldekoak euskaldunen proportzio txikia dutenak (kasu horretan ere, boterean dagoen alderdia edozein dela). Azterketa horrek iradokitzen du hizkuntza komunitateak duen indarraren arabera izaten direla herrietako hizkuntza politikak.

Itzul nadin hasierako galderak dakarren dilematxora. Hizkuntza komunitate indartsua, indar soziala duena, lehenetsi behar al da? Orduan, zergatik egin dute gure moduko mugimendu sozial guztiek (langileak, feministak, antimilitaristak...) indarra euren aldarrikapen eta eskakizunek lege-gerriza izan dezaten? Horiek ere itsutu dira botere eta legearen fokuen eraginez ala?

Argi dago alde guzti-guztien (soziala, politikoa, ekonomikoa, juridikoa edo akademikoa izan) indarra beharrezko dugula, hanka guztiak behar ditugula. Eta, horietako batek huts eginez gero, hankamotz ibiliko garela. Baina, nire ustez, alde soziala etengabe eta indar handiz elikatu, biderkatu eta birsortu behar dugu, berritu eta indarberritu eta biziberritu.

Menderakuntzetatik askatzeko prozesuak (euskararena barne) aldi berean dira pertsonalak eta kolektiboak, eguneroak eta egiturazkoak. Hori dela eta, ez da nahikoa 'boterea eskuratzea' (hizkuntza-politikaren 'boterea', gure kasuan), baizik eta jendarteko 'botere-harremanak eraldatzea', eta hori ez da bakarrik dekretuz lortzen.

Adibide batekin azalduko dut. Porto Alegren *Partido dos Trabalhadores* boterera iritsi zenean 1988an, argi ikusi zuten euren programa bete ahal izateko ez zela nahikoa hauteskundeak irabaztea. Presio soziala beharrezkoa, ezinbestekoa zela ikusi zuten. Eta, horregatik, saiatu ziren presio sozial hori administratibotik ere antolatzen eta, horrela, aurrekontu parte-hartzaileak asmatu zituzten (beste eztabaida bat da ea lortu duten bilatzen ari ziren hori, baina tira).

Hortaz, hasieran egin dudana galdera horrek dakarren dilematxoa beste modu batera uler daiteke. Zelan indartuko dute hizkuntza komunitatea gaur eta hemen erabiltzen ari diren politikek? Eta etorkizunean zelan indartu beharko lukete? Agian, hori izan daiteke hizkuntza politika guztien eragina neurtzeko beharrezkoen dugun adierazlea. Horrek komunitatea sortzen du? Indartzen ote gaitu? Trinkotzeko balio dezake? Euskaldunak boteretsuago egiten laguntzen du?

Itxaron genuen

Iraganari buruz pentsatzen ari ginen, etorkizuna irudikatzen. Triste jarri ginen, beldurtu ginen, amorratu ginen, mina borbor-ka genuen. Protesta egin genuen, kalera atera ginen. Aldarrikatu genuen, eskatu genuen.

Itxaron genuen.

Eta ezer ez.

Ondoren etorri ziren galderak, jendea, haserrea, amets bat, ideia bat, beste amets bat, haserrea borbor-ka, ideia gehiago, esperantza apur bat.

Goazen!!

Eta joan ginen.

Itxaroteari utzi eta bakarrik abiatu ginen, inori baimena eskatu

barik. Eta errealitate gara, txikia baina sendoa, larria baina esperantzaz betea.

Goian agertzen den testu hori Galiziako Semente eskolek banatutako esku-orri batetik hartu eta itzuli dut. Adierazgarria iruditzen zaidalako, bete-betean asmatzen duelako eta, gure egoerarako ere, gako batzuk ematen dituelako. Ez ala?

Autoeratzea izan da gure komunitate linguistikoak aurrera egiteko aukeratu izan duen bide nagusia (aukeratu diodan arren, hainbat eta hainbat kasutan beste aukerarik ez zegoela argi dut): ikastolak, gau-eskolak eta euskaltegiak, komunikabideak, zerbitzu-enpresak... eta euskara elkarteak (edo, orain, horietako batzuek nahiago duten bezala, euskaltzaleen topaguneak).

Galiziara itzulita, han izan naizenetan, euskara elkarteen mugimenduak sortu du harridura gehien. Autoeratze prozesua izan delako, bai, baina, batez ere, elkarte horietako askok lortu duelako ezberdinen arteko lana egitea helburu komun baten alde. Hau da, elkarteetatik kanpora utzi direlako, salbuespenak salbuespen, bakoitzaren alderdikeriak, eta batzen gaituenari begiratu izan zaiolako eta ez banatzen gaituenari.

Nago gurean (eta, agian, horregatik Galizia aldeko lagun harridura, guztiz ezezaguna baitzaie) ez zaiola behar besteko merezimendua aitortu euskara elkarteen mugimenduari. Txepetx eta haren teoriak ezagutzen dituzte galiziarrek, baina haren eraginez (aldez edo moldez) sortutako aplikazio praktikoen inguruan ezer gutxi dakite. Eta zer pentsatua ematen du. Gure kanpoko proiektioaren inguruan hausnartzera bultzatzen nau horrek (baina hori ez da gaurko gaia).

Autoeratzeaz ari nintzen. Jon Sarasuak dioen moduan, autoeraketaren kontzeptuak bere baitan bil ditzake autodeterminazioa, autogobernua, autoantolaketa eta autokudeaketa edo autogestioa. Autonomiaz sortu eta jardutearen mailakatze edo une desberdinak batu ditzake, multzo handiago batean.

Mila bider praktikatu dugu gurean autoeratzea, gauza askotarako (gaztetxeak, kooperatibak, euskara elkarteak, musika argitaletxeak, komunikabideak, kafe antzokiak...). Gure azken

50 urteko historia (eta ez nabil bakarrik soziolinguistikaz) ezin da ulertu autoeratzea kontuan hartu barik. Eta, aurrera begira ere, jarraitu beharko dugu autoeratzearen bidea praktikatzen, jarraitu beharko dugu horretan denbora eta energia jartzen. Kosta ahala kosta. Berariazko zein bide batezko eus-kalgintza moldeetan. Hizkuntza komunitate indartsu batek behar-beharrezkoak dituelako autoeratze bideak.

Militantzia

Topaguneak urtarrilean antolatu dituen XIII. Topaldian ere autoeratzea aztertu dute (ahalduntzea eta performatibitatearekin batera, euskaltzaleen aktibazioaren aterkipean). Autoeratzea gai hartuta, hiru berbaldi izan ziren: Imanol Larrañagak 'Autoeraketa: Euskaltzaleen Elkarteen Mugimenduaren sorreratik hainbat irakaspen', Mikeldi Zeberioak 'Autoeraketa XXI. mendean. Hondarribiko Blagan euskara elkarrearen sorrera prozesua' eta Joxemi Zumalabe Fundazioak 'Parte hartzea XXI. mendean. Aktibismoa: militantzia vs boluntariotzaren alternatiba gisa?'.

Bereziki interesgarria iruditu zitzaidan Marta Luxanek eta Pili Alvarezek aurkeztutako ponentzia, Joxemi Zumalabe Fundazioaren izenean. Militantziari, aktibismoari buruz aritu ziren Durangon, autoeratzearen inguruan, aldez edo moldez.

Orain arte, militantzian muturreko bi ereduren arteko soka-dantzan ibili ei gara: sakrifizioaren kulturaren eta bizipozaren kulturaren artean, hariaren gainean ibiliz. Lehenengoaren paradigman, «egin egin behar da», «tokatzen da» eta horrelakoak izan ohi dira aipagai. Bigarrenaren paradigman, ostera, «nahi dudanean, nahi dudalako eta nahi dudan bezala» dira aipatzen direnak.

Mutur batek zein besteak abantailak eta desabantailak dakartza. Eta, horren aurrean, fundaziokoek proposatzen dute hiruki bati egin behar zaiola beti kasu. Hiruki hori honako elementu hauek osatzen dute: niak, taldeak eta proiektuak.

Prisma hirukoitz horren arabera aztertu behar da militantzia, eta prisma hirukoitz horren arabera proposatu behar dira irtenbideak eta etorkizuneko ildoak. Hau da: horrek laguntzen al nau? Laguntzen al du taldea? Laguntzen al du proiektua?

Hogeita lau orduko militantziari buruz ere aritu ziren Joxemi Zumalabe Fundazioko kideak. Eta esan zuten 24 orduko militantzia ez dugula ulertu behar disposizio moduan, ez dugula momentu oro prest egon behar militantziak eskatzen dituenak emateko. Ez. Aitzitik, bizi-eredu moduan ulertu behar dugu. Hau da, militatzen dugun proiektu politikoa gaurdanik bizitzeaz ari dira, hemen eta orain bizitzeaz. Beste modu batera esanda, etorkizunean nahiko genukeena aurretiaz bizitzea dakar (edo ekarri beharko luke) 24 orduko militantziak.

Izan ere, amesten dugun jendarte berria ez da berez sortuko, ezta dekretuz ere (horiek laguntzen duten arren). Guk geuk eraiki beharko dugu, egin beharko dugu egunez egun, gaurtik hasita. Inori itxaron barik, ezeri itxaron barik, autoeratzuz. Jendarte aldaketa eragin nahi dugu, euskararen biziberritzea hori baino ez da: oraingo jendarte aldatzeko sakoneko proiektua. Eta, beraz, aldaketa horri lagunduko dioten bizi-ereduak sustatu, bultzatu eta lagundu behar ditugu gaurtik. Etorkizunaren mezu izanda. 🌸



Telepolis

Gorka Julio

Chromecast trantsizioa

Telebista ‘inteligente’ bat ez baduzu, tresna honek zure telebistari bigarren bizitza bat eskain diezaioke. Gero eta telebista gehiago dira Internetera konektatu eta bertako edukiak ikusteko aukera ematen dutenak. Aldiz, beste askok oraindik ez dute konexiorik; Chromecast bidez horixe da lor daitekeena.

Telebistaren HDMI sarrerara lotzen den USB gailu txiki bat da Chromecast delakoa. Konfiguratzen oso erraza da: gailua sartu, etxeko wifi sarea piztuta dagoela ordenagailu baten edo mugikor baten laguntzaz pauso batzuk jarraituta konfiguratuta izango duzu. Hortik aurrera, zure telefono mugikorra edota ordenagailua erabiliz edukia bidali ahal izango duzu pantailara.

Aukerak asko badira ere, oraindik mugak baditu; ordenagailutan Chrome nabigatzailea erabiltzea da gomendagarriena eta Android gailutan, aldiz, Chromecast aplikazioa. Aplikazio horren bidez, adibidez, Chromecastera edukia bidaltzeko aukera ematen duten beste aplikazio askoren zerrenda ikus dezakezu, ez baitira guztiak aukera hori eskaintzen dutenak.

Horien artean aurkituko dituzu noski ikus-entzunezko zerbitzu ohikoenak, nola ez Youtube, baina baita ere Netflix bezalako berriagoak ere. Oso era erosoan ordenagailutik edo mugikorretik kontrolatzeko moduan izango dituzu orain bertan ikusi nahi dituzun bideo, pelikula edo telesailak.

Zerbitzu horiek erabiltzen ez badituzu ere, badira p2p sareen bidez bideoak jaitsi eta aldi berean ikusteko aukera ematen duten tresnak ere. Popcorntime itxi zutenetik, ondorengo asko sortu dira, horietan interesgarriena stream.io:

azpitoluekin momentuko serie eta film interesgarrienak jarraitzeko tresna paregabea.

Bukatzeko, jadanik gure ordenagailu edo mugikorrean ditugun bideoak ikusi nahi baditugu, badago tresna paregabea: Videostream (getvideostream.com) gehigarria. Chrome nabigatzaileari atxikitzen zaion gehigarri horrekin gure ordenagailuko edukiak bidali ahalko ditugu pantailara. Euskarazko azpitoluak baditugu, adibidez azpitoluak.com webgunetik jaisiak, horiek ere bidal daitezke aldi berean. Oraindik ere errazago eta erosoago egiteko, gehigarriaren izen bera duen Android aplikazioa jaisiz gero, mugikorra telemando bilakatuko dugu eta bertatik dena kontrolatzeko aukera izan.

Oso tresna sinplea, baina eraginkorra; pena Googleren beste garro bat ere badela, baina tira. Behintzat oraingoan prezioa ere merkea da, 39 euro bertsio berriena. Telebistak ere trantsizio fasean daude eta tresna horrek ondo betetzen du espazio hori.

Ziborgak gara

Neil Harbisson munduko lehen ziborga bezala kontsideratutako pertsona da. Erresuma Batuko nazionalitatea badu ere, Matarón (Katalunia) bizi da. Bera kontsideratzen da onartutako munduko lehen ziborga, buruan inplantatua duen antenarekin agiri ofizial bateko argazkian agertzea lortu zuenetik.

Jaiotzaz akromatopsia izeneko arazo bat zuen Harbissonek. Arazo horren ondorioz, errealitatea kolorerik gabe ikusten du, hau da, zuri-beltz eskalan. Hori konpontzeko esperimentatzen hasi eta antena baten bidez inguruko kolore espektroa soinu bihurtzea lortzen zuen gailu bat asmatu zuen. Hasieran, ordenagailu pisutsu bat eraman behar zuen ondoan, ondoren txip txikiago bat haragi azpian eta azkenik burezurrean zuzenean antena bat jartzea lortu zuen.

Horrela, bere inguruaren hautematea erabat aldatzea lortu du Harbissonek, inguruko koloreak orain entzun egiten

ditu. Supermerkatu batera sartu eta bere *eyeborg*-ak zuzenean transmititzen dizkio koloreak. Koloreek sortzen zizkioten sentsazioekin amesten ere hasi zenean konturatu zen Harbisson ziborg bat zela. Bere burua aldatzen hasi zen, orain zentzumen berriak ematen zion hori; zuzenean bere garunean ere eragina zuen, gero eta lausoagoa zen pertsona eta makinaren arteko muga.

Sentsazio horiek azaltzeko eta bere pentsamendua jendearengana iristeko, Cyborg Project (<http://cyborgproject.com>) transmedia lana jarri zuten martxan. Dokumental horretan, berak kolorea audio bihurtzean eta alderantziz sortzen dituen koadro eta soinuak ikusteko aukera dago. Aplikazio bat ere sortu du bere esperientzia besteok gure mugikorraren bidez bizi ahal izateko. Aplikazioa instalatu, leku batera apuntatu eta kolore horrek emititzen duen soinua entzungo dugu.

Horren ondoren, Harbissonek ziborgen defentsa eta promozioa egiteko fundazio bat ere sortu zuen Moon Ribasekin batera. Cyborg Fundazioa (<http://cyborgism.wix.com/cyborg>) ziborgen eskubideak defendatu, zentzumen berriak garatu eta ziborgismoa deitu dioten arte mugimendua sustatzea helburu dituen fundazioa da.

Beren ustetan sortzen dituzten tresnek ez dute gizakiok ditugun arazoei erantzuten diotenak izan behar soilik, zentzumen berriak garatzeko aukera aldarrikatzen dute. Harbissonek berak, adibidez, bere asmakizuna hobetu zuen eta Interneteko konexioa gehitu zion, horrela, bertan ez zeuden koloreak ere entzun ahal izateko; espazioa beltza ez dela esan ohi du askotan, gizakiok ikusi ezin ditugun koloreak 'ikusten' baititu berak *eyeborg*-ari izpi ultramoreak eta mikrouhinak detektatzeko aukera gehitu zionetik.

Buruan badituzte beste hainbat asmakizun ere: atzerako begirada, atzean gertatzen dena ikusteko aukera ematen duen zentzua; zentzu elektromagnetikoa, iparrorratz batek dituen gaitasunak izateko; eta belarri infrasonikoa, gure gaitasunetatik beheragoko uhin akustikoak entzuteko aukera ematen duen zentzumena.

Eztabaida asko irekitzen baditu ere, argi dago teknologia eta gizakion arteko mugak gero eta lausoagoak direla. Gizakiak beti erabili izan du teknologia, makil bat izan edo ordenagailu bat, bere bizitza hobetzen saiatzeko baliatu du beti. Orain gorputzean integratzen hasiko gara, hortxe dago koxka batzuentzat.

Badira, horrekin lotuta, beste proiektu izugarri interesgarriak ere; horietako bat, Enabling the Future, behar duten pertsonentzat esku robotikoak eskaintzera bideratutakoa (<http://enablingthefuture.org>). 3D inprimagailuak hainbeste zabaldu direnez, horiek baliatuz plastikozko esku protesikoak sortzen ditu proiektuak eta behar dituztenei helarazi. Gure inguruan, Oreretako Don Bosco eskolak parte hartzen du aktiboki proiektuan (<http://ikaslab-donbosco.blogspot.com.es>).

Aukerak eta arriskuak, betikoa; baina irekitzen diren eztabaidak aldeko eta kontrakoan artean banatzea baino, ertz guztiak aztertzeko aukera ematen duen eztabaida baten bidez bideratzea nahiko nuke nik, etorkizuneko erronka gehienak bertan sintetizatzen direlako: generoaren eztabaida. Generoaren eztabaida ziborgen eztabaidarekin uztartuko bagenu? Proposamena ez da berria, Donna Harawayk bere Ziborg Manifestuan proposatu zuen aspaldi, baina inoiz baino beharrezkoagoa dugu orain.

Parte hartze plataforma herritarrak

Espainiako Estatuko hiri handiek parte hartze eta gardentasun tresnak jarri dituzte martxan. Hiritarrekin harreman fisikotik harago ere, leiho birtual bat ireki nahi izan dute jendearen ekarpenak jaso eta erabakiak hartzen laguntzeko. Madrid Decide (<https://decide.madrid.es>) izan zen horietako bat, eta orain Bartzelonak ere (<https://decidim.barcelona>) bide berari ekin dio.

Biek Consul softwarea erabiltzen dute, hiri handientzat garatutako software libreko tresna. Horri esker, hiri

ezberdinetan egiten diren garapenak partekatu eta berrerabili ahal izango dituzte, kostuak murriztuz eta tresna etengabe hobetuz. Bide interesgarria dudarik gabe, erakundeen arteko trukea posible egiten duen eredu baita. Administrazioaren norabide politikoak egin du posible oraingoan, baina hori gabe ere software libreak ateak irekitzen ditu arlo ezberdinetako jendeak ekarpenak egin eta baliatzeko, nahiz eta kolore politiko ezberdinetakoak izan.

Softwarearekin, aldiz, ez dago dena konponduta; horrela balitz, aspaldi konponduta genuke parte hartzearen gaia. Madril eta Bartzelonaren bideak oso ezberdinak dira kasu honetan. Madrilek tresnan bozka kopuru minimo bat lortzen duten ekimenak hartzen ditu kontuan. Bartzelonak, aldiz, prozesu parte hartzaile bat jarri nahi du martxan, fisikoa eta digitala aldi berean, ondoren hortik ateratakoekin aurrera eramanez daitezkeen ekimenak bideratzeko.

Argi dago bultzada politikoa ere beharrezkoa dela bi kasuetan, baina baita jendearen parte-hartze kultura sakon bat ere. Komunikazio tresna ugari eta zuzenagoak ditugun garaian, jendartearen eta erakundeen artean urruntasun handia nabari da. Hori konpontzea zaila da, denbora hartuko duen ahalduntze prozesu baten parte ere bada.

Akatsa litzateke, aldiz, tresna horiek zuzenean aztertu gabe ere gurera ekartzea. Herri eta hiri bakoitzak bere izaera dauka eta bertara moldatu beharko genituzke, edo berriak proposatu. Kontraesan handietan ez sartzeko garrantzitsua da, hori bai, software hori librea izatea eta nahi duenak egiaztatu, aztertu, erabili eta hobetu ahal izatea.

Bide horretatik sortu dira *Sharetu.eus* eta *Ask-e* Euskal Herrian. Parte hartzera bideratutako tresna horien bidez, erakundeek egin behar dituzten ekimenak jarraitu edo herritarrek beraiek egin ditzaketen proposamenak jasotzeko Herritarren Parte Hartze Plataforma bat sor daiteke. Erakundeek egiten dituzten ekimenei buruzko iritzia aurretik jasotzeko edo ondoren egiten direnei buruzko kexak eta proposamenak biltzeko helburua dute biek.

Sharetu (<http://sharetu.eus>) herrietako gaiei buruz mintzatu ahal izateko sare soziala eta herritarren partaidetza sustatzera bideraturiko tresna da. Herritarren eta udalen arteko zubi bat, denon eskura, webgune publiko batean edozeinek erabiltzeko moduan.

Ask-e (<http://aske.eus>), aldiz, udalek berezko udal webgunean edo azpiegituran txertatu ahal duten tresna librea da, herritarren partaidetza sustatzeko. Herritarren ekarpenak jasotzea, bideratzea eta erantzutea ahalbidetzen duen IKT tresna propioa behar dutenez da. Sharetu atariak eskaintzen dituen aukerez gain, barne kudeaketan laguntza eta azpiegitura propioetan ezar daitekeen sistema oso bat da, alegia.

Gero eta gehiago izango dira era horretako ekimenak arlo guztietatik. Posible da arlo pribatuetatik ere sustatu eta arrakasta izatea. Hobe arlo publikotik indarrak bildu eta software librean oinarritutako ekinbide publikoari ekitea. Arrakastaren gakoak herritarren parte hartzea eta herri erakundeen sostengua izango dira beti, baina ausardia ere behar da, eta hori indar politiko publikoek jarri beharko dute. 🍷

KAIXO, ADISKIDEAK...
1955.EAN, BBCRENTZAKO
DOKUMENTAL SORTA BAT
EGITEN ARI NINTZELA
EZAGUTU NIEN EUSKAL
HERRIA, "THE LAND OF
THE BASQUES".

HIL OSTEAN, BEHINGOZ
ASTIA NUELA PROFITATUZ,
RENO UNIVERSITY-KO
BASQUE STUDIES
PROGRAM-EAN EMAN
NIEN IZENA ETA
ZULAIKAK ESAN ZIDAN:
"HEY, ORSON, SANABABITX,
BEHAR DUK BASKALNTRIN
PALISATU BERRIZ
HIRE IPURDI
GIZEN HORI..."

Around the World with Orson Welles

★★★★★



...ETA HEMENTXE GAUDE, BETWEEN SPAIN AND FRANCE,
NI ETA NIRE ZIGARRO-PURUA, EZEN PLAZA HONETAN,
IBILI, EZ DABIL EZTA HAIZERIK ERE!

ORAIN HIRUROGEI URTE ETORRI NINTZENEAN,
TRUCK BETE TREPETA ETA BOST TEKNIKARI
NITUEN NEUREKIN. GAUR DONOSTIAKO
KAKKAKO BAT BAINO EZ DUT,
MUGIKOR ZANTAR BATEKIN
TARANTINO IZATERA OLGETAN.

EUSKALDUNA DELA DIO BAINA,
DAMNED! EZ DA KAPABLE IZAN
SARAKO OSTATUAN OLDMAN
HONENTZAKO ARNO XORTA BAT
ESKATZEKO! EZ OMEN DU
FRANTZIAKO EUSKARA
KONPRENITZEN.



IPARRA ETA HEGOA DA GAIA, BAIKI, I KNOW...

BETI ESAN IZAN DIDATE IPARRA GALTZEKO JOERA HANDIA ETA EGO NEURRIBAKOA NITUELA,
ANYWAY, 1955.EAN ETORRI NINTZENEAN MUGA-LERROAZ GAINDI ETA HARAINDI BIZI ZEN HERRI BATI BURUZ
ARITU NINTZEN.

GAUR EZ DAGO HAIN ERRAZ BER GAUZA ESATEN. ESANGO NUKE, BESTEAK BESTE,
KOORDENATUEN ALDAKETA BORTITZA PAIRATU DUELA EUSKAL HERRIAK. EZ DA GEHIAGO IPAR-HEGORIK...

MENDEBALDEAK IRABAZI DU.

THE LAND OF BASQUES

zugaz/
art



Jakin ^{eus}
herria kultura hizkuntza

Tolosa hiribidea, 103-1.C
20018 DONOSTIA
Tel. 943 21 80 92
jakin@jakin.eus
www.jakin.eus

